

EUSKAHALDUNTZE TALDEAK SORTZEN

tokian tokiko euskara elkarteen
zeregin berria?



HIZNET HIZKUNTZA PLANGINTZA GRADUONDOKOA

2020-2021 IKASTURTEA

EGILEA: Imanol Artola Arretxe, "felix"

TUTOREA: Gemma Sanginés Saiz

Eta horrela bizitzen gera, sortuz ta sortuz gure aukera,

Xabier Lete

Mikel Artola gregarioari

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	3
NORK BERE GALTZETAN ERE, GALTZAK BETE LAN	4
SARRERA.....	6
AHALDUNTZEA	7
AHALDUNTZE BERTSO ESKOLA EREDU.....	8
HIPOTESIA	9
HELBURUA.....	10
MARKO TEORIKOA	11
ESTRES LINGUISTIKOA.....	11
ASERTIBITATEA.....	12
MUDA LINGUISTIKOA.....	15
METODOLOGIA.....	17
PRESTAKETA	19
PARTAIDEAK	19
AZALPEN BIDEOA.....	19
ABIAPUNTUA.....	21
PROZESUA	25
SEI PARTAIDEEN BILAKAERA	27
EZEZAGUNEKIN ELKARRIZKETA ELEBIDUNAK.....	27
ULERMENA ZULATUA DENEAN	37
FINKATUTAKO OHITURAK ALDATZEN	42
BOTERE POSIZIOA DAGOEN, EDO EZ.....	56
LEHEN EGUNEKO ASMOEKIKO ALDERAKETA	61
PARTAIDEEN BALORAZIOAK ETA AURRERA BEGIRAKO ASMOAK	62
ONDORIOAK	64
AURRERA BEGIRAKOAK	66
BIBLIOGRAFIA.....	68

NORK BERE GALTZETAN ERE, GALTZAK BETE LAN

Lan honen egileak Galtzaundi Euskara Taldean egiten du lan. Askotan tokatu izan zaio eragitea, eta eragin nahian dabilen jendearekin egotea ere bai; horixe du eguneroko ogi. Helburua, etorkizunean, Tolosaldeko kaleetan orain bezain beste euskara edo gehiago entzutea, eta horretarako ahalegintzen da eskualdeko 28 herrietan herritar talde aktibo bat aliatu izaten. Ahalegindu bai; lortu, ez 28 herrietan. Orain herri batean, gero bestean, beti daude hutsuneak; eta hutsuneek etena sortzen diote lanari, herrigintzari, transmisioari. Horrek, aldiro hutsetik hastea dakar.

Euskaraldiarekin Tolosaldeko herri-batzorde gehienak aktibatzen dira, baina bi urtean behingoa da aktibazio ekintza hori. Bitarte horretan zer egin ez dakitela geratzen dira euskararen erabilera % 80tik gorakoa duten herri txikietako euskaltzaleak. Bateren batek "herri horietan lanik egin beharrik ba al dago, ba?" galdetuko du. Hori galdetzen duenak Tolosaldeko datu soziolinguistikoen bilakaerari¹ erreparatu besterik ez dauka (Goikoetxea, 2020). Beraz, Tolosaldean ere eragin beharra dago! Baina, nola eragin?

Azken lauzpabost urteetako saiakuntza-errakuntzaren ondorioz, aktibazioari beste hanka bat gehitu beharra ikusi da Galtzaundin. Herritarrei euskaraz hitz egiteko esaten eta eskatzen diegu, nonahi eta noiznahi euskaraz egiteko; baina, zilegi al da hori eskatzea? Erreala al da? Ikusten da esan, hori esaten dugula; eta eskatu, hori eskatzen diegula. Aho-bizarrik gabe gainera. Baina, egiazki, asko kostatzen da hori praktikara eramatea.

Nahi eta ezin, beraz. Eta egoera horretan, nahi eta ezinean dabilzan gainerako kolektiboari erreparatuz, lan honen egileak eta bere ondoko ekintzaile nekazineak ikusi dute euskalgintzan ez dela ohikoa beste zenbait kolektibotan egin ohi den ariketa bat: beste batzuekin elkartzea, eta norberari gertatzen zaion hori besteekin partekatzea. Zertarako? Bada, ahalduntzeko. Euskahalduntzeko! Horixe egiten dute talde feministek; baita alkoholarekin, zein ludopatiarekin arazoak dituztenek ere. Eta euskalgintzan ere badaude horretarako ikastaroak, TELP Taller d'Espai Lingüistic Personal ikastaroak, alegia. Norbanakoa laguntzeko tresna ezin hobeak. Baina, egiari zor, epe laburrekoak izan ohi dira; katalizatzaile funtzioa bete dezakete, baina lan jarraitu bat egiteko, zoritxarrez, euskara taldeek ez daukate horretarako aurrekonturik. Eta, beraz, sortzen

¹ Galtzaundiren webgunean daude ikusgarri: <https://www.galtzaundi.eus/tolosaldeko-datu-soziolinguistikoak-herriz-herri/>

den galdera da: ahalduntze prozesu horretan adituak bidelagun izatea luxu bat da, baina ezinbestekoak al dira?

Orexako, Larraulgo, edo Bidania-Goiatzeko euskaltzaleak herrian bertan elkartuko balira eta dituzten ezinak, gabeziak, usteak eta egonezinak elkarbanatuko balituzte, horrek jada ez al lieke ordura arte izan ez duten indar gehigarri bat emango nahi dituzten hizkuntza-ohituren aldaketak gauzatzen hasteko? Hori berau ez al da euskalgintza egitea? Hori berau ez al da herrian eragitea?

Pertsonala politikoa baldin bada, norbanakoak euskahalduntzea bada tokiko euskaltzaleen mugimenduaren zereginetako bat; agian, zeregin nagusia beharko zukeena. Horregatik, eta Tolosaldeko euskaltzaleen mugimenduko prismatik begiratzuz, interesgarria da Galtzaundiren bueltako jendea elkartzea eta proba pilotu bat martxan jartzea; besteei eragiten ohituak dauden horiek beraien barruari begira jarritz.

Barrurantz eragin! Horren guztiaren berri jasoko duzu datozen orrialdeetan.

SARRERA

Euskara hizkuntza gutxiagotua da (Izagirre, 2010; Odriozola, 2011; Torrealdei, 1998, 2018), eta beste hainbat hizkuntza gutxiagoturen kasuan bezala, hainbat arrazoi medio, euskal hiztunek estres linguistikoa pairatzen dute²:

"Hizkuntza gutxiagotuetao hiztunek estres handiagoo dutela komunikazio egoeretan, hizkuntza normalizatu bateko hiztunen aldean" (Suay & Sanginés, 2010: 33).

Valentziera hitz egiten dutenen estres linguistikoo aztertu dute Gemma Sanginésék eta Ferran Suayk, eta TELP Taller d'Espai Lingüístico Personal tailerrak eskaintzen dituzte. Euskal Herrian, EMUNek ere aspaldi ekin zion Sanginésen eta Suayren ildo teorikoari helduta, norbanakoak ahalduentzeari, TELP tailerren bidez (Lasa, 2017). Ibilbide bat egiten ari da ildo psikolinguista hau, baina oraindik hastapenetan dago, eta, beraz, nahi adina lan dago egiteke. Modu orokorrean esanda, euskalgintzan lan gehiagoo egin da ildo soziolinguistikatik. Aztertu da komunitate bati nola eragiten dioten hainbat botere-harremanak, komunitate batek nola berreskuratu dezakeen bere hizkuntza, komunitatea nola trinkotzen duen hizkuntzak... komunitatearen ikuspegitik landu dira alor gehienak, eta errenagoo dabil norbanakoari lotutako azterketa. Biak dira beharrezkoak, noski; eta biak uztartzen asmatzean emango dira urratsak.

Azken hamarkadan bidegurutzearen kontzeptua hitzetik hortzera erabili dute adituek (Amonarriz, 2019), eta euskalgintzan pasa gara euskararen alde egotetik euskaraz egiteko urratsera; diskurtsoan eta proposamenetan behintzat. Horren adibide dira Euskaraldiaren aurretik izandako esperientziak (Trenor, 2017; Jauregi, 2017); Euskaraldia bera; baita Aldahitz Ikerketa ere, Soziolinguistika Klusterra 2010etik jorratzen ari den lan-ildo (Jauregi & Suberbiola, 2018).

Proposamenetan aldaketa egon bada ere, aldaketa horren eraginak antzemateak denbora gehiagoo behar du: bai eguneroko ohiturak aldatzeko, baita euskararen erabileran aurrerapausoak emateko ere. Denbora behar du gizarteak, eta denbora behar du norbanako bakoitzak ere; gizartean aldaketak egon daitezen, norbanako bakoitzarengan ere gertatu behar dira-eta aldaketak. Esaterako, Euskaraldiak erronka bota die haien bizitza euskaldunagoo nahi dutenen Ahobiziei: "euskaraz ulertzen duten guztiekin euskara erabiltzeko" erronka (Jauregi & Anduaga, 2019: 9); baina, kasu askotan, betetzea ez da esatea bezain erraza izan: "ekimenarekin engaiatuak egon diren parte hartzaileen artean ere hizkuntza betekizunei uneoro

² Ikus BADUBADAre bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=IGfydvpa3Vk>

eustea kostatzen da eta zenbaitetan ezin izan dira horiek bete" (Jauregi & Anduaga, 2019: 53).

Arrazoi horien artean, lotsak, beldurrak, inpotentziak eta ziurtasun faltak egon dira; baita "solaskidearen hizkuntza-maila norberarena bestekoa ez izateak hori erabiltzen jarraitzeko gogoak galgatu" izana; "eledunen arteko komunikazio harremanaren hizkuntza aurrezarrira" egotea (Jauregi & Anduaga, 2019: 53-54); eta "solaskideari euskaraz aritzeko gonbita edo eskaera (asertiboa) egiterakoan deseroso samar sentitu da parte hartzaile asko" (Jauregi & Anduaga, 2019: 59). herri-hizkeran: nahi eta ezin.

Eta horiek guztiak gertatzen dira, helburuen eta baliabideen arteko desoreka dagoenean; baliabideak falta direnean (Txoperena, 2020). Badakigu nora joan nahi dugun, bidea ere markatu antzean dago, baina bidea pausoz pauso osatu behar du norbanako bakoitzak. Eta bidean joan ahal izateko, urratsak emateko, baliabideak behar dira; bidean dauden oztopoak gainditzeko baliabideak, aurrera jarraitzeko baliabideak. Horregatik da garrantzitsua da norberak daukan gaitasuna ezagutzea eta zer nahi duen ondo jakitea lehenik; helburu mugatuak eta lorgarriak jartzea, jarraian; bakoitza norbere mailatik abiatzea, eta "zailtasunei aurre egiteko eta gainditzeko estrategiak eta baliabideak ematea" (Ruiz, 2009: 12). Lasak ere helburuak doitzeko azpimarratzen du: "Badira egoera errazak, zailak eta ia gaindiezinak. Horiek desberdinduz gero, euskara edo erdara erabili, eroso sentitzeko modua izango dugu" (Lasa, 2017).

Alegia, norbaiti helmuga bat proposatuz gero, laguntza eskaintzea ere beharrezkoa da.

AHALDUNTZEA

TELP tailerretan, entrenamendu horien bidez ahalduntzen joaten da euskaltzalea. Ahalduntzea norberak barruan daukan indar hori kanpora ateratzea da. Maiz beldurra izaten du gizabanakoak pentsatzen duen hori esateko, eta bere burua isilarazten du, txikiagotzen du, gutxiagotzen du (Blanchard et. al., 1997: 21-25).

Mota askotako menderakuntzak daude, eta menderakuntza horietako asko elkarrekin txirikordatzen dira. Angela Davisek arrazaren, generoaren eta klasearen arteko txirikordak azalera zituen (Davis, 1989). Ildo horretan, batzuk egiten den borroka bestearentzako eredu izan daiteke, eta ahalduntze kontzeptua euskalgintzak feminismoarengandik jaso du. Lorea Agirrek 19. Korrikaren mezuan erabili zuen "euskahaldun" kontzeptua (Agirre, 2015), eta harrezkero hitzetik hortzera erabiltzen da euskalgintzan ere. "Feminismoa, gero eta gehiago, euskaraz mintzo da" esan zuen Mari

Luz Estebanek (Esteban, 2016), ildo hori are gehiago jorratu dute Agirrek eta Eskisabelek (Agirre & Eskisabel, 2019), eta bi borroka horiek gainontzeko gutxiagotuen borrokekin uztartzeko uda ikastaroak ere antolatu ziren 2017an (Agirre, et. al. 2017). "Pertsonala politikoa da" aldarri feminista ezagunak, menderakuntza guztietarako balio du, hein batean.

AHALDUNTZE BERTSO ESKOLA EREDU

Bada, ahalduntze kolektiboaren prozesu horretan emakume-taldeak sortu dira Euskal Herriko hainbat herritan eta sektoretan. Ahalduntze-prozesua azaltzeko adibide konkretu bat azalduko da jarraian: Ahalduntze Bertso Eskolarena.

Ahalduntze Bertso Eskola 2016an sortu zen, urte batzuk lehenago egindako emakumeen topaketetan ikusi zutelako emakumeek zailtasunak zituztela oholtzan kantuan aritzeko garaian. Emakume bertsolariek konfiantza falta zeukaten, eta Ahalduntze Bertso Eskolaren helburua izan da emakume bertsolariek konfiantza lortzea. Horretarako, Ixiar Eizagirrek dio:

"Kontziente egin duguna izan da konfiantza hori lortzeko lehen gauza egin behar izan duguna zela epaia kendu. Epaia, hasteko eta behin, norberak bere buruarekin daukana, exijentzia agotadore horretatik ateratzea; eta, epaia, beste bertsolariekiko daukaguna" (Hitzetik Hartzera, 2020).

Amaia Iturriotzek gehitzen du Ahalduntze Bertso Eskola Elkargune bat dela:

"Elkargune bat da, elkargune behartu bat. Eta horrek nahi gabe gauza asko dakartza atzetik, baina batez ere, batez ere, lagundu dit kokatzen. Eman dit berkokatzeko aukera bertsolaritzan. Bertsolaritza beste modu batean ulertzeko aukera. (...) Eta hemen sortzen da kolektibo bat, helburu kolektiboak, eta bide bat egiteko modu bat" (Hitzetik Hartzeka, 2020).

Iturriotzen aipatzen duen modu hori ordura arteko modutik ezberdina da. Mainer Arregik ere berdin bizi izan du:

Orduan, adibidez, nire ustez umorearena oso esanguratsua da zeren plazetan askotan badaukagu emakumeok serioak izateko estereotipo hori (...). Eta hemen egiten ditugun saio gehienak umoretsuak izaten dira, barre pila bat egiten dugu, eta kristoren saioak izaten dira. Hor konturatzen zara umorea ez dela zerbait neutroa: badago edo ez dago; ez! Da kontestuaren araberako zerbait; da konpartitzen duzun taldearen araberako zerbait. Eta hemen sortu dugu talde bat, sortu ditugu kode batzuk eta horren barruan umorea egitea oso erraza da eta oso dibertigarria (Hitzetik Hartzera, 2020).

Beraz, taldea aldatzen baldin bada, eta norbanakoa testuinguru eroso batean kokatzen baldin bada, norbanako horrek bere barruan daukana ematen du. Feminismoak sarritan aipatu du gorpuztearen kontzeptua. Gauzak gorputzetik bizitzea, norbere gorputzetik gauzatzea. Gauzatzea, hasieran, Iturriotzek aipatu duen "elkargune

behartu horretan" gertatzen da, eta Arregik dio aurrerago ohiko guneetan ere gertatzen dela:

Kanpora irteten da batez ere Ez Da Kasualitatea bezalako saio feministetan. Emakumeok emakumeekin kantatzen dugu, eta orduan, Ahalduntzen esperimintatu ditugun gauza asko, agian hemen doinu batzuk lantzen ditugu eta gero goaz plazara eta doinu horiek erabiltzen ditugu, eta nik uste saio mota horietan ikusten dela hemen gertatzen dena ja publikoki, eta publiko baten aurrean. Baina gero nik uste dut beste saioetan ere, gizezkoekin gauden saioetan ere igartzen dala ba, adibidez, gutako bi tokatzen bagara ba ja konplizitate bat badaukazu baten batekin. Inklusio ez bagaude bi oholtzan, publikoan ikusten baduzu hemengo kidea ja badakizu nolabaiteko konplizitatea dagoela, eta niretzako hori oso inportantea izan da. Guretzako, bestela, askotan, oso lekuz kanpo egon izan gara saioetan, orduan inportantea da, bai Ahalduntzen, bai hemendik kanpo sare propioak sortzea elkar babesteko; bestela, oso zaila da bertsoetan gitea (Hitzetik Hortzera, 2020).

Norberak daukan barne-indar hori ateratzeko aliatuak behar izaten dira askotan, edo erreferenteak. Emakume bertsolarien ahalduntzean behin eta berriz aipatzen dira erreferenteak (Alberdi, 2019). Erreferenteek bidea markatzen du, zer eta nola egin daitekeen ideiak eskaintzen dituzte; eta batez ere, egin daitekeela ikusarazten.

Feminismoak bertsolaritza bertan, eta herriz herriko mugimenduetan, arreta handia jarri dio ahalduntzeari. Ahalduntze prozesu hori, ez da beti adituen laguntzarekin egin. Estitxu Eizagirrek dio:

"Orduan, ahalduntze bertso eskolarekin hasi ginenean planteatu genuena izan zen, «baina ze dinamika egingo dugu? Nola egingo dugu konfiantza hori lortzeko?» Horretako sortu genuen 2015/16 ikasturtean Ahalduntze Bertso Eskola eta joan gara etengabe esperimintatzen eta hanka sartzen askotan eta hortik ikasten" (Hitzetik Hortzera, 2020).

Saiakuntza-errakuntza, ez dago beste modurik. Baina Ahalduntze Bertso Eskolek egin duten ibilbide laburrean antzeman daiteke funtzionatzen duela, ahalduntzen direla. Emakume bertsolariak batu, gertatzen zaienaz hitz egin, eta bakoitzak barruak eskatzen dion eran kantatu... aparteko aditurik gabe. Hori euskalgintzara ekarriko balitz?

HIPOTESIA

Beraz, Ahalduntze Bertso Eskolan praktikara eramaten duten hori eta herriz herriko talde feministetan gorpuzten duten hori euskalgintzara ekarri, posible ote da aditurik gabe, euskaltzaleek beraien bizipenak kontatze hutsetik ahalduntzen hastea? Baldin eta euskaltzale talde bat, maiztasun jakin batekin eta epealdi batean elkartzen baldin bada, eta elkartze horietan beren ezintasunaren berri ematen baldin badute, prozesuaren gorabeherak partekatzen baldin badituzte, eta helburuak astez aste

doitzen joaten baldin badira, ahaldunduko ote dira? Horixe da galdera, eta galdera horren baieztapena da ikerketa honen hipotesia: euskaltzale talde bat maiztasun jakin batekin eta epealdi zehatz batean elkartzen baldin bada beren hizkuntza-gatazkez hitz egiteko, horrek berekin dakar euskaltzale horien ongizatea.

HELBURUA

Izan ere, ikerketa honen sustraiak euskaldunen ongizate ezean hartzen du lur. **Helburua da euskaltzaleen bizi-kalitatea hobetzea**, eta horretarako, estres linguistikoa gutxiagotu behar da. Horren jarraipena litzateke, baina ikerketa honetan landu ez dena: euskaltzale talde hori erreferente bilakatzea ingurunean, eta euskaltzale gehiagok hartzea ahalduntzeko bide hori.

Urrats esanguratsuak eman daitezke, baldin eta ikerketa honek bere helburuak betetzen baldin baditu, eta tokiko euskara elkarteek beren herrietan horrelako taldeak sortzeari ekiten badiote, Galtzaundik Tolosaldean egin nahi duen bezala. Lan honen egileak ikusten du herri txikietako arazoa dela euskaltzale talde bat sortzean ez jakitea zer egin behar duten; zerbait egin nahi dute, baina ez dakite zer. Zerbait hori ere norberaren ahalduntze ezetik dator, baina gutxitan -sekula ez esateagatik- saiatu dira euskaltzaleen taldeak modu autonomo batean beraien buruak ahalduntzen.

Euskaraldiak arrakasta daukan garaian, tokian tokiko euskaltzaleen mugimenduarentzat lan jarraitu bat proposatu nahi du ikerketa honek, baldin eta bere hipotesia baieztatzen baldin bada. Modu horretan, bi urtean behingo katalizatzaile horrek lan jarraitu bat izango du edizio batetik bestera. Batetik, atzean geratu den edizioan ezintasunak izan dituenak apuntatu daiteke bertan; eta bestetik, berriz, datorren ediziorako prestatu nahi duena.

MARKO TEORIKOA

ESTRES LINGUISTIKOA

Bada, hipotesiaren eta helburuen aurretik azaldutako eredu hori, Ahalduntze Bertso Eskolen eredu hori hartu da ikerketa honetan, eta euskalgintzan aplikatu da. Izan ere, sarreran aipatu eta hipotesian eta helburuan errepikatu den bezala, hizkuntza gutxituetako hiztunek estres linguistikoa pairatzen dute:

"Hizkuntza bat normalizatua bada, haren erabilpena ez da kuestionatzen; hizkuntza normalizatuan mintzo bada, hizketan ari denak badaki ulertua izango dela eta ulertua izateko eskubidea duela. Hizkuntza ez-normalizatu bat erabiltzen duenak, aldiz, ez daki ziur besteak ulertuko dion, arriskua hartu behar du (...). Bi hizkuntza dakizkienak dauka arazoa. Bitxia bada ere, bertako hizkuntza ez jakiteak kezkarik ez du sortzen, arrazoa ematen dizu. Hiztunak bere hizkuntza erabili ala ez etengabe erabaki behar duenean, nekea sortze da. Neke horri esaten diogu estres linguistikoa (Badubada, 2012).

Sanginések eta eta Suayk diote estresa, batez ere, hiru ezaugarri sortzen dutela: ziurgabetasunak, kontrol erlatiborik ezak eta mehatxuak (Suay & Sanginés, 2010: 25), eta Badubadako bideoan agertzen den azalpen horrek hiruretatik dauka. Beraz, estres egoera horretan dago euskaltzalea, eta egiten duen hautua egiten duela zigortua izan daiteke. Zigor bikoitza deitzen zaio horri (de Madariaga, 2019: 104-106).

Zigor bikoitz hori pairatzen duenak ez du jakiten zein hizkuntza aukeratu behar duen une bakoitzean, eta nahastuta ibili ohi da:

Alde batetik, jende askok euskarari erabateko maitasuna diola esaten du, eta egia esanda, asko dira hurrengo belaunaldiari transmititu dioten familiak hori oso ondo ikusia ez zegoenean ere. Asko dira hizkuntzaren eta erabileraren aldeko herri elkarteek antolatutako jai eta ekimenetan parte hartu dutenak. Hala eta guztiz ere, gehienok oso erraz jotzen dugu gaztelaniara horretara behartuko gaituen indar behartzaile handirik egon gabe ere. (...) Jende gutxik eusten dio hizkuntzari egoera horietan guztietan. Gainera, egiten dutenen artean ere askok etengabeko borroka gisa bizi dute, eguneroko liskar gisa. Horrek nekatu eta haserrarazi egiten ditu eta, sarritan, aldarte ona galarazten die eta nahieza eragiten die (Suay & Sanginés, 2010: 18-19 or.).

Euskaldunak ezin du gorpuztu, beraz, bere euskalduntasuna. Kasu horretan, euskaldun askok Hizkuntza Nagusirako Konbergentzia Araua aplikatzen dute:

"Euren hizkuntza albo batera laga hizkuntza nagusiko hiztunekin harremanak dituztenean. Hori egiten dute halaxe egiten ikasi dutelako, egunero ikasten jarraitzen dutelako eta euren portaerarako eredu direnek edo izan daitezkeenek ere (agintariek, kirolariek, artistek eta pertsona publikoek oro har) beste horrenbeste egiten dutela ikusten dutelako.

(...) Badakigu agintariak lurralde bakoitzean aurrera daramaten hizkuntz politika dena delakoa izanda ere, azken iragazki bat dagoela hizkuntza baten benetako erabilera maila erabakitzen duena. Eta iragazki hori hiztuna da. Iragazki hori pertsonak dira, eta, legeria eta araudi baten barruan egon arren, beti ez dute goitik behera legeak jasotzen dutena egiten, hainbat bulkada, ohitura, desio eta arrazoi direla medio mugitzen baitira. Sarri, guztiz subjektiboak eta, horrenbestez, eztaba daezinak diren arrazoiengatik mugitzen gara"

(...) Jendeak ez du indarrean dagoen legedia kontsultatzen behin eta berriz errepikatzearen poderioz hain ohikoa den zerbait egiteko, adibidez, kalean doan norbaiti galdetzeko, telefonoz informazioa eskatzeko edo herriko udalari gutun bat idazteko. Besterik gabe, egiten ikasi duten moduan egiten dute; egin behar dela uste duten bezalaxe" (Suay & Sanginés, 2010: 20-21 or.).

Beraz, norbanakoak ikasi egiten du nola jokatu behar duen, nola agertu behar den munduaren aurrean; mekanismo batzuk garatzen ditu aurrez izan dituen egoera deserosoak berriro bizi beharrik ez izateko. Suayk eta Sanginésekin zazpi kasu azaldu dituzte, eta kasu bakoitzaren zergatia eta hortik ateratzeko eman beharreko urratsak zehaztu. Ikerketa honen helburua ez da ahalduntzea zergatik gertatu den azaltzea, baizik eta ahalduntzerik izan den edo ez frogatzea, eta beraz, marko teorikoan ez dira eredu horiek sakondu; gaiaz gehiago jakin nahi duenak badaki nora jo (Suay & Sanginés, 2010).

Halere, ahalduntze-bide horretan parametro batzuk jarri dira; izan ere, nor bere ezintasunak detektatzea eta nor bere nahiak zein diren jakitea da gorpil zoro horretatik ateratzeko lehen urratsa.

"Izan ere, baldin badakigu eta ulertzen badugu zer egiten dugun eta zergatik egiten dugun, gure portaera zer arrazoik azaltzen duten eta zein mekanismok jartzen duten abian, orduan hurbilxeago izango dugu aldatzeko aukera erreal, orain egiten dugunaren orde z gogobetetze pertsonal gehixeago eman ahal izango digun beste portaera bat hartzeko" (Suay & Sanginés, 2010: 21).

ASERTIBITATEA

Lehen urratsa norberari gertatzen zaionaz kontziente egitea baldin bada, bigarrena jarrera asertiboa norbere egitea da: "jokabide asertiboan jarriko dugu arreta, nor bere burua errespetatzen eta bestearena kontuan hartzen ikas dezakegu" (Lasa, 2017). Jarrera asertiboa lantzen dute, beraz, TELP tailerretan.

Asertibitatea psikologia sozialeko kontzeptua da, eta jokabide-terapiaren baitan sortu zen, ikuspuntu prebentiboarekin. Hasiara batean ondorio ezkorrek saihesteko estrategia baldin bazen ere, denborarekin giza harremanetan komunikazio modu eraginkor bezala definitzen da (Bach & Forés, 2008: 249-254). Theuwissenek eta Lamarchek jarrera asertiboa izatea, norbere burua baieztatzearekin lotzen dute (Theuwissen & Lamarch, 2011).

Asertibitateak proposatzen du nork bere burua kontrolatzea, egoera kontrolatu beharrean; norbera den bezala agertzeaz gain, den bezalakoa izatea, norbera existitzea:

"No hay un modo de existir «estándar», común a todos los seres humanos. Cada persona tiene un modo muy personalizado de afirmarte. Por consiguiente, cada uno tiene que descubrir el tipo de asertividad más acorde y en armonía con sus propios dones, con las tendencias de su carácter y su personalidad, por una parte, y otra, el más adaptado a su situación o relaciones" (Theuwissen & Lamarch, 2011: 23).

Asertibitatea lantzeko garaian norbanakoak beregan jartzen du arreta eta ez inguruan. Lan-munduan langileak ahalduntzeaz teorizatu dutenek ere, enpresako kide guztiek jarrera asertiboa izatea azpimarratu dute: langileari konfiantza eman behar zaio, ez zaio informaziorik ezkutatu behar, eta bakoitzari bere ardurak eman behar zaizkio, lana nork bere modurik onenean egin dezan; modu horretan langileak egoera hobeto kudeatuko du (Blanchard, Carlos & Randolph, 1997). Beraz, lan egiteko modu horizontala proposatzen dute, nork bere ondorioak ateraz, eta nor bere lanaren arduradun eginez.

Langileak bere lanean nola, hala jarri behar du norbanakoak arreta bere egoeraren azterketan; nahiz eta ingurua kontrolatzeko eta gauzek nola izan beharko luketen pentsatzeko joera izaten duen. Norbanakoak bere jarrera asertiboagoa izan dadin, hiru alderditan baliabideak eskuratu ditzake: baliabide motorrak, kognitiboak eta emozionalak landuz (Ruiz, 2009: 15-18):

- Kanpora transmititzen dena: esaten duguna, egoteko modua, hitz egiteko modua, dardara, izerdia... (maila motorra)
- Pentsatzen dena: dauden barne pentsamenduak, nork bere buruari esaten diona... (maila kognitiboa)
- Sentitzen dena, norbere emozioak: urduritasuna, poza, haserrea, alaitasuna, asebeteta sentitzea... (maila fisiologikoa).

Hirurek eragiten dute pertsonaren portaeran eta, modu batean edo bestean, norbanakoak maila bakoitzarengan kontrol handiagoa edo txikiagoa izan ohi du izandako entrenamendu eta esperientzien arabera; eta, aldi berean, kontuan izan behar da pertsonaren izaera ez dela orekatua eta momentuaren arabera gehiago edo gutxiago kontrolatuko duela maila bakoitza.

Jokaera asertiboa definitzeko garaian, zer ez den azaltzea errazagoa izan ohi da; muturreko bi jokaeren tarteko bat, alegia. Muturreko bi jarrera horiek 1) jarrera erasokorra, eta 2) menpekora dira (Ruiz, 2009: 19-24):

MENPEKOA		ERASOKORRA
<ul style="list-style-type: none"> Ahots bolumen baxua, hitz-jario eskasa, totelaldiak, zalantzak... Begiradari ihes, aurpegi tenkatua, dardara, azkazalak jateko ohitura, zurruntasuna... Zalantzak zer esan erabakitzeko orduan. Hirugarren pertsonenganako kexa ugari: "ez naute ulertzen", "hura berekoa da..." 	KANPO PORTAERA	<ul style="list-style-type: none"> Ahots bolumen altua, azkar hitz egiteko joera, etenaldiak, irainak... Desafiozko begirada, aurpegi tenkatua, esku tenkatuak, bestearen espazioa inbaditzea... Kontraerasora jokatzeko joera.
<ul style="list-style-type: none"> Besteak ez mintzea da helburua, "sakrifikatu" egin behar du. Norberak sentitzen eta pentsatzen duenak ez du axola. Jende guztiaren maitasuna behar duela uste izatea. Ez-ulertua, manipulatu, aintzat ez hartua... sentitzea etengabe. 	PENTSAMENDU EREDUA	<ul style="list-style-type: none"> Garrantzia norberak bakarrik duela pentsatzea. Horrela jokatu ezean zurgarria dela uste izatea. Irabazi-galdu terminoetan pentsatzea. Zigorra merezi duen jendea dagoela uste izatea; norberak nahi bezala gauzak ez irtetea tragikotzat hartzea...
<ul style="list-style-type: none"> Ezintasuna, E Energia mental handia eta kanpo-energia txikia Erruduntasuna Auto-estima baxua Maltzurkeria emozionala Antsietatea Frustrazioa... 	SENTIMENDUAK / EMOZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> Antsietate hazkorra Bakardadea Auto-estima baxua Kontrol ezaren sentazioa Haserrea areagotzea Emozioen zintzutasuna: dena pentsatu bezala esaten du eta "inor ez du engainatzen"

Bada, portaera asertiboa erdiko portaera da: kanpotik begiratuta pertsona segurua da, baina ez da oldarkorra; bere pentsamenduak arrazionalak dira, eta beretzat zein besteentzat onena nahi du; eta bere sentimenduak eta emozioak kontrolatuak dira, eta auto-estima ona dauka, baina ez da beste inoren gainetik sentitzen.

Pertsona bat ez da menpekoa, asertiboa edo erasokorra; momentuko jarrerak izaten dira. Norbait oso ahaldundua egon daiteke mota bateko harremanetan eta oso asertiboa izan, eta beste harreman mota batzuetan, berriz, guztiz menpekoa. Egia da pertsona bakoitzak joerak dituela, eta esperientzien bidez ikasten doan heinean joera

handiagoa izango duela modu batean edo besteak jokatzeko; baina ezin da esan pertsona bat guztiz menpekoa denik, ez eta guztiz asertiboa denik ere. Askotan gertatu ohi da menpeko jarreran dagoena bere identitatea ezkututzen aritzea, eta ezkututzen ari baldin bada une batean eztanda egitea eta jarrera erasokorra azaltzea. Asertibitatea garatu eta landu ez duen pertsonak bi muturretan ibiltzeko joera izan dezake.

MUDA LINGUISTIKOA

Eta zer lortu nahi da asertibitatearekin? Bada estres linguistikoa pairatzen duenak momentu bakoitzean nahi duen hizkuntzan hitz egitea, eta lasai geratzea; ez gaizki sentitzea egin duen hizkuntza-hautuarengatik. Eta, beraz, horren bidez, norbanako horren bizi-kalitatea hobetzea.

Euskaldun askok gazteleraz hitz egiten duten jende askorekin euskaraz hitz egin nahiko luke. Posible al da hizkuntza ohiturak aldatzea? Azken urteetan lan handia egin dute ildo horretan Pablo Suberbiolak eta Pello Jauregik, Aldahitz metodologiarekin: bi pertsonen arteko hizkuntza-harremana sistema bat da, eta sistema orok oreka lortzeko joera dauka, berez. Hizkuntza-harreman batean orekak esan nahi du hiztun guztiek antzeko hizketa-moldea erabiltzea. Beraz, bi pertsona gazteleraz hitz egiten ari baldin badira, baina batek euskaraz egin nahi badu, oreka hori desorekatzen ahalegintzen da; sistema desorekatzen du elkarrizketa elebiduna proposatuz. Aldaketa hori ezustekoa da, eta egoera asimetrikoan daude momentu horretan; pertsona bat euskaraz eta bestea gazteleraz. Bada, Suberbiolak eta Jauregik diote denbora kontua dela asimetria hori apurtu eta simetriara itzultzea, horrek ez du esan nahi gaztelerara itzuliko direnik. Bietako batek amore emango du sistemak berez orekarako joera daukalako. Euskaldunak euskaraz gain, gaztelera ere badaki Hegoaldean. Horregatik, bi hizkuntzak dakizkielako, eta parekoak gazteleraz egiten diolako, errazagoa zaio gazteleraz egitea, asimetria linguistikoa proposatzea baino; baina asimetria linguistikoa proposatuz gero, eta solaskideak gutxieneko euskara maila baldin badu, denbora kontua da euskarara pasatzea bera ere. Kontua da, askotan, euskaldunak ez duela aski denboran desoreka mantentzen, eta euskaldunak lehenago ematen duela amore (Jauregi & Suberbiola, 2015: 10-28 or.).

Horrez gain, Jauregik eta Suberbiolak ikertu dute bikote-harremanetan zein diren egoerarik aproposenak hizkuntza-aldaketa gertatzeko. Ikerketek argi erakutsi dute:

"bikotekideen artean ez dela gertatu lehenik euskaraz gaitasun «on» bat eskuratzea eta gero bikotean hitz egiten hastea. Beraien arteko erabilera ez da etorri, nolabait, gaitasun on bat eskuratzearen ondoren, erabileratik bertatik baizik» (Jauregi eta Suberbiola, 2009: 185 or.).

Ilido beretik aipatzen du Zalbidek ere:

"«Lehendabizi ikasi, gero egin» paradigmatic «eginez ikasi» formulaziora pasatu behar gara eta eskolaz kanpoko erabilera ardatz izango duen lehentasun eskema berria eratu behar dugu" (Zalbide, 2016: 123).

Beraz, euskara maila baxua duten horien euskara maila hobetzeko, duten maila izanda ere, euskaraz hitz egitea da egokiena.

Honako puntuak ere gakoak dira lantokian hizkuntza-ohiturak aldatu dituzten artean, nahiz eta euskara-ezagutza handia ez izan (Aldahitz, 2011): 1) gertuko kide euskalduna izateak asko laguntzen dio euskara-ezagutza txikia izan arren, lantokian giro euskalduna inguruan nahi duenak, "funtsezko hizkuntza-esperientzia hauek guztiak aurrez aurreko harreman baten eremu txikian gertatu" direlako (Aldahitz ikerketa, 2011: 6); 2) hizkuntza ikasteko presioa kanpotik etortzen da orokorrean, ez euskalduna ez den hiztunak berez nahita; 3) bidelagun euskaradun, euskaltzale eta euskalgile baten laguntza ere aipatzen da; 4) hizkuntza arau nagusia une batetik bestera aldatzea komeni da, eta ez pixkanaka; 5) hizkuntza ohituren aldaketa ez da soilik hizkuntza ohituren aldaketa, eta horrek bestelako harremanetan ere eragiten duenez, aldarreak eta zirrarak ere dantzan ibil daitezke eta hori kontuan izatea ezinbestekoa da; 6) denbora behar da deserosotasuna erosotasun bihurtzeko; 7) gertuko harremana eta maiztasuna handia behar da; 8) konfiantzazko giroa hierarkia harremanen gainetik izatea komeni da; 9) lantokia euskaltoki nagusia, bertan eguneroko jarduna eginez ikasiko dute egunerokotasunean behar duten hizkuntza eta horrela "erabilera errealean subjektuek ez dute fokua hizkuntzan bertan jartzen baizik eta egin beharreko eginkizunetan" (Aldahitz, 2011: 9); eta 10) hizkuntza gaitasun mugatua ez da euskara erabiltzeko oztopoa.

Hamar puntu horiek prozesu baten parte dira, euskara ikasten ari den batek inguruan behar duen hori adierazten dute. Ikerketa honetan, berez, euskara-gaitasuna ez da aztergaia, baina muda linguistikoa gertatzeko garaian, prozesu horren hainbat fase errepikatzen dira. Izan ere, solaskideak euskara beharrean gaztelera aukeratzen baldin badu, hori izan ohi da mota horretako elkarriketetan gaztelera hobeto moldatzen delako, erosoago dagoelako, euskaraz eginez baino. Beraz, bada hizkuntza-ikasketa prozesuaren antzeko zerbait. Eta ikerketan uneren batean baino gehiagotan gogoratu dira puntu horiek.

METODOLOGIA

Ikerketa hau kualitatiboa da, eta eduki-analisia izan du oinarrian. Hasierako plangintza aldatu egin behar izan da COVID-19ak eragindako egoera dela-eta. Hasierako asmoa honakoa zen:

- Ikertuko den pertsona kopurua: hamar edo hamabi euskal hiztun kontzientziatu.
- Epealdia: zortzi aste, martxoaren 29tik maiatzaren 24ra. Bitarte horretan astero elkartuko dira partaideak astea nola joan zaien partekatzeko.
- Eskatuko zaiena: Ahobizi izatea, hau da, solaskideak euskara ez duela ulertzen modu esplizituan adierazi arte, euskaraz aritzea. Hautu linguistiko hori egin beharrik ez izatea, eta automatikoki euskaraz hastea leku guztietan. Horrez gain, zortzi astetatik seitan taldean parte hartzea, ikusteko taldetasunak eraginik ba ote duen. Azaldu ezin diren egunetan audio bidez bada ere, testigantza bidal dezan eskatuko zaie.
- Erregistratuko dena:
 - Lehen erregistro pertsonalizatu bat, kide bakoitzari daukan estres linguistikoaren berri emateko eskatuz. Horretarako, ikerlariak bideo baten bidez ikerketari buruzko azalpenak emango dizkie, eta lehen audio bat grabatzeko eskatuko dio bakoitzari.
 - Astez asteko bilkuren grabazioa: astero elkartuko dira partaideak, eta asteroko bilkura horietan esaten dena erregistratuta geratuko da, hori izango baita ikerketaren mamia. Beraz, guztira, bederatzi bilkura izango dira.

Aipatu den bezala, egoera berria dela-eta ikerketaren asmoetan aldaketak egin behar izan dira. Batetik, guztia atzeratu behar izan da. Mugikortasun murriztua izan da martxoan zehar, eta ikerketa egiteko proposamena zabaldu denean, jende askoren erantzuna izan da momentuko harreman-sareetan ez daukala gazteleraz egiten duen ia inor, eta ez dela ikerketan bilatzen den perfila. Beraz, pandemia-egoera baretu zedin, batetik; eta bestetik, berriz, partaideak bilatzea zaila izan delako, atzeratu egin behar izan da epealdia. Horrek berekin ekarri du hasierako zortzi asteak ere murriztea. Eta, azkenik, hamar-hamabi kide aurkitzea ezinezkoa izan da. Horrenbestez, honakoa izan da ikerketa:

- Ikertu den pertsona kopurua: sei pertsona euskaldun kontzientziatu.
- Epealdia: bost aste, maiatzaren 17tik ekainaren 21era; bilkurak astelehenetan izan dira.

- Eskatu zaiena: Ahobizi izatea, hau da, solaskideak euskara ez duela ulertzen modu esplizituan adierazi arte, euskaraz aritzea. Hautu linguistiko hori egin beharrik ez izatea, eta automatikoki euskaraz hastea leku guztietan. Horrez gain, sei bileretatik bostetan taldean parte hartzea, ikusteko taldetasunak eraginik ba ote duen. Azaldu ezin diren egunetan audio bidez bada ere, testigantza bidal dezan eskatu zaie.
- Erregistratu dena:
 - Lehen erregistro pertsonalizatu bat, kide bakoitzari daukan estres linguistikoaren berri emateko eskatuz. Horretarako, ikerlariak bideo baten bidez ikerketari buruzko azalpenak eman dizkie. eta lehen audio bat grabatzeko eskatu dio bakoitzari.
 - Astez asteko bilkuren grabazioa: astero elkartuko dira partaideak, eta asteroko bilkura horietan esaten dena erregistratuta geratuko da, hori izango baita ikerketaren mamia. Guztira, sei bilkura izan dira.

PRESTAKETA

PARTAIDEAK

Sei euskaltzalerekin egin da beraz ikerketa. Seiak edo Tolosaldekoak dira, edo Tolosaldean bizi dira; gaur egun bakarra da Tolosaldean bizi ez dena, eta hark ere harreman handia mantentzen du oraindik Tolosaldearekin. Denak ala denak bizi dira 3. edo 4. gune soziolinguistikoan. Gazteenak 25 urte ditu eta zaharrenak 45, eta guztiek euskara maila ona daukate. Generoari dagokionez, hiru emakumezko eta hiru gizonezko dira.


Anonimotasuna bermatzeko ikerketa honetan agertzen diren izenak ez dira kideen benetako izenak, eta transkripzioetan herrien izenak edo lantegienak ere moldatu egin dira, beharrezkoa ikusi den kasuetan. Horregatik, izenak Seaskaren egutegikoak hartu dira. Hain zuzen partaideak, maiatzaren 17tik ekainaren 21era bitarteko astelehenetan elkartu direnez, sei astelehenetako egunetan azaldutako izenak erabili dira: Dunix, Asier, Iker, Eguzki, Orzuri eta Udane.

Sei partaideetatik lauk lehendik badute nahikoa harreman handia Galtzaundi Euskara Taldearekin: Galtzaundik antolatutako ekimenetan parte hartu izan dute, eta euskalgintzan pertsona aktiboak dira. Lau horietatik hiruk euskalgintzan egiten dute lan; eta bestearen lan-eremuak ere euskara aintzat hartzen du. Gainerako biek ere ahaleginak egin izan dituzte beren hizkuntza-ohiturak aldatzeko; biek hartu dute parte Euskaraldiako edizioren batean, eta modu aktiboan saiatu izan dira beren bizitzako uneren batean hizkuntza-ohiturak aldatzen. Beraz, euskaldun kontzientziatuak dira sei partaideak.

AZALPEN BIDEOA

Ariketarekin hasi aurretik partaideei bideo bat bidali zaie. Bertan, proiektuaren nondik norakoak azaldu zaizkie: epeak, zein konpromiso hartzen duten, eta zer eskatuko zaien. Horrekin batera ikerketaren helburuak zein diren azaldu zaie, estres linguistikoa zer den azaldu zaie bideo horretan, eta lehen galdera bat ere egin zaie: semaforoaren metafora erabiliz, semaforoa zein koloretan dagoenean pasatzen ote diren gaztelerara.

Semaforoaren azalpena:



1. irudia: Hizkuntza asertibitatera bidean, maila-progresibotasuna (Hernanin, 2020ko urrian Gemma Sanginésesek emandako hitzaldiko PPTtik aterata).

Hizkuntza normalizatu bateko hitzunek semaforoa gorri izan arte ez diote haien hizkuntza hitz egiteari uzten; hori ez da, ordea, hizkuntza gutxiagotuetako hiztunen errealitatea.

Semaforoaren metafora erabiliz, askotan semaforoa berde dagoela igaro ohi da euskal hitzuna erdaretara. Izan daiteke, **lehenik eta behin**, begi kolpez, parekoak euskara ez duela ulertuko iruditzen zaiolako, izan zonalde erdaldun batera joan delako, itxuragatik, janzkeragatik... ia euskaldun guztiak hasi izan dira noiz edo noiz beste hizkuntzaren batean, hau da, euskalduna bera da gaztelerara pasatzen dena zenbait kasutan, elkarrizketako lehen hitzetik.

Semaforoak berde jarraitzen duen arren, bigarren maila batean kokatzen da ez ulertzeko seinalea egin izana; euskaldunak lehen hitzak esan orduko, parekoak ez diola ulertu adieraztea. Noski, bi gauza oso ezberdin dira esaldi zehatz hori ez ulertzea, eta hizkuntza ez ulertzea, baina euskaldun askok ez ulertzeko seinalea ikusi orduko aldatzen du hizkuntza. Izan daiteke ez zuelako espero bestea hizketan hastea, zarata dagoelako... baina euskaldun askok jada gazteleraz hitz egiteko hautua egiten dute.

Hirugarren mailako zailtasuna da, baina oraindik semaforoa berde dago bertakoa ez dela nabari bada. Euskal Herrian jaioa ez izateak ez du esan nahi derrigorrean euskara ezin duenik ulertu, gaztelera bai edo bai jakingo duenik... baina euskaldun asko gazteleraz hasten dira.

Aurreko egoera guztietan parekoak ez du adierazi: ez, euskaraz ulertzen ez duenik; ez eta euskaraz hitz egiteko gaitasunik ez duenik ere. Halere, hizkuntza

gutxiagotuko hitzun asko igarotzen dira hizkuntza nagusiago batera, antzeko egoeretan.

Semaforoa laranja kolorez dagoela esan ohi da parekoak esplizitatzen baldin badu ez duela euskaraz hitz egiten. Horrek esan nahi du, euskaldunak euskaraz hitz egiten baldin badio elkarrizketa elebidun bat izango dutela: batek euskaraz egingo duela, alegia; eta besteak, berriz, gazteleraz. Hor ere euskaraz egin dezake euskaldunak, baina solaskideak hitz egiteko gaitasunik ez duenez gero, semaforoa laranja kolorez dagoela esan ohi da; pertsonak simetriarako duen joera kontuan izanda (Jauregi & Suberbiola, 2015: 10-29), ez baita hain erraza elkarrizketa elebidunak izatea.

Semaforoa gorri jartzen da behin solaskideak euskara ez duela ulertzen adierazten duenean.

ABIAPUNTUA

Bada, ikerketan parte hartu duen kide bakoitzari bi gauza eskatu zaizkio. Lehenik eta behin, azaltzea semaforoaren bidez zein diren haren gabeziak; ondoren, baita estres linguistikoaren berri emateko ere. Beraz, datozen lerrootan partaide bakoitzaren abiapuntua erregistratu da:

DUNIXE: Nik azken aldi honetan, nire buruari agindu bat jarria diot (...): bai edo bai, aurrekoa bata edo bestea izan, euskaraz egingo diodala. Hori da nik nire buruari jarri diodan araua. Eta... beti betetzen saiatzen naiz, normalean ez dut arazorik izan, orain arte. (...) Egun guztiak ez dira berdinak, eta... noiz edo noiz, (...) dendaren batera joan banaiz eta nekatur baldin banago edo... (...) ba agian, batzuetan oso oso oso oso oso noizean behin, erdaraz egin izan diot (...).

Gero ja, ezezagunekin baino, arazo handiagoa daukadala uste dut nik ezagunekin edo lagunek edo harreman gertuagoa dudan jendearekin (...). Pertsona batekin edo besterekin pasatzen zait, ni euskaraz hasi, nik jakin besteak ulertzen duela, normalean izaten dira ba euskaraz hitz egiten moldatzen ez den jendea. Eta bueno ba... ni saiatzen naiz euskarari eusten baina, deserosoa egiten zait eta ez da... badakit ez dela bestea... besteak ez duelako ulertzen edo... deseroso dagoelako edo... gehiago da ni sentitzen naizela deseroso. (...)

Laburbilduz: estres linguistikoa ezezagunekin ez dudala bizi. Baldin eta ez banago oso nekatur edo hitz egin beharrekoa ez bada oso luzea. Azken aldian ez dut bizi.

Nire ezinegona sortu izan da, jende ezagunagoarekin.

ORZURI: Ni aspalditik nago kontzientziatuta. Aurreiritzi asko ditugula jabetu naiz, eta orduan, hasiera batean begi-kolpez nahiz eta aurreiritzi asko eduki, eta nahiz eta pentsatu "joder, pertsona honek ez du jakingo euskaraz" saiatzen naiz beti euskaraz egiten. Beno, saiatzen naiz ez, beti euskaraz hitz egiten dut bai lehenengo hitza, baita lehenengo esaldiak ere (...).

Egia da ez badut ezagutzen pertsona hori, begi kolpez lehenengo aurreiritzi horiek izaten ditudanean pixka bat sentitzen naizela (...) "joder, honek orain erdaraz egingo dit, ze perez... orain erdaraz egitea..." (...) baina, euskaraz egiten diot eta gero bada hori, euskaraz egiten badit super ondo, kristoren poztasuna eta erdaraz egiten ba nekea, ez? Sentsazio hori da pixka bat.

Ez du ulertzeko seinaleak egiten. Bada, hemen adibidez, orain arte ez nintzen

kontziente edo ez nintzen sekula pentsatzen jarri, ba, nik pentsatzen nuelako beti, aurpegi arraroak jartzen bazituen, ez zuela ulertzen edo horrela ja... (...).

Ez dela hemengoa pentsatzen badut, ikusten badut ba zeozer euskaraz badakiela, ba kalean euskaraz entzun diodalako edo, ba saiatzen naiz euskaraz egiten; baina ez badut ezagutzen eta pentsatzen baldin badut ba zuk esandakoagatik edo azentuagatik edo arroparengatik edo, (...) azalaren koloreagatik edo (...) zuzenean erdarara jotzen dut (...) baita ea berak ba bueno, euskaraz erantzuten didan edo ez, edo horrela ez? pixka bat hori (...).

Eta laugarrena. Ez du hitz egiten. Hemen, bai nagoela oso... (...) buruan-edo horrela esango nuke oso... presente baina, asko kostatzen zaidala esango nuke ez badu euskaraz hitz egiten. Nahiz eta nik ezagutu pertsona hori eta jakin euskaraz... ba ulertzen duela baina ez duela hitz egiten. Ba haste naiz euskaraz, (...) baina, egia da momentu batean nekatu egiten naizela, nazkatu egiten naizela eta gaztelara jotzen dudala; baita ere, esplikazio luzeagoa edo sakonago eman behar badut edo zerbait garrantzitsuagoa edo esan behar badut, edo iruditzen bazait... Zuzenean, edo nahiz eta jakin beste pertsonak euskara ulertzen duela, gaztelaniara jotzen dut. Nahi gabe da, ez dut pentsatzen... orain zuri azaltzen pentsatzen dut ba izango dela berriz ez errepikatzeagatik. Nire baitan pentsatuko banu bezala "ez du ulertuko eta dena berriz errepikatu beharko dio!" baina momentuan ez dakit, nahi gabe momentuan ateratzen zait ja e... zerbait garrantzitsuagoa edo azalpen luzeagoa eman behar baldin badut ba... gaztelaniaz egitea. Eta... ez baldin badut ezagutzen eta... ez baldin badu euskaraz hitz egiten, lehen aipatu bezala euskaraz hasi, euskaraz jarraitu eta berak esan arte ez didala ulertzen edo hau da, egoera gorrira iritsi arte euskaraz jarraitzen dut. Baina bueno lehen aipatuta bezala, iruditzen zait pertsona hori ezagutzen ez badut eta azalpen sakonagoa-edo eman behar badiot ere igual erdarara jotzen dudala.

ASIER: Ba gauza da nik bai egiten dudala itxurarengatik eta hor egiten dut azterketa azkar bat, eta horren arabera hasten naiz euskaraz edo erdaraz eta askotan joera daukat ba... gaizki egiten dudala irakurketa. Jotzen dut erraztasunez erdarara ba erraztasunez edo hanka ez sartzeagatik edo ez dakit zergatik. Baina, hemen, suposatzen da inguru euskalduna dela, eta bueno ba txakur bat daukagu eta hemen txakurraren kontura jende ezberdina ezagutzen dut, eta askotan ba konturatzen naiz ba, ba lehenengo harremana edo, normalean ba nire kabuz hartzen dut eta kosta egiten zait euskaraz hastea. Gazteak baldin badira ba bai euskaraz egiten dietelako, ba bai iruditze zaidalako badakitela eta hor eroso sentitze naiz, ba jende gazte ba normalarekin-edo.

Gero, beste kontura, pertsonak ulertu bai baina hitz egiten ez duenak hori iruditu zait betidanik niretzako harrigarria. Zeren nire osabak adibidez horrela egiten zuen, nire familian denak ulertzen dute euskaraz baina batzuei kosta egiten zaie gehiago eta horrela, baina ulertu oso ondo ulertzen dute denek, baina joera badago ba erdaraz hitz egiteko. Eta osaba bat badago, hark beti egiten zuen dena euskaraz eta normaltasun osoz eta ni harrituta gelditzen nintzen, nola mahai-inguruan ba elkarrizketa oso era naturalean izaten zen bera euskaraz eta berari erantzuten zioten erdaraz, eta han inori ez zitzaion ezer arrarorik iruditzen. (...) Eta zer iruditzen zaidan niri, zergatik gertatzen zaidan hori? Ez dakit. Agian, izan daiteke-edo niri transmititu didate-edo hori errespetu falta bat dela, eta hori uste dut oso barneratua daukadala; errespetu faltarena. Eta orduan parean daukat pertsona bat berak euskara ulertzen duela baina ez daki eta kostatzen zait izugarri, ez naiz batere eroso sentitzen, iruditzen zaidalakoi... Eta gero nire barnean badakit ez nagoela errespetu faltaz berarekin baina, hori daukat oso barneratua eta asko harritzen nau hori nola lortzen duen jendeak. (...) Eta azkenean esaten dut zergatik ni hainbeste bildurtu behar naiz, parean dagoenak naturaltasunez erdaraz hitz egiten dio, ulertzen dio euskaraz eta elkarrizketa normal bat eramaten dute, edo harreman normal bat daukate beraien artean eta orduan beraiantzako hizkuntza ez da muga bat eta nik hor... oso oso zaila egiten zait (...).

Eta gero beste gauza bat ere, ba euskaldunak izanda ere, jakinda euskaraz egiten duela... ba adibidez badaukat nire inguruan, lagun taldean-edo, bagaude umetan Eskolapiotan ikasi zutenak, eta ikastolatan ikasi genuenak. Nik ikastolatan ikasi nuen. Orduan ba nik ikastolatan ikasi genuen guztiakin euskaraz egiten dut. Baina, berriz, Eskolapiotan ikasi duten guztiakin, denak euskaraz egiten dute eta oso ondo, baina haiekin ba beti erdarara jotzen dugu. Jakinda ere, ohitura hori hartu genuen txikitatik eta horri buelta ematea asko kostatzen zait, ez naizelako batere eroso sentitzen berakien euskaraz hitz egiten. Eta beraiek nigandik badakit ahaleginak egiten dituztela, eta agian, beraiek arazo gutxiago daukate nik baino, zeren beraiek badakite nik euskaraz egin nahi dudala, orduan agian beraiek euskaraz hitz egiteko arazorik ez dute nirekin, baina nik berriz bai, ni ez naiz eroso sentitzen. Orduan berriz ere, ba erdaraz bukatzen dugu erraz, edo bai beregatik, edo beraiengatik edo beraiek... bueno ez dakit nola doan baina ni nire aldetik ez naiz eroso sentitzen. Eta gero jende horrekin, bat baino gehiagorekin egin dugu saiakera, bion artean hitz egin eta esan "ze demontretan ari gara gu erdaraz hitz egiten, ez? Biok euskaraz hitz egin nahi dugu eta *benga*, gaurtik aurrera hasiko gara elkar euskaraz hitz egiten". Eta jende horrekin ere ba kosta egiten zaigu. Heltzen diogu euskarari ondo... hasten gea elkarrizketa ondo, baina ja denbora aurrera doala ordu eta erdi, bizpahiru kaña aurrera doazela, eta hor ja ba... ba... erraza da azkenean erdarara bueltatzea. Gero berriz igual euskarara... Baina, eroso, eroso, eroso, guztiz eroso ere ez naiz sentitzen jende horrekin (...).

Eta gero etxeko ohiturak orain ere umeekin konturatzen errepikatzen ari diela niri gertatzen zaizkidan gauzak. 10 eta 8 urteko umeak dauzkagu eta adibidez ba izeba bat badaukagu euskara ulertzen du, baina ez du hitz egiten. (...) eta amonak ere, (...), eta umeak ere ikusten ditut ari direla hartzten nire jarrera berdina. Zuzenean esaten diet "aizue, amonari hitz egin euskaraz, eta izebari ere hitz egin euskaraz, ze berak ulertzen du, eta horrela hobeto ikasiko du" diskurtsoa oso ondo dakit, baina beraiek ere erantzuten diate ba nik esaten dudana "joe baina, izebak ez daki guztiz euskaraz eta amonak ere oso ondo ez du egiten, eta orduan ba erdaraz" eta... ikusten dut jarrera oso antzekoa hartzten ari direla nik daukadanarekin. *Klaro...* ziur nago niri kopiatzen didatela, ez da hain arraroa izango beraiei gertatzen zaiena. Baina bai ikusten dudala, eta pena ematen dit, hain gazte eta ja aje horiekin.

EGUZKI: Pixka bat nire testuinguruan kokatzeko nik giro oso-oso euskaldunean egiten dut lana eta denak ba euskaraz aritzen gara. (...)eta gero bestetik konturatu naiz orain, pandemia dela-eta egia esan askoz kontaktu gutxiago dudala eta (...) apenas hitz egin dudala erdaraz ba... lauzpabost pertsonekin, gehiago ez (...).

Ni ezta ez nintzen konturatu ba askotan begi bistaz ba erabakitzen dugula pertsona batek ba euskara dakien edo ez, eta ja hori bideoan uste dut agertzen zela daukan janzkeragatik edo itxuragatik ba noizbait nik ere egin dut bai, ba zuzenean ja ba lehenengo hitza erdaraz edo... (...). Baina bueno, egia da nire kasuan behintzat horrelako egoera asko ez direla egon azkeneko aste honetan behintzat, pixka bat ariketa hori egiten, eta nahita, arreta jarrita eta ez dira egon asko... lau... bost... konbertsazio gazteleraz.

Ba horretaz ariketa interesgarria ba hori semaforoa gorri ez dagoen artean euskaraz aritzea, ze egia da batzuetan ba... oso identifikatua sentitu naiz horrekin. Esaten duzu, kamioi bat pasa delako besteak ez dizu entzun eta eskatzen dizu errepikatzea eta pentsatzen duzu ez dizula ulertu eta zuzenean erdaraz hasten zara, edo nik behintzat, edo nik behintzat horregatik, euskaraz ari nintzelako ez didala ulertu pentsatuko nuke eta igual ez da horrela izan, edo igual ez dit entzun, edo...

Baina, orokorrean badaukat joera euskaraz egitekoa, eta egun neketsuren bat ez bada, ba euskaraz egiten dut semaforoa gorri dagoen arte. Laranja ere lehendik euskaraz egiteko joera badaukat.

UDANE: Nire herri txikia da eta arnasmune da, eta ordun beti ingurune euskaldunean hezi izan naiz (...) ba guzti horretan hausnartzen hasita ba konturatu naiz semaforoa

ikusitakoan ba hausnarketa guztiak egin ondoren normalean semaforoa gorrian dagoenean aldatzen dudala hizkuntza. Normalean euskaraz hasten naiz, ikusten badut ulertzen duela ezezagunekin jarraitzen dut euskaraz hitz egiten edo keinuak eta horrela egiten dizkiot eta jarraitzen dut euskaraz hitz egiten eta ja esaten didanean ez duela ulertzen esplizituki ba ja orduan pasatzen naiz gaztelerara. Eta bai daukat herrian badauzkat pare bat ezagun, badakit euskara ulertzen dutela baina niri kostatzen zait elkarrizketa elebidun horiekin jarraitzea. Ezezagunekin ez zait hori gertatzen baina ezagun horiekin bai. Eta ez dakit zergatik den, eta oraindik ez dut topatu zergatik dan deseroso sentitze hori.

Lanari dagokionez, hezkuntzan egiten dut lan, eta ordua irakaslea naiz eta bertan euskarari eusten diot irakasleekin. Gurasoekin bilera edo kontuak daukatenean beti galdetzen diet zein hizkuntzatan egitea nahi duten, eta aukeratzen duten hizkuntzaren arabera. Normalean lehen hitza eta agurra eta euskaraz egiten diet eta orduan galdetzen diet ze hizkuntzatan nahi duzue egitea eta orduan aldatzen dut hizkuntza eskatzen badidate. (...)

Hor daukat ba zer hobetu ez? Esango genuke. Ba... erronka nire buruari jartzea ba ezagun horiekin zergatik egiten dudan erdaraz, eta ez naizen gai konbertsazio elebidunak mantentzeko eta ez dit estresa suposatzen eta ez dit deseroso sentitzen. Baina ezagun horiekin bai. Eta horretan aldatzeko asmotan hartzen dut parte istorio honetan.

IKER: Duela gutxi aldatu naiz herriz, eta zonalde erdaldunago batera joan naiz bizitzera, orain da nire hizkuntza-ohiturak ezartzeko garaia herri berrian. (...) Baina orain hara joatean aldaketa dezentea nabaritzen ari naiz eta ikusten dut, badudala konplexua bezala, gutxiagotasun konplexua. Kurioa da zeren euskalgintzan urteetan ari naiz lanean eta borondatez ere bai... nukleoan nabil, baina konplexua daukat. Eta erdaraz egiten badidate, uzkuartzeko joera daukat. Nik ere ondo geratzeko joera daukat, gatazkari beldurra banio bezala. Euskaraldian horri heldu nion ahobizi jarrerarekin, euskarari eutsiz, orain kafetegian, goiz askotan, erdaraz egiten didate, eta ez ditut hitz asko egin behar kafea hartzeko ezta? baina ikusi nuen kafeaz gain beste zerbait komentatu behar banuen erdarara jotzen nuela, berak ulertuko ez balu bezala.

Beste lekua anaiari lanean lagundu behar izaten diot (...) Enpresan daukaten karguagatik edo, eta ni nola kanpotik hurbiltzen naizen horra eta nola ni ez naizen inor, ba, ezin banu bezala gatazka horretan sartu edo sentitzen dut. Gero ez dakidana da gatazka bezala biziko ote luketen, ez dakit zergatik bizi beharko luketen hala, baina... konturatu nintzen ez banuen apur bat gogor egingo nire baitan, sartuko nintzatekeela ni ere hor erraz erdaraz egiten. (...)

Gero ez da hori bakarrik, zeren baita ere da, ni euskaraz hobeto adierazten naiz, niretzako naturalena hala egitea da, erdaraz ere konplexuarekin. Euskaraz egiten badut eta erdaraz egiten badut, dena konplexuarekin. Horiek dira nire bi erronkak-edo: batean da besteren etxera zoazenean bezala; eta bestean berriz, herri euskaldun batetik erdaldunago batera joatearekin kokatzen ari naiz oraindik eta kostatzen zait eustea ez dizut ulertzen esaten didaten arte. Nire erronka da nik ez dudala gaizki sentitu nahi euskaraz egiten dudalako. Hori da nire... lehen zuk esan duzunean, "nik egiten badiot zer pentsatuko du..." nik zergatik sentitu behar dut gaizki euskaraz hobeto moldatzen banaiz eta euskaraz egiten badiot baina gero.

Beraz, eta laburbilduz, *a priori* honako egoerarekin eta jarrerarekin ekin diote partaideek:

DUNIXE: euskaldun kontzientziatua da, ahalduntzen denbora darama, baita asertibitatea lantzen ere; beraz, ez dauka aparteko zailtasunik. Zailtasunik handiena finkatutako ohiturekin. Horixe du erronka.

ORZURI: euskaldun kontzientziatua da, ahalduntze prozesuan sartuta dago, baina ezin batzuk baditu: ezezagunekin elkarrizketa elebidun errazak izan ditzake, baina esaldiak luzatu ahala deseroso sentitzen da; eta ezagunekin ohitura finkatuak dituenekin deseroso sentitzen da. Euskara utzi eta gaztelerara pasatu behar duen bakoitzean *pereza* sentitzen du. Lan handia egin baldin badu ere, lana dauka aurretik. Asertibitatearen tartean azaldu den menpeko jarreraren zantzu batzuk nabari zaizkio.

ASIER: ez dago batere ahaldundua. Txikitatik jasotako mezuengatik eta bizi izandako esperientziengatik: batetik, gaztelerarako ohitura finkatuak ditu; eta bestetik, berriz, menpekoaren jarrera hezurretaraino sartuta dauka. Lan handia dauka aurretik, eta bere burua etengabe alderatzen du besteekin eta horrek mesederik ez dio egiten.

EGUZKI: euskaldun kontzientziatua da eta *a priori* ez dauka azarorik, eta arreta apur batekin Ahobizi rola erraz beteko du.

UDANE: euskaldun kontzientziatua da, eta ahalduntze prozesu bat darama. Ez du aparteko zailtasunik izango, ezarritako ohitura batzuk aldatzea baino.

IKER: euskaldun kontzientziatua bada ere, ez dago batere ahaldunduta. Nahi eta ezin. Ingurune euskaldunean bizitzeak salbatzen du, baina gazteleraz hitz egitea tokatzen zaion bakoitzean, txiki sentitzen da; aldi berean, ez da gai elkarrizketa elebidunak mantentzeko, ez dio barruak uzten.

Horrenbestez, Dunixeren, Eguzkiren eta Udaneren erronkek ez dute aparteko zailtasunik dutenik ematen; gauzagarriak direla ematen du hasiera batean behintzat. Gainerako hirurek arazo gehiago izango dituzte.

PROZESUA

Partaideen agertze maila honakoa izan da:

	1. astea	2. astea	3. astea	4. astea	5. astea	Azkena
DUNIXE	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai
ORZURI	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
ASIER	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai
EGUZKI	Bai	Ez	Ez	Bai	Ez	Bai
UDANE	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Ez
IKER	Ez	Bai	Bai	Ez	Ez	Ez

Ikusten da, beraz, sei bilkuretatik bostetan parte hartzeko eskatu bazitzaien ere, hori hiruk baino ez dutela bete: Orzuri izan da seietara azaldu den bakarra; ondoren, Dunixe eta Asier bostetara azaldu dira; Udane lau saiotara; Eguzki hirutara; eta Iker bi saiotara.

Ikerketaren helburua da frogatzea ea euskaltzale talde bat bilduta, norbanakoak beren kabuz ahalduntzen ote diren, horrek egiten du berezi TELP tailerretatik; azken horietan aditu baten laguntza baitago. Kontua da lehen bi saioetan aipamen teoriko simple batzuk egitea beharrezkoa ikusi dela, bakoitzean 5-10 minutu:

1. saioan: ikerketaren zergatia eta sarrera, eta semaforoa azaldu zaizkie.
2. saioan: jokaera asertiboa, eta norbanakoaren hiru mailak (marko teorikoan azalduta daudenak).
3. saioan: helburuak doitzeko eskema bat (prozesu osoan pertsona bakarrak erabili du).

Astelehenetako saioetako dinamika honakoa izan da:

- Ongietorria eta sarrera laburra egin du dinamizatzaileak saio bakoitzean.
- Partaide bakoitzak aurreko astean bere buruari jarritako helburua besteei azaldu die, eta betetze-maila zer moduzkoa izan den kontatu die. Azalpen horretan egoera objektiboki kontatzea eskatu zaie, eta subjektiboki nola bizi izan duten azaltzea ere bai.
 - Bitarte horretan guztian ikerketaren gidaria ahalik eta ekarpen gutxien egiten ahalegindu da, eta batez ere hausnarketarako galderak egiten saiatu da; erantzunak ematen baino gehiago, galderak egiten.
- Partaideen artean interakzioa librekoa izan da.
- Behin bakoitzak bere bizipenak partekatu ostean, azalpen teorikoa egon izan denetan, gidariak azalpen tekniko laburra eman izan du.
- Amaitzeko, bakoitzak datorren asterako bere buruari ezarriko dion erronka edo helburua erabaki eta besteei kontatu die.

SEI PARTAIDEEN BILAKAERA

Edukien hustuketa egin da datozen orrialdeetan. Egoeraka eta partaideka, nahasian hustea erabaki da. Egoera orokorrak hartu dira abiapuntu, eta bertan partaideek hainbat egoeretan izan duten bilakaera jarraitua azaldu da. Atal batean partaide batek kasu bat baino gehiago izan dituen kasuan, ez dira guztiak jarraian aztertu, egoerak ondoen azaltzeko moduan ordenatu da:

EZEZAGUNEKIN ELKARRIZKETA ELEBIDUNAK

Batek baino gehiagok bere buruari jarri dion helburua izan da ezezagunekin suertatzen denean, eta ezezagunak gazteleraz egitean, euskaraz erantzutea; modu horretan elkarrizketa elebidunak aurrera eramanez. Dunixek, nahiz eta aurkezpen audioan ez zion hainbesteko garrantzirik eman, lehen saiotik garbi utzi du estres linguistikoa sortzen diola gaiak:

"Ba nik ezezagunen kasuan nire buruari arau bat jarrita diot, beti beti beti euskaraz egitea. Eta ez dut esango egunero egiten dudarik, (...), eta batzuetan nekatur nago, (...), eta esaten dut «joe, honekin oso zaila daukat eta ez dut ahaleginik ere egingo» ezta? Baina, nire araua da euskaraz egitea. Eta ikusiz gero ulertzen duela. Jarraitzea, baina ostia, jarraitze hori ere ez da erraza. Zeren ulertzen du, baina gero burura etortzen zait «jo ulertzen du baina agian deseroso dago...» eta hor etortzen zaizkit nire buruan horrelako pentsamenduak" (Dunixe, 2021-05-17 - 1. saioa).

Ezezagunekin elkarrizketa elebidunak mantentzeko izan dezakeen zailtasuna azaldu du Dunixek lehen saioan. Lehen astea igarota, bigarren saiora esperientzia bat ekarri du:

"Atzo txakurrarekin paseatzen ari ginela, bikote bat gerturatu zitzaigun. Txakurrarekin txoratuta eta neska gazteleraz hasi zitzaidan eta nik automatikoki gaztelaniaz baita, eta gero esan nuen «ostras...» euskarara pasatu nintzen. Neskaren mutilak euskaraz erantzuten zidan, eta neskak berak dena erdaraz. Eta jo, kosta egin zitzaidan, zeren ez nekien ulertzen ote zidan edo ez. Iruditzen zitzaidan baietz hasieran oso deseroso sentitu nintzen. Nire bikoteak ere erdaraz egiten zion. Nik, azkenean, euskaraz amaitzea lortu nuen, baina hasieran erdaraz eta euskaraz nahasian zerbait arraroa egiten ibili nintzen. Baina, azkenean, euskaraz egitea alortu nuen. Ja ohartu nintzenean ulertzen zidala, lasai egon nintzen. Nire beldurra izan zen, ez zen izan ez bere aurpegi txarrik ez ezer. Nire hasierako automatismo hori eta gero, ulertzen ote duen zalantza...
Igual gero mutilak euskaraz egiteak ere lasaitu ninduen... ez dakit." (Dunixe, 2021-05-24 - 2. saioa).

Solaskidearen ulermen maila izan da, beraz, Dunixe deseroso jarri duena. Behin ikusi duenean ulertzen diola, lasaitu egin da. Maiz errepikatu da beldur hori, eta

partaide gehienek aipatu dute. Dunixeren kasuan ere maiz errepikatu da, eta esperientziak iraun duen bost asteetan kasu batzuk izan ditu. Hirugarren saioan ere partekatu du antzeko beste esperientzia bat:

"Emakume bat txakurrarekin zegoen eta emakumea ez nuen ezagutzen, baina txakurra bai, alabarena baita. Eta kasu egitera joan nintzen. Eta ni hasi nintzen euskaraz, eta bera erdaraz hasi zitzaidan, eta ni geratu nintzen «dios, ostia...» eta orduan ba hasi nintzen «animo, alabak euskaraz ondo egiten du, gainera ikusten zaio euskararako ohitura duela eta euskaraz egingo diot suabe» eta erdaraz erantzuten zidan, unereren batean euskarazko hitzen batzuk sartu zituen, ni oso euskara erraztuan aritu nintzen... «arazoak» beharrean «problemak» erabiltzen... ari nintzen gehiago kezkatzen haren egoeraz, niregan baino e. Bera ere ez nuen deseroso ikusi inongo momentuan, edo ez zidan ezer esan, hizkuntzaz, edo ez zuela ulertzen. Berak ahal zuena euskaraz egin zuen (Dunixe, 2021-05-31 - 3. saioa).

Ikusten denez, bigarren astean ere antzeko egoera izan du, baina kasu honetan ez du izan gatzeleraz egiten duen solaskidearen lagun bat ondoan, euskaraz egin diezaion; halere, hasierako ezustea gainditu eta euskaraz jarraitu du. Euskaraz jarraitu bai, baina Dunixek aitortzen du bestearengatik gehiago kezkatu dela, norberagatik baino. Antzeko beste bi esperientzia izan ditu, azken bi saioetan. Bosgarren saioan kontatu duena ez da guztiz ezezagun batekin izandakoa, baina denbora luzean ikusi gabe, eta Dunixek ez dakienez aspaldiko ezagunak ze ulermen-maila duen, atal honetan txertatu da:

"Lehen lan egin nuen taberna batera joan nintzen bisitan (...) topo egin nuen sukaldariekin, (...) berarekin nik beti erdaraz egiten nuen. Eta asko maite nau emakume hark eta han hasi zitzaidan «ai te he hechado de menos, he hechado un novio...» bere txanda amaitu zuen eta hor jarri zen mahai batean eserita, eta haiekin esertzeko esan zidan, eta ni han eseri nintzen. Hasieran euskaraz mutila ere erdaraz, bera ere bai, eta konbertsazioa... ni euskaraz hasten nintzen «inbitatu egin naute, ez dakit ulertzen ote nauten, bere ulermen maila oso txikia da, bestea ez dut ezagutzen...» azkenean dena erdaraz egin nuen" (Dunixe, 2021-06-14 - 5. saioa).

Aurrez ezaguna zuen Dunixek sukaldaria, eta bat-batean ikusi eta elkartu izana, haien elkarrizketan sartu izana... aski motibo izan da Dunixerentzat bere hizkuntza albora uzteko. Halere, hori egin eta lasai sentitu izan balitz, hizkuntza-hautu egokia egin duela esan nahiko zukeen; baina ez da hala izan:

"Lau gauza edo esan eta... inbaditzailea sentitu nintzen. «Nik jarri behar dut hemen nire legea?» Haiek gonbidatu naute, kariño eta zera guztiarekin eta sentimendu oso arraroak izan nituen, esan nuen «ostras...» ez da ezta ere inbaditzea baina sentitzen nintzen... seguruenik ez ziren deseroso sentituko, ez nien galdetu ezta ere... emakumearekin badaukat harremana baina beste tipoa ez nuen ezagutzen... orduan... ze joera hartu... (...) Lotsa eman zidan galdetzeak. Nik uste lotsa dela eta ez nuke lotsa sentitu behar horregatik. Jabetzen naiz gauza askotan ze kontraesan ditudan. Mesede bat eskatzen ariko

banintz bezala, haiek haien kodea daukate eta zergatik eskatu behar diet aldatzeko? (...) Gauza asko, ez dakit! Eta egia da, ni ez nintzen haien kodea aldatzeko eskatzen ari, nik nirean egitea bakarrik eskatuko nukeen, baina ez zitzaidan atera.

Haiekin hizketan ari nintzen bitartean burutik ari zitzaizkidan gauza pila bat pasatzen eta gero handik martxa egin nuen eta denbora guztian bueltaka... ez nintzen nire burua zigortzen aritu, baina esaten nuen gehiago nire burua analizatzen: «zergatik egiten dut hori?» Ulertu nahian, zeren niri ere interesatzen zait hau ulertzea. Baina, ez dakit gutxiagotasun konplexua tarteka... zergatik eskatuko diet euskaraz egiteko, erdaraz entenditzen badidate? Ez dakit, gauzak... (Dunixe, 2021-06-14 - 5. saioa).

Dunixek bere buruarekin izandako elkarrizketak adierazten du estres linguistikoak harrapatu duela momentuan. Espero gabeko unean tokatu da berriz, beste kasu batzuetan ere aipatu du hori, eta azken saioan ere partekatu du antzeko beste esperientzia bat:

"Joan den ostiralean, (...) pintxo bat hartzera joan eta barruan gaztetako lagun bat eta aspaldi ikusi gabe, 10 urte edo, eta zen justu euskaraz hitz egiten ez zuen horietako bat. Ulertu, ez dakit egingo zukeen. (...) Badakit bikotea euskalduna duela, jarrera ona duela, baina ez dakit ulertzen ote duen. Ni euskaraz hasi nintzaion, hark erdaraz, baina lanetik atera zen nahita niri agurtzera, «no sabia si eras tu o no...» eta ni euskaraz, eta ez nintzen erabat eroso sentitzen, gero erdaraz erantzun nion, gero berriz saiatu nintzen, eta bera ere saiatu zen... eta izan zen pixka bat... momentu azkarra zen, lanean zegoen, eta berriz, izan balitz pote bat lasai hartuz, baina ez zen momentua. Baina, ez nintzen eroso sentitu. Ez dakit, badaukat hor zerbait, nire burua zigortzen dut. Eta gero *apuroa* ematen zidan, lanean zegoen... (...) deseroso sentituko ote zen beldurra, eta ni nintzen deseroso zegoena, lasai ikusten nuen, pozik aspaldiko partez ikusi ninduelako. Batzuetan erraz ikusten dut eta beste batzuetan ez. Horiek dira nire koska, honi lehen aldia izango zen euskaraz egiten niona. Hitz batzuk izan zen, ez da suertatu oraindik. Aurrerago nik uste baietz. Pena izan da (Dunixe, 2021-06-21 - 6. saioa).

Dunixeri ez zaio iruditu momentua denik lanean ari den tabernari batekin, aurrez ezarritako hizkuntza-ohitura bat aldatzeko. Halere, Dunixek bat-bateko sorpresa horietan barrua lasaitzen ez du asmatzen, eta berriz ere solaskidearen ulermen-maila ez jakiteak kezkatu du, baita zer-nola hartuko duen ere.

Dunixek aipatzen duen beldur hori, alegia, parekoak ez ulertzea, eta baita, hein batean, parekoa deseroso egoteko kezka, lkerrek ere sentitzen du. Baina, lkerrek beldurrak badu heziketarekin lotutako kontu bat ere, "edukazio txarrekoa" izatearekin:

"Eta erdaraz egiten badidate, uzkuertzeko joera daukat. Ni ere ondo geratzeko joera daukat, gatazkari beldurra banio bezala. Euskaraldian horri heldu nion Ahobizi jarrerarekin, euskarari eutsiz, orain kafetegian, goiz askotan, erdaraz egiten didate, eta ez ditut hitz asko egin behar kafea hartzeko, ezta? Baina, ikusi nuen kafeaz gain beste zerbait komentatu behar banuen, erdarara jotzen nuela, berak ulertuko ez balu bezala. Eta (...), azken astean egin dut ahalegin bat, eta euskaraz egin nion, eta nire sorpresarako ulertzen zuen. Ez da hemengoa, nik uste dut heldu aroan etorritako bat izango dela, eta berak

erdaraz egin dit, baina nik esan dizkiodan gauzak ulertu ditu" (Iker, 2021-05-24 - 2. saioa)

Ikerrek Euskaraldian Ahobizi rola hartu arte, ez zion bere buruari euskaraz egiteko zilegitasunik ematen, parekoak gazteleraz egiten zionean. Oraindik ere, aipatzen duen moduan, bide luzea dauka egiteko; baina, marko teorikoan azaldu den bezala, norbaitek "edukazio txarrekoa" bezalako mezu batzuk hain barneratuta ditutenean, garrantzitsua da saria jasotzea, alegia, iraganetik datorren pentsamendu hori gezurtatuko duten esperientzia positiboak izatea. Modu horretara lortuko du Ikerrek bere burua ahalduntzea, eta gazteleraz egiten diotenean, berak lehen esaldietan behintzat, euskaraz erantzutea.

Orzurik hasieratik azaldu du kostatzen zaiola elkarrizketa elebidunak aurrera eramatea, bestearen ulermenaz kezkatzen dela; eta besteak zerbaite ulertzen ez badiu, nahiz eta ez izan ulermen-gaitasuna falta zaiolako, jada urduri jartzen dela. Alegia, semaforoa berde egon arren, geratu egiten dela. Bada, hirugarren saioan honakoa kontatu du:

"Momentu batean taberna barruan eskatzen ari ginela, zarata asko zegoen leku bat zen, eta nik euskaraz eskatu nion, eta ez zidan ulertu; eta orduan automatikoki erdaraz eskatu nion. Zeren, bat-batean oso urduri jarri nintzen, «ez dit ulertu, ai ene...» eta erdarara pasatu nintzen, (...) eta orduan ere esan zidan «zer?» eta nik «mierda...» ez zela izan hizkuntzagatik, zela soinuagatik, azkarregi esan niola; eta orduan berriz euskaraz errepikatu nion: altuago eta polikiago. Eta sentsazioa zen, «ai, Orzuri, *kagatu* egin duzu» zeren urduri jarri nintzen, eta orduan zuzenean erdarara jo nuen. Ez nintzen jarri pentsatzen: «ea, Orzuri, zergatik izan da? Soinua?» Ez! Urduri jarri eta zuzenean gaztelerara. Eta gero konturatu nintzenean, buelta eman nion. Berak esan zidan «maskarillarekin eta soinuarekin gaizki ulertzeko». Eta orduan bai izan nuen sentsazioa huts egin izana. Nire saiakera bai da hor mantentzea, ulertzen ez didatenean gaztelerara jotzen dudalako oso urduri jartzen naiz-eta. Nere helburua bada, ez nuen lortu, baina jabetu nintzen" (Orzuri, 2021-05-31 - 3. saioa).

Oso estu bizi du hizkuntzaren gaia Orzurik; egoera batzuetan, oraindik, ahaldundu gabe dago eta urduri jartzen da. Lehen egunetik aipatu du ulertzen ez badiote urduri jartzen dela, kontziente da horretaz, baina kognitiboki gauza bat jakiteak ez dakar zuzenean emozioetan ez eragitea. Sentimenduen baliabideak eta baliabide kognitiboak landu behar ditu, eta asertibitatearen teoria azaldutakoan, asko eskertu du eskema simple hori azaltzea.

Aste horretan beste esperientzia bat izan du, elkarrizketa elebidun bat aurrera eramanean du denda batean. Ustez dena ondo joan da, amaiera arte:

"Gaur joan naiz herriko denda batera eta guztia euskaraz egin diot eta berak guztia gazteleraz egin dit. (...) Azken momentuan esan dit bera ez zela ondo

moldatzen euskaraz. Ea ni nire baitan geratu naiz, «elkarrizketa guztia eraman dugu nik euskaraz eta zuk gazteleraz, eta esaten didazu ez duzula euskara kontrolatzen?» Ez dakit zer esan nahi zidan, eta dendatik kezkarekin joan naiz" (Orzuri, 2021-05-31 - 3. saioa).

Beraz, tabernan ez, baina dendan lortu du elkarrizketa elebiduna aurrera eramatea, eta ez du urduritasunik aipatu. Are gehiago, dendariak euskara ez duela kontrolatzen esandakoan harritu egin da, hori Orzuri lasai zegoenaren seinale da. Astebete beranduago denda berberera joatea egokitu zaio, eta euskarazko jarduna izan du, berriz ere:

"Gero aurreko astean aipatu nuen denda batean izan nuela gertaera bat, dendariak esan zidala euskaraz ez zela ondo moldatzen... ba aste honetan berriz tokatu zait bertara joatea, euskaraz hasi nintzen, berak erdaraz egin zidan, eta horrela denbora guztian. Baina, lasaiago notatu nintzen, hau da... bezperan baino lasaiago, eta oso lasai nik uste biok egon ginela lasai." (Orzuri, 2021-06-07, - 4. saioa).

Pertsona batekin zalantzako momentu bat izan, eta hurrengoan berriro euskaraz egin eta bion partetik lasaitasuna nabaritzea sari bat da. Orzuriri sari horiek asko lagunduko diote, izan ere, batetik urratsa aurrera ematea delako, gai dela ikusteko balioko dio; eta bestetik, sariak beti dakar poza.

Ezezagunekin lehen hitzak euskaraz egitearekin jarraituz, aste horretan bertan izan du beste esperientzia bat ere:

"Optikara joan behar genuen eta ni ja nengoen... ez dakit lehenagotik ja gogoratzen nintzen sentsazio hori ulertuko ez zidatela, baina ni ja nindoan urduritasun horrekin «euskaraz egin behar dut, euskaraz egin behar dut» eta nik euskaraz egin nion, eta hor berak eduki zuen «zer?» edo ez ulertzeko edo... eta hor nik euskaraz segi nuen, komodo, eta hor ja esan zidan "mesedez erdaraz egidazu ez dizut eta ulertzen", eta orduan ja erdaraz egin nion, baina hori nire lehenengo erreakzioa lehen zena erdarara pasatzekoa ba oraingoan ez nuen egin eta ez nintzen fortzatuta sentitu. Natural atera zitzaidan edo orduan ba ondo" (Orzuri, 2021-06-07 - 4. saioa).

Orzurik guztia oso modu beroan eta estuan bizi badu ere, eta optikara joan aurretik tentsioan bezala egon arren, optikan bertan zerbitzariak ulertu ez dionean, modu lasaian euskaraz jarraitu du, eta ondoren esplizitatu dio zerbitzariak ez duela euskaraz ulertzen. Orzurirengan nabari dira urratsak, baina oraindik oso hastapenetan dago, eta nahikoa da aldagai bat aldatzea, lehengo jokaeretara itzultzeko:

"Lehengo astean esan nuen optikara joan nintzela Urbilera, bada aste honetan joan naiz lentillak jasotzera. Eta joan naiz nire amonarekin eta nire bikotekidearekin. Beste pertsona batek artatu ninduen; ez aurrekoan artatu ninduenak. Eseri nintzen eta gazteleraz hasi zitzaidan eta ni «bai» eta «ez» esanez bakarrik, eta ja nire burua zegoen... «orain nik euskaraz egin behar diot». Nire bikotekidearekin liskarrak izan ditut lehen hitza gazteleraz egiteagatik,

eta nire amona ere bertan zegoen eta oso urduri jartzen da kanpora goazenean... berak ere kalean jendearekin erdaraz egiten du, ohiturak omen dira. Bi horiekin nengoen eta jakinda nola jokatzan duten, sentitu nintzen epaitu egingo nindutela «petarda hau orain ere badator hizkuntzaren gaiarekin» eta erdaraz egin nion «con esta oferta...» eta gainera ez nintzen gazteleraz eroso sentitzen. Dendatik ateratzean nire burua *matxakatzen*. Izan nuen epaitua izatearen beldurra eta horregatik egin nuen gazteleraz, eta gazteleraz egiteagatik lotsa sentitu nuen, ni bikoteari esaten aritzen naizena, gero nik egin nuen. Ez dakit amonarengatik izan zen edo zenengatik... bakeagatik egin nuen, baina nik barruan ez nuen bakerik. Nik uste nuen ezagutzen nuen langileak artatuko ninduela, badakit ez duela ulertzen. Baina ezezagun bat ikusi nuenean, ja ez nekien ze hizkuntzatan egin" (Orzuri, 2021-06-14 - 5. saioa).

Hor ikusten da, aldagai bat aldatzea aski dela ongi finkatu gabeko ohiturak lehengora itzultzeko. Bakarrik dagoenean modu batera jokatu du, baina espero ez duen langilea ikusteak, inguruan bere jarrera baldintzatu dezakeen jendea edukitzeak - bere bikotekidearekin lehen ere izan du gai hau hizpide, amona ere horrelako guneetan urduri jartzen da-, euskaraz egitea galarazi diote, berez gatazkarik eragin beharko ez lukeen ekintza bat, gatazka pizteko modukoa iruditu zaio momentuan, eta ez du euskaraz egin. Estres linguistikoa pairatu du Orzurik: berak modu batera hitz egin nahi du, baina ingurukoek epaituko dutela uste du "petarda hau...", eta lehengo astean emandako aurrerapausoa ez du finkatu. Halere, prozesu guztiaz kontziente izaten ari da, eta une horretan, nahiz eta gazteleraz egiteagatik gaizki sentitu, momentuan kontzienteki hartutako erabakia izan da. Ikerketan zehar behin eta berriz aipatu zaie partaideei, helburua haiek eroso egotea dela, haien bizi-kalitatean irabazi nahi da, haien zoriontasunean. Beraz, norberak jarri behar ditu helburuak: bai epe luzerako helburuak, baita momentuan momentuko erronkak ere. Erabaki hori bera hartu du lehen momentutik Asierrek. Lehenengo euskaraz ulertzen dutela dakitenekin hasi da, eta ezezagunekiko elkarizketa elebidunak aurreragoko utzi ditu; aurkezpenean adierazi duen bezala. Hori da helburuak doitzea.

Baina, asteak aurrera joan ahala, eta ikusita parekoek ere zailtasunak badituztela, ulertua sentitu da Asier, eta ikerketaren hasieran pentsaezina zatekeena egiten hasi da, dendetan gazteleraz hitz egiten diotenean euskaraz erantzuten:

"Eta berriz, nire helburuekin eta, lehengo astean ikusi genuenarekin, eta ikusi nuen gorputzaren jarrera, eta hori kontuan izan dut apur bat, eta pentsatu nuen, ba hasieratik gorputzean indar gehixeago jarriko nuela, eta batek esan zidan ez zidala ulertzen denda batean, eta erdaraz hasi zitzaidan eta nik euskaraz erantzun nion oso kontziente nire helburua zein zen jakinda, eta «agian zuk nire itxuragatik ni erdalduna naizela iruditu zaizu, eta horregatik egin didazu erdaraz» pentsatuz, zeren hori askotan pasatu izan zait. Erdaraz egin eta proba egiten badut euskaraz, ttak! asko pasatzen zait (...) eta bai, euskaraz egin nuen bezalaxe euskaraz egin zuen" (Asier, 2021-05-31 - 3. saioa).

Eta horrekin jarraitu du, nahiz eta oraindik tartean-tartean blokeatu den:

"Lehenago ere dendara sartu eta gazteleraz hasi zitzaidan bertakoa, eta berriz pentsatu nuen, ba hori, nire itxuragatik zela. Nik, horregatik, euskaraz egin nion. Hark esan zidan berehala, ez zuela euskaraz ulertzen eta orduan, nire buruan blokeo mental bat izan nuen, eta esan behar nuena esatea kosta zitzaidan. Nire buruan ni ja nengoen... azkenean erosi beharrekoa gutxieneko bihurtu zen momentu batean. Azken saioetan erosoago sentitu naiz entzunda hemen ni baino maila altuagoan dagoen jendea, helburu horiek niretzako handi geratzen direnak... ba nik hartu dudana jarrera izan da ba sartuko naiz dendara, eta erdaraz egiten badit ba euskaraz egingo diot, ba agian nire itxuragatik delako. Bestela, berak erdaraz egiten dit, eta ni zuzenean pasatzen banaiz erdarara ba lixto, hor bukatzen da ja. Normalean ez dut proba hori egiten eta orain ba... apur bat kontziente izanda ba iruditzen zait nire gorputzean arreta jarritz, eta egin dut behin baino gehiagotan eta egia da denda horretan blokeatuta geratu nintzela baina bestela, gertatu zait parekoak erdaraz egitea nik euskaraz jarraitzea, eta bera euskarara pasatzea, eta errazten dit gorputzean arreta jartzeak erosoago sentitzeko garaian. Normalago funtzionatzen, euskara alderago, zeren ez badut saiakera hau egiten. Bestela erdaraz egiten dut ez da ezer pasatzen, baina nire bizitza euskaldunagoa nahi dudanez, saiakerak egin behar ditut. Ondo. Helburuak ez direnez handiak. Jarrera edo kontzienteago izanda, iruditzen zait errazagoa dela pentsatzen dudana baino, betiere helburu egokiak jarritz gero, zeren zuei entzun eta ja burua segituan jartzen zait... (Asier, 2021-06-07 - 4. saioa)

Asierrek, hasierako bere audioan argi utzi zuen bezala, lan asko dauka aurretik, eta helburu doituak jarri dizkio bere buruari. Bere helburuak besteenarekin alderatzean, hasieran, gutxiagotasun konplexua ere izan du, eta askotan aipatu izan du bera ez dela besteen maila berekoa, baina hor jarraitu du, berean, bere eritmoan. Eta inguruko urratsak ikusita, bere urratsak ikusita, eta gauzen zergatiaz kontziente eginda, espero ez zituen urrats batzuk eman ditu. Esaterako, jabetu da bere itxuragatik egiten diola jende askok gazteleraz, eta ezkutu horren atzean babestu da, euskaraz egiteko. Horrelako mekanismoak beharrezkoak dira aurrera egiteko.

Ezezagunekin izandako elkarrizketetan bereizi behar dira ezustean gertatutakoak, edo aurreikus daitezkeenak. Dunixek ezustean izandako pare bat gertakari azaldu dira lerro batzuk gorago, eta ezusteak deseroso sentiarazi du une batez, nahiz eta gero buelta eman dion. Bada, bigarren astean bertan beste egoera bat izan du, baina kasu honetan aurreikusi du egoera eta bere burua prestatu du:

"Elkarrizketa elebidunei eustea zen nire erronka eta orokorrean bete dut. Lehenengo kasuan Bilbora joan nintzen, autobusean, zentro aldera... nire buruari mezu positibo asko emanda joan nintzen. (...) Han zegoen neska bati galdetu nion, gainera ni pentsatuz, honek bai edo bai ulertu behar du, eta ulertu zidan, eta gazteleraz erantzun zidan, eta aurrera. Eta hurrena segurtasuneko bati galdetzea tokatu zitzaidan. Nondik sartu behar zen, eta erdaraz erantzun zidan, baina ulertu zidan" (Dunixe, 2021-05-31 - 3. saioa).

Egia da elkarrizketa laburrak izan direla, baina prestatuta joateak lagundu dio.

Modu bereko esperientzia kontatu du Udaneke ere:

"Gasteizera joan behar izan nuen zentro komertzial batera, lagun bat eta biok joan ginen, eta orduan ba kotxean kontzientziatuta zerekin aurkitu nintzen, eta euskarari eutsi eta nik argi neukan berak esan arte ez didala ulertzen, eta modu horretan. Eta orduan ba dendetan ibili eta han nenbilela denek dena gazteleraz egiten zuten, eta nik guztia euskaraz. Ni ondo sentitu nintzen zeren argi neukan hasieratik izan behar nuen jarrera. Inongo momentutan inork ez zidan esan «mesedez gazteleraz» ez zidala ulertzen-eta, inongo zerbitzarik eta orduan nik euskaraz egin nuen. Bai egia da keinuak-eta egin behar izan nituela, haiantzako errazagoa izateko. Bai apur bat sentitu nintzela pankartarekin zoazenean bezala ezta? «Euskaraz egingo dut»-eta, ez? Euskaraz ari zarela zu eta zarela ba hori apur bat kaskagogorra zarela zure jarrera horrekin, edo *inponitzen* ari nintzela ni nire jarrerarekin, bai hori apur bat sentitu nuela. Nire lagunari ez nion ezer esan. Eta bai konturatu nintzen hark ere jarrera berbera hartzen zuela. Euskaraz egitekoa. Eta badakit berak bestela ez lukeela egingo, zeren ezagutzen gara eta badakit berak bestela gazteleraz egingo zukeela, zeren ez dauka... (...) baina, Gasteizen berak ere jarrera berbera izan zuen. (...) Eta nik ez nion ezer esan e, ni isil-isilik gaiarekin. Bai apur bat sentitu nintzen kaskagogorra naizela edo tematia edo... baina tira, argi neukan hasieratik. Komodo sentitu nintzen baina gero pentsatu nuen «joe, zara pixka bat ba hola eh!» baina tira, hori nire izaeraren parte da. (Udane, 2021-06-07 - 4. saioa).

Udaneke aipatzen du, batetik, jazarle sentitu zela, baina aldi berean gero horri garrantzia kendu dio, bere izaeraren parte dela esanaz. Udaneke saio batean baino gehiagotan aipatu du "kaskagogor" hitza bere burua definitzeko garaian. Uneren batean edo bestean, bere jarrera justifikatzeko ere erabili izan du. Badirudi etiketa horrek duen kutsu negatiboak eragiten diola, goiko testigantza hori horren adibide, unerren batean ez baitu zentzu positiboan erabiltzen, esaterako: "Euskaraz ari zarela zu eta zarela ba hori apur bat kaskagogorra zarela zure jarrera horrekin, edo *inponitzen* ari nintzela ni nire jarrerarekin", baina, aldi berean ezkutu bezala ere erabiltzen du, eta harrotasun puntu batekin dio " hori nire izaeraren parte da".

Jarrera aurrez erabakitzeaz eta prestatuta joateaz Eguzkik ere azpimarra egin du:

"Azken bi asteetan lehen hitza euskaraz egiten nuen eta nahiz eta iruditu parekoak ez duela ulertuko, ba euskaraz jarraitzen nuen besteak esplizitatu arte ez zuela ulertzen.

Leroy Merlinen Oiartzunen izan zen. Bertako langile gehienek erdaraz hitz egiten zuten baina, euskaraz hitz egiterakoan, bertako langile gehienek bazekitela eta ondo.

Eta ikerketa honetan parte hartu ez banuen, seguruenik Leroy Merlinen kasu batzuetan pasatuko nintzen erdarara edo baten batekin erdaraz hasiko nuen elkarrizketa, pentsatuz ez duela ulertzen. Euskarari eustea lortu dut, bestela egingo ez nukeena, eta horrekin jarraitu nahi dut, bai." (Eguzki, 2021-06-07 - 4. saioa).

Jarraian, Orzuriren beste esperientzia bat doa jarraian. Zalantza izan da hemen kokatu behar ote den, hizkuntza ohituren aldaketarenean kokatu behar ote den... baina aurrez aurre elkartzeko diren lehen aldia denez, eta oraindik elkar asko ezagutzen ez direnez, bada hemen kokatu da. Beste antzeko esperientziarik ez dago, eta ez da ikusi atal berri bat irekitzea kasu honekin bakarrik:

"Neska hau duela urtebete-edo ezaguna bakarrik zen, eta duela urtebete finkatu genuen harremana. Baina, dena gai konkretu baten inguruan izan da, eta inoiz ez ginen pertsonalki geratu. Aurrekoan elkartzeko esan zidan. Nire hizkuntza ohitura beti izan da nik euskaraz egin eta berak erdaraz, zeren nola duela urtebete izan zen, nik banuen euskararekiko konpromiso hori. Berak aipatu zidan erdaraz egingo zidala, bere inguruan ez duelako euskaraz egiten; eta nik erantzun nion gauza bera, baina euskaraz. Beti izan dugu konbertsazio elebiduna, baina egia da ni batzuetan pasatzen naizela gaztelerara, eta bera ere pasatzen dela euskarara. Biok mugitzen garela. Lehen aldiz elkartu nintzen atzo berarekin, bera erdaraz, ni euskaraz, eta horrela izan zen elkarrizketa guztia. Eta, bueno, burura etortzen zitzaidan ideietako bat zen ea denbora asko neraman euskaraz hitz egiten. Ari ginen elkarrizketa elebidunean, eta nire burua zebilen, «ai ene, nola sentituko da? Gaizki sentituko da?» beti jartzen nintzen paper horretan. «Ze kristo ari da pentsatzen ni euskaraz ari naizelako». Igual gaizki ari nintzela gauzak egiten, banekien ezetz, baina... ez dakit. (...)

Lagunarekin hizketan, egia esan asko egin nuen euskaraz. Bezperatik banekien geratuko nintzela eta urduri nengoen, banekien izango zela konbertsazioa oso elebiduna. Oso ondo halere. Gustora. Euskarari asko heldu nion, ondo eutsi nion. Buekaeran gustura. (Orzuri, 2021-05-31 - 3. saioa)

Orzuriren kezka da besteak zer pentsatuko duen eta ea eroso egongo ote den bestea. Orzuri ez da bere erosotasunaz kezkatzen, horixe da hain zuzen estres linguistikoa eta menpekoaren jarrera; atal honetan, eta hurrengoetan ere, maiz azaldu dena. Biek hitz egin zuten lehenago ere gaiaz, baina halere, Orzurik kezka dauka. Ez du inongo momentutan pentsatu bestea kezkatuta egon daitekeenik Orzuriz, ez zaio burutik pasa ere egin, besteak ere izan dezakeela kezka berbera, beste noranzkoan.

"Nahiz eta bion artean hitz egin hizkuntza auziaz, erasotzaile bezala sentitzen naiz. Ez dakit zeba. Berak ez dit inongo momentutan esan ezer, baina aixxx... hori sentitzen dut inbaditzen ari naizela (...), konpromisoan jartzen ari naizela (Orzuri, 2021-05-31 - 3. saioa).

Erasotzaile, inbaditzaile, kaskagogor... modu askotako adjektiboak erabili arren, muinean dagoen arazoa bat eta bakarra da: "euskalduna naizenez ez daukat zilegitasunik nire hizkuntzan hitz egiteko, baldin eta besteak gazteleraz hitz egiten baldin badu". Hizkuntza-asetibitatean ulermena bermatua baldin badago, helburuak izan behar du bakoitzak nahi duen hizkuntzan adieraztea, baina sentimendua ez da hori; sentimendu hori ez da asertibo batena, menpeko batena baizik. Hurrengo egunetan ez dira berriz elkartu, beraz, ezin dugu jakin Orzurirengan emozio berberak mugitu diren, edo aldatzen hasi ote diren.

Nahiz eta ez den ezagun horrekin elkartu, beste antzeko egoera bat ere bizi izan du Orzurik:

"Gurekin biltzen diren beste lagun batzuekin elkartu ginen. Kuadrillako bakarra nintzen ni, eta beste hiru mutilekin joan nintzen. Eta ohartu nintzen haien artean gaztelerara asko jotzen zutela; nik uste nuena baino gehiago. Ea nola azaltzen dudan: ni txikitatik Ikastolakoekin ego naiz, eta beti euskaraz. Orduan beste biak ikusi nituen gaztelerarako joerarekin, baina nirekin txikitatik euskaraz egin izan didatelako euskaraz ari zitzaizkidan, baina bai haien artean uste baino gehiago egiten zutela. Zeren gero diot: ni ez nintzateke mutil horiekin erdaraz eroso egongo. Niri ez zidaten erdaraz egiten baina, bai haien artean. Behintzat, ni eroso egon nintzen euskaraz, ez zitzaidan minutu bakar batean ere erdaraz hitz egitea burutik pasatu (...)

Ohartu naiz, jabetu naiz, naturalago ateratzen zaidala nire burua eroso egotea, bestea eroso dagoen pentsatzen egotea baino. Egia da ez zaidala azken bi asteetan egokitu elkarrizketa luze bat gazteleraz izan beharrik. Baina, optikako hori kenduta erosoago sentitzen naiz. (Orzuri, 2021-06-14 - 5. saioa).

Lehendik Orzuriren ezagunak dira eta euskaraz finkatu zuten bere garaian haien arteko harremana. Halere, haien artean gazteleraz egiten baldin badute, eta Orzuri parean dagoelako euskaraz ari baldin badira, Orzurik askotan izan ohi duen menpeko jarrera hori kontuan izanda, harrigarria ere bada. Aurkezpen egunean antzeko hitzak ere erabili zituen: "lagunek elkarrekin gazteleraz egiten zutena unibertsitatean, eta gu euskararekin lotzen gintuzten, eta guri zuzenean euskaraz egiten ziguten. Eta horrek harrotasuna sentitzen zidan" (Orzuri, 2021-05-17 - 1. saioa). Horretaz galdetuta, sentsazioa ezberdina dela aipatu du bosgarren saioan: "bai, baina unibertsitatean ez nintzen ni bakarrik, ez nuen nik bakarrik eragiten aldaketa" (Orzuri, 2021-06-14 - 5. saioa). Beraz, taldeak eragin handia dauka Orzurirengan; besteen babesa izatea garrantzitsua da. Bosgarren saioa da, eta Orzuri ahalduntzen ari da. Bosgarren eta azken saioaren artean beste behin egon da lagun horiekin:

"Lehengo astean aipatutako lagunekin egon nintzen, eta nik haiekin euskaraz egiten dut, eta juntatu ginen beste batzuekin, horiek bai elkarren artean gazteleraz egiten dutela. Orduan ginen, bi euskaraz egiten genuenak, eta beste biak gazteleraz, eta nire lagunak beste biekin ere bai egiten zuela gazteleraz. Orduan haien artean gazteleraz, niri euskaraz, eta halako batean botatzen du «arraroa egingo zait zuri gazteleraz egitea» eta nik esan nion «ez, niri euskaraz» eta arraro sentitu nintzen, zer esan nahi ote zuen? Ez genuen landu gehiago, eta gero penarekin geratu nintzen. Berak ere bere buruan gatazka izango zuen, nirekin euskaraz, haiekin gazteleraz, haiek niri gazteleraz baina nik haiei euskaraz... agian nire laguna deseroso sentitu zen? Ni halere, eroso nengoen. (Orzuri, 2021-06-21 - 6. SAIOA).

Egoera horretan Orzuri eroso baldin badago, urratsak eman ditu ahalduntze bidean. Bestalde, Orzuriri hor jarrera erasokorraren zantzu bat atera zaio: "ez, niri euskaraz" esatean, deserosotasuna sentitu duelako une batez; irabazi-galdu terminoetan planteatu du: lagunak taldean erabiliko duen hizkuntzan besteek ala

Orzurik irabaziko du? Lagunari berak nahi duen hizkuntza aukeratzen utzi beharrean. Ohikoa da asertibitatea guztiz barneratu gabeko dagoenean pertsona bat erpin batetik bestera joatea. Halere, Orzuri eroso egon da, nahiz eta pena izan lagunari ez galdetu ez izanagatik.

Gogoratu behar da, ariketa hasi aurretik lkerrek ez zuela euskaraz egiten, ezta aurreikusitako egoeretan ere; ezin zuen. Asierri antzekoa gertatzen zitzaion. Orzurik ere, nahiz eta euskaraz egin, askotan barne-elkarrizketak ere izaten zituen aurrez, parekoak ulertu ote dion edo ez. Atal honetan ikusi da ezezagun batekin edo harreman sakona ez duen batekin euskaraz hasi, ezezagunak gazteleraz erantzun, eta euskaraz hizketan jarraitu dutenek zer-nolako gorabeherak izan dituzten: Asierrek, hasiera-batean pentsaezina zen arren, dendetan, lehen hitzak behintzat euskaraz egiten ditu, nahiz eta ez eutsi amaiera arte; Dunixek esperientzia txar bat izan badu ere, gainerakoetan ezustean gertatu zaionean bai izan duela hasieran zalantzazko erreakzioa baina, berehala jakin du bere burua berregokitzen eta ondo eta eroso erantzun die espero gabeko elkarrizketa elebidunei; Udanez lehendik egiten duen praktika den arren, bere jarreraren alderdi negatiboak tarteka aipatzen ditu; Eguzkik lehen ere euskaraz egiten zuen, baina orain are eta gehiago, eta ez du azarorik izan; lkerrek joan berri den herriko kafetegian egin du aproba eta uste ez bezala, ondo atera zaio, nahiz eta oraindik ohitura guztiz finkatzeko izan; eta azkenik, Orzurik, gorabehera asko izan ditu, dendetan-eta batez ere, baina bi lagunekin emandako urratsa azpimarragarria da. Halere, denetan, ikusi da egoera aurreikusia denean, euskaraz egin dutela, eta deserosotasunik apenas izan dutela; besterik izan da ordea, ezusteko egoeretan: espero ez denak artatzean, espero gabe parekoak erdaraz erantzutean, etab.

ULERMENA ZULATUA DENEAN

Orain arte landu diren elkarrizketak elkarrizketa elebidunak izan dira, baina parekoak euskararik ulertzen ez duela adierazi gabe; egia da, askotan ezjakintasuna izan dela oztopoa, baina semaforoa berde egon da kasu guztietan. Orain ordea, semaforoa laranja kolorekoa den egoerak aztertu dira, ulermen-maila erdizkakoa den kasuak, izan baitira egoera horietan ere euskarari eustea erabaki dutenak. Bat, Orzuri bera. Azken egunean honakoa aipatu du:

"Herrian badaukagu taberna bat oso kuttuna, itxi zuten eta lehen askotan egoten ginen, eta orain zerbitzari berriak daude, eta bat ez beste guztiak erdaldunak dira; baina guk ez genekien. Eta euskaraz hasi nintzaion, baina esan zidan ez zuela ulertzen. Eta orduan erdaraz eskatzen nion, baina ez erdara hutsean, bi hizkuntzetan. Lehenengo erdaraz esaten nion eta gero euskaraz. Askoz hobeto sentitu nintzen. Zeren, lehen besteak ulertzen ez zuelako gazteleraz egin beharra, aixxx... ez nuen ba nahi. Eta orain metodo horrekin nire buruarekin lasaiago nago. Eta erronka bezala daukat, haiek ere bai belarria egiten joateko eta... (Orzuri, 2021-06-24 - 6. saioa).

Orzurik taldekideek 5. saioan aipatutako taktika bat erabili du: jakin arren parekoak ez duela euskara ulertzen, elkarrizketa laburra denez, eta esaldiak ere bai, lehenengo euskaraz esatea eta gero gazteleraz. Jarrera horrekin Orzuri lasai dago, eroso. Osterantzean, Orzuriren burua bueltaka hasten da, eta partaideekiko solasaldietan estres linguistikoa aipatzean, behin eta berriz ateratako ideia azaldu du: parekoarekin hizketan ari denean, bere buruarekin beste elkarrizketa bat dauka.

Erronkarik potoloena, ulermen zulatuari dagokionez, Udanek izan du. Madrildik etorritako lagun bat dauka, eta kuadrillakoa da. Madrilgo lagunaren jarrera txalotzekoa da:

"Eta gero baita etorri zaigu ere gure lagun taldean ba Madrileko bat euskaraz ikasten ari dena, eta berarekin baita ere zaila da askotan ba non... oraindik maila baxua dauka, eta orduan ez dakizu zein momentutan euskaraz egin eta zein momentutan erdaraz... pixka bat hor nago ez dakidala... berak beti esaten du e, «zuek euskaraz egin lasai, eta nik bestela esango dizuet» eta askotan jotzen dugu, berak eskatu gabe erdarara. Eta orduan ba hor, ikerketa parte hartzea ba interesatzen zait. Horrelako egoeran ba jakiteko gutxi gorabehera zer jarrera hartu, nola jokatu (Udane, 2021-05-17 - 1. saioa).

Saioz saio galdetu zaio Udaneri ea zer moduz daraman Madrileko lagunarekin hartutako erronka. Uneoro aipatu zaio helburuak doitzea garrantzitsua dela, euskaraz gehiago hitz egitea baino nahiago dugula bera eroso sentitzea; baina, Udanek hor jarraitu du. Lehen saioko testigantzak izan dira horiek.

Hirugarren saioan honakoa aipatu du:

"Madrileko lagunarekin ostiralean elkartu ginen, eta plan bat prestatzen ari ginen. Lau gara eta bera da euskaraz ez dakiena. Eta hasi ginen, eta nola dena zenbaki kontuak ziren, nik guztia euskaraz egin nuen. Eta bera aldamenean horrela zegoen, eta amaieran esan genion, "bueno, zerbait ulertu duzu?" eta "ez, ezer ez" eta dena euskaraz azaltzen saiatu nintzen, gaztelerazko hitzak tartean sartuz (...) eta ulertu zuen (...) gainera zenbakiak badakizki eta mantso azalduta..." (Udane, 2021-05-31 - 3. saioa).

Eroso ote dagoen galdetuta baietz erantzuten du Udanek, Madrilgo lagunaren jarrerak guztia errazten duela; nahiz eta ulermena oraindik zulatua izan. Laugarren saioan azaldu duenez, Madrilgo lagunak beste lagun bat ekarri du, eta orduan bai gazteleraz egin behar izan dutela, bisitan etorri denak euskaraz hitzerdirik ere ez duelako ulertzen. Halere, kuadrillak euskaraz asko egin duela esan du:

"Zeren, kuadrillan hasten ginen berarekin erdaraz, eta gero pasatzen ginen euskarara, zeren gure artean ba... eta bera geratzen zen pixka bat horrela... ez zela jabetzen ezertaz, noski! Alde horretatik poztu egin nintzen zeren esan nuen «kuadrillan badaukagu euskararako joera»" (Udane, 2021-06-07 - 4. saioa)

Horrez gain, beste sari edo poz bat ere izan du Udane, Madrileko lagunak berari euskaraz egiteko esplizitatu dionean:

"Eta asteburu guztian Madrileko honekin egon nintzen, eta guk asko egiten dugu euskaraz, eta berarekin ere bai, eta egia esan kuadrillako inork ez daki hona etortzen naizenik eta ikerketan parte hartzen ari naizenik, eta elkarrizketa batean ari ginela, berari zuzenean azaldu nion, eta gaztelerara pasatu nintzen eta esan zidan «Udane, tranquila, euskaraz» eta ostras, hau jabetu da nik gehiago egiten diodala euskaraz, zeren besteei ez zien esan" (Udane, 2021-06-14 - 5. saioa).

Udaneri bere jarrera baieztatzeak indarra eman dio. Ikerketagatik izan daiteke, izan daiteke lehenagotik Udane daukan jarreragatik, irakaslea ere bada; baina kontua da, Udaneri indarra eman diotela madrildarraren hitzek. Udaneren jarrera euskara-ikasten ari den baten euskara-maila hobetzeko estrategikoa da, aurrez aipatu den bezala, Aldahitz metodologiak dionez (Aldahitz, 2011). Honela jarraitu du:

"Eta gero jaitsi ginen herrira eta zerbeza batzuk hartzen ari ginen, eta komunera joan zenean kuadrillako batek esan zuen, «orain hasi gaitzen gazteleraz, erabat euskaraz ari gara eta ez baita enteratzen» eta nik erantzun nion «ba nik euskaraz egingo dut». Berari zuzenean gauzak esan behar dizkiodanean-eta pasatzen naiz gaztelerara baina, bestela... eta kuadrillakoak «joe eske, Udane, zu beti...» eta bai orduan gaizki sentitu nintzen. Egia da gauza asko galtzen dituela, ulermen maila oso baxua daukalako, «ba nik oraingoz jarraitu egingo dut» esan nien, eta ni bai sentitu nintzela orduan inbaditzaile, kaskagogor eta inposatzaile baina... eta gero dinamika berberarekin jarraitu nuen. Nik ikusten dudana da, hark esandakoarekin, nabaritzen duela nik euskaraz gehiago egiten diodala. Egia da kuadrillan asko garela irakasleak eta orduan bai egiten diogu, azaldu egiten diogu gramatikalki, batuagoan hitz egiten dugu, hitzen jatorria esaten diogu... nabari da irakasle ez direnek itxiago hitz egiten dutela, eta erdaraz egiten badie ez die ezer esaten. Eta gero hark ere galdetzen du, baina... «jun» hitzarekin adibidez. 50 aldiz «jun» erabili eta gero galdetu zigun «oye que significa `jun`?»

Baina, lagunekin gertatu zitzaidan, ez nuen espero eta «eta nik orain hauei ze esan behar diet?» horrela eskatuta gainera... «goazen gazteleraz gehiago egitera, bestela ez da eta enteratzen» eta nik ezetz. (Udane, 2021-06-14 - 5. saioa).

Udaneren lagunak Udanerengan zalantza sortu dute une batez, baina bere izaera indartsuak -lehen ere aipatu da kaskagogor famarena-, eta Madrilgo lagunaren hitzek indarra eman diote berean jarraitzeko. Beste zenbaitengan sekulako eragina izan lezakete hitz horiek, eta norbait guztiz ez-ahaldundu dezakete horrelako hitzek; sariak bezala, zigorrak ere eragin handia dauka.

Beste modu batera, baina zigorra jaso du Dunixek ere euskara ulertzen ez duen batekin:

"Pasa den larunbatean gertatu zitzaidan beste gauza bat, asko haserretu ninduen. Ni azokara joaten naiz larunbatero, eta beti leku berean erosten

ditut. Hango nagusiak ama-alabak dira, beste bi laguntzaile izaten dituzte eta horietatik bat euskalduna eta bestea jatorri atzerritarrekoa. Ni mutil horrekin euskaraz aritzen naiz, asertibitatearen tresna guztiak ateratzen eta, «lau kalabazin, bi tomate» -mantxo, eskuekin keinuak eginez, ondo ahoskatuz...- eta hark «ai eske... no entiendo» kostea egiten zaio, baina tira ni beti saiatzen naiz eta esaten diot «si no te habla nadie no vas a entender nunca».

Eta joan nintzen lehengo larunbatean, eta nengoen nire txandaren zain, eta mutil hau libratu zen eta ikusi nuen eroarena eginten, eta hasi zela nire atzekoarekin hizketan "que si Messi, que si Bcelona..." eta ni nire artean ez nintzen sartu, eta etxeko andrea libratu zen, eta etxeko andreari eskatu nion eta entzuten dut orduan tipoa esaten besteari «esque esta siempre que viene me habla en vasco y yo no le entiendo nada...» eta ni nire artean «cabron» eta isilik geratu nintzen, baina... eske jende asko zegoen unea zen, lagunak ditut eta ez zen kontua... edo igual bai, igual momentua zen. Ze ostia! Ze ostia! Nik euskaraz egiten baldin badizut berdin-berdin zerbitzatu behar nauzu ni! (Dunixe, 2021-06-14 - 5. saioa).

Ondoren, eztabaida interesgarria sortu da partaideen artean, ikerketan landu ez dena, baina elkarrizketa horiek, bakoitzak nola jokatu zukeen... horrek beste edozein azalpen teorikok baino gehiago balio du, eta bakoitzak bere ondorioak atera ditu.

Dunixe oso pertsona ahaldundua da horrelako kasuetarako, baina sorpresaz harrapatu zuen, eta batez ere, dioenez, zeharka entzun izanak kendu zion erreakzionatzeko aukera; ez baitzion zuzenean berari esan. Horrez gain, aurreko kasuetan ikusi dugu Dunixe ezusteetan sentitzen dela galduta.

Azken bi esperientziek gozotik baino gehiago gazitik izan duten arren, Orzurik urratsak eman ditu ulermen maila txikia duen lagun batekin. Lagun horrek gutxi ulertzen du euskara, baina Orzurik saiatu egin nahi du. Lehen egunean esan du WhatsApp bidez hasi dela ahalegintzen:

Nafarroako lagunarekin WhatsAppez daukat harremana. Batez ere batuan egin behar diot, mantso, poliki... behin eta berriz dena errepikatzen, eta zuzentzen ibili behar izaten dut, eta nekatzen nau (Orzuri, 2021-05-24 - 2. saioa).

Lehen egunetik azpimarratu da helburuak doitzea oso garrantzitsua dela. Batez ere, norberak norbere burua estutzeko joera baldin badu, helburuak ez betetzeagatik; eta Orzurik estu hartzen du sarri, bere burua.

Hurrengo egunean, WhatsApp audio bat bidali du Orzurik, gertatua azaltzeko: gaizki-ulertu bat medio tentsioa dago lagun horren eta bien artean, eta Orzurik tentsioa baretzeko badaki gaztelerara jo behar duela, besteak ondo ulertuko badio; baina, ez du nahi:

"Alde batetik, elkarrizketa elebidunetan, gaia sakontzen badoa gaztelerara jotzen dut. Molestatuta nengoenez, banekien izango nuen elkarrizketa ez nuela euskaraz izango. Ez nuen nire molestiaz paso egin nahi. Euskaraz ez zait ateratzen hori azaltzea, berari. Ohitura hori daukat. Eta asko izorratzen nau berari erdaraz egin beharrak. Ez nuen nahi. Nago sentsazio horrekin. (...) Aste honetan *pendiente* daukagu. (...) Insegura nago" (Orzuri, 2021-05-25 - WhatsApp audio bidez).

Hirugarren saioan, gaia atera du, beste kideek ere jakin dezaten, eta urrats gehiago eman ditu:

"Eta lagunarekin egoera oso bestelakoa da. Elkartu ginen, eta euskaraz azaldu nion, egia da oso azaletik azaldu niola. Konbertsazioa erdaraz izango balitz sakonagora joango ginatkeen, baina nik euskaraz azaldu nion. Berak barkamena eskatu zidan eta azaldu zidan. Nik azaletik azaldu nion eta ondo hartu zuen.

Eta elkarrizketa hori eta gero, esan zidan zergatik egiten nion dena euskaraz. Harritu ninduen zeren bai egia da, gure konbertsazioak guztiz erdaldunak izan dira, bai momentu puntaletan saiatu izan naizela euskaraz egiten, baina ezin izan dut. Beti indarra galtzen dut. Oraingoan bai. Eta ea zergatik ari nintzen. Eta mesedez berari erdaraz egiteko. Modu atseginean esan zidan. Eta galdetu nion zergatik. Eta esan zidan «ba ez dudalako dena ulertzen» eta esan nion «lasai, badakit ez duzula dena ulertzen, ni saiatzen naiz euskara batuan egiten, zuk ulertzeko moduan» eta idatzi zidan «bai zeren zure euskara eta nirea ez da berdina» eta horregatik idazten niola batuan, eta pixka bat hori... konturatu zela. (...) Eta gero ere esan zidan sosa nengoela. Eta nik uste dut dela, erdaraz 24 ordu hitz egin dezaket, eta euskaraz askoz lotuagoa ikusten dut. Pertsona honekin deseroso nago euskaraz. Badakit dena ez duela ulertzen, badakit euskaraz hasiz gero eta ez badu ulertzen modu onean esango didala baina berriz errepikatu beharko dut guztia... eta da... bi aldiz bezala. Hori astuna egiten zait. Ez zait ateratzen elkarrizketa alaiagoak, sakonagoak... berarekin euskaraz. Berarekin lotuta sentitzen naiz (Orzuri, 2021-05-31 - 3. saioa).

Beraz, ulermen-maila txikia dutenekin umorea euskaraz egitea zaila zaie, bat-batekotasun hori galtzen delako, hitz egokien bila ibiltze horretan. Aurrerago ere azaldu da gai hori behin baino gehiagotan.

Umorearen gaiaz gain, Orzurik helburuak doitu gabe jarraitzen du. Taldekideek esan diote, "lagun gaixoa", baina norberak jabetu behar du. Orzurik ikusten du lagunak ez diola ulertzen, bera ere ez dagoela eroso, emozioek adierazten diote hori; baina bere buruak jarritako idealek, arrazoiak esaten dio aurrera jarraitu behar duela. Kasu honetan dituen baliabide kognitiboak eta emozionalak daukan estres linguistikoa baino txikiagoak dira; eta beraz, egokiagoa litzateke beste helburu batzuk jartzea, baina Orzurik jartzen ditu bere helburuak.

Laugarren saioan ez du ezer aipatu, eta taldean ere ez zaio gaiaz galdetu; bosgarrenean, ordea, berak atera du gaia:

"Lagunarekin, aurreko astean ez nuen aipatu, baina helburu bat jarri nuen: hasierako 10 minututan euskaraz egitea. Baina orain helburua aldatu dut: 10 minutu euskaraz egin beharrean, ni eroso nagoenean euskaraz egitea, eta deseroso nagoenean txandakatuz hastea. Guztiz gaztelerara pasatu eta euskara ahaztu ordez. Gehiena erdaraz egiten dut. Lehen baino gehiago esango nuke, baina batez ere erosoago. Lehen euskaraz erabat baina ez nengoen eroso, eta orain batzuetan euskaraz, gero gazteleraz, eta hor erosoago nago (Orzuri, 2021-06-14 - 5. saioa).

Orzuri bera jabetu da helburu doituek duten garrantziaz; baina, urratsez urrats bera joan da helburuak aldatzen eta jabetzen. Orzurik hiru baliabideak landu ditu, motorrak, kognitiboak eta emozionalak, eta ikusi du helburuak doitu behar dituela. Seigarren saioan galdetu zaio, eta berdin jarraitzen duela esan du.

Beraz, ulermen zulatua dutenekin Udane lan handia egin du, nahiz eta lagunak askorik ez lagundu. Halere, Udane ikerketan parte hartzen hasi aurretik ere ari zen Madrildarrarekin euskaraz, eta beraz, ez da taldearen eragina izan. Dunixek izandako zigorra taldearekin partekatu du eta taldeko guztiei balio izan die esperientzia entzuteak eraso baten aurrean zein alderdi aktibatu gogoetatzeko. Azkenik, Orzurik ulermen zulatua duen lagun horrekin helburuak doitu, ditu eta azken bi saioetan eroso azaldu da lortu duen harreman-mota berriarekin. Marko teorikoan aipatu da euskara-ezagutza txikia dutenekin harremana bera ere aldatu egiten dela, emozioak dantzan hasten direlako (Aldahitz, 2011); eta horri aurre egiteko prest dago Orzuri. Horrez gain, herriko taberna batean ulermen zulatua duen zerbitzariari gauzak bi hizkuntzetan esatea hobetsi du, eta lehen baino askoz erosoago dago.

FINKATUTAKO OHITURAK ALDATZEN

Orain arte ezezagunekin euskaraz hasitako elkarrizketa elebidunak, eta ulermen zulatua dutenekin izandako elkarrizketak landu dira. Jarraian, eremurik zailenetako bat landu da: finkatutako ohiturak aldatzeko ahalegina. Gehienek dituzte horrelako kasuak, eta arreta bereziz landu eta aztertu dira taldean bertan ere, bakoitzaren testigantzei behar besteko denbora eskainiz. Dunixeren testigantza honakoa:

"Nik lagun asko dauzkat Hernanin ba euskaraz jakin arren ba hitz egiteko beraien zailtasunak dauzkatena, edo gaztelerarako ohitura ere bai latza, ez? (...) egia da ja euskararekin lotzen nautela askok eta ja euskaraz egiten didatela, beraien artean erdaraz egin arren. (...) Baina badauzkat lagun batzuk erdaraz egiten didatenak, eta nik bere garaian erdaraz egiten nienak, eta horiekin ba izaten ditut nire zailtasunak. Saiatzen naiz e, eta batzuekin lortu duk beraiek ere euskaraz egitea niri. Baina kosta egiten da. Hasieran agian oso erraza da, elkarrizketa hasieran, baina gero ba agian parranda giroan baldin bazaude, orain ja ez pandeamiagatik baina, ordu batetik aurrera ahaztu egiten zaizu dena... ez dakit (...) Espero dut Hernanira joatea eta lehen aipatu ditudan horietako asko ikusiko ditudala. Ez dakit baina nola izango den. Zeren, emozio asko izango dira" (Dunixe, 2021-05-17 - 1. saioa).

Pandemia dela-eta, ordea, Dunixek ezin du Hernanira joan, eta bere helburuak doitu behar zian ditu:

"Hernanira joan ezin naizenez. Ezagun batekin harremana dut, txakurrarekin asko laguntzen nau. Harreman ona daukat berarekin, berak ez du euskaraz egiten, baina ulertzen du. Eta da oso adar jotzailea, eta ni ere oso adarjotzailea naiz, baina konturatzen naiz zuk esan duzun bezala, Orzuri, hasten naiz adarra jo nahian eta niri berez broma oso erraz ateratzen zait, baina berarekin erdaraz esateko premia edo askotan pasatzen naiz erdarara. *Txispa* galduko banu bezala edo... txorakeri bat da baina... eta berarekin bihar geratu naiz, eta biharko elkarrizketa osoa nik euskaraz egitea. Hori da nire helburua. Doitua da, berak ulertzen du, bere emazteak ere bai, gainera andreak ere ulertzen du, gehiago daki... eta nire ahalegina izango da hori, posible da, gero nik nire buruan sortzen diren kontuak baino ez dira. Aldez aurretik konbentzituia joango naiz eta... arazoa izan daiteke nire bikotea eta biok geratu garelako berarekin eta nire bikoteak ez duela esfortzu hori egingo. Hor sortu daiteke..." (Dunixe, 2021-05-31 - 3. saioa).

Beraz, batetik, helburua doitu du, eta beste pertsona batzuk hartu ditu jomugan, antzeko ariketa egitera eramango dutenak; eta bestetik, berriz, umorearen gaia atera da berriz ere. Honakoa kontatu du hurrengo saioan:

"Tolosan dudan ezagun batekin elkarrizketa elebidunak izatea nuen erronka eta bete dut. (...) Txakurra hezten lagunduko digu (...) Gainera, esan nuen berarekin geratua nengoela eta nire beldurra zela nire mutilak erdaraz egingo ote zion eta ni hor arraro sentitzea. Jada bera ere euskaraz hasi zitzaion ni ezer esaten hasterako eta ni "joder, Dunixe, zenbat aurreiritzi hemen, zenbat kaka daukazu, zenbat pelikula egiten dituzun aurretik..." eta egia esan hasieran arraro eta gero eroso eta geroztik hiruzpalau aldiz egon gara eta eroso sentitu naiz. Oso atsegina da, euskaraz badakit ulertzen duela, daukana da erraztasun falta" (Dunixe, 2021-06-14 - 5. saioa).

Hasieran erdi-mailako zailtasuna ezarri badio ere, uste baino errazagoa izaten ari da Tolosako lagun horrekin hizkuntza aldatzea, Dunixerentzat. Eta azken saioan ere galdetu zaionean honakoa erantzun du:

"Nire azken erronka zen, txakur-hezitzailearekin euskaraz egitea, hasi nintzen, jarraitzen dut eta finkatze bidean nagoela esango nuke. Astero elkartzeko gara, nik euskaraz egiten diot berak erdaraz erantzuten dit, dakien apurra euskaraz esaten dit, eta ondo WhatsApepe ere euskaraz idazten diot hark dakiena euskaraz erantzuten dit, batzuetan erdaraz idazten hasten naiz baina konturatu eta borratu egiten dut, baina tira, hori, pozik eta eroso" (Dunixe, 2021-06-21 - 6. saioa).

Asierrek ere lehen egunetik aipatu ditu aldatu nahi dituen zenbait ohitura. Sarrerako audioa eskatu zitzaionean ere aipatu zuen segituan, horrelako bi foku badituela gutxienez, aspaldiko lagunekin bata; bestea, berriz, lantokian. Lehen horri buruz honakoa esan du lehen saioan:

"Asteburuan ere egon gara kanpoan, furgoneta batzuk, kanpina, eta han ere egon naiz pixka bat egoera... (...) Ikastolakoak eta Eskolapioak nik horrela bizi

dut. (...) Ikastolakoekin dena euskaraz egiten dugu eta eroso sentitzen naiz, eta Eskolapioetakoekin erdaraz egiten dut. Haiek nik baino hobeto egiten dute euskara baina, hor beti kosta egiten zaigu; ohiturak. Eta haiekin hitz egin da ere, «bueno goazen euskaraz hitz egitea», alperrik (...) eta asteburu honetan egon naiz haietako batekin. Hiru egun egon gara elkarrekin eta jende gehiagorekin: Arbizuko jendeak euskaraz, denak euskaraz genekin... denak... eta han ere kosta egiten zitzaidan... eta pentsatzen etorri naiz zenbateraino da... Arbizu horiek dena euskaraz. Kostakoak ere dena euskaraz. Baina guk, Tolosaldekok baginen lau, guk izorratzen genuen. Zenbat egiten dugu euskaraz? Igual % 80, baina guk gure artean, guk sartzen genuen gaztelera" (Asier, 2021-05-17 - 1. saioa).

Ohiturak daude batetik, eta ohitura horien irakurketa bestetik. Asierrek lagunarte euskalduna nahi du, baina batetik, ohituta ez dagoelako, lagun batzuekin ez zaio ateratzen; bestetik, berriz, ez du aldaketako lider paper hori hartu nahi. Ez zaio gustatzen, astebete beranduagoko testigantza honek dioen bezala:

Asteburuan lau pertsona egon ginen mendian, txabola batean, eta orain kontziente naiz zer gertatzen ari den, eta denbora guztian euskara, erdara, euskara, erdara... hori beti besteen partetik eta ni une batean erlaxatzen baldin banaiz, ba erdarara pasatzen naiz, eta gero agian besteren bat hasten da euskaraz. Orduan da hori... berez euskaraz egin genezake dena baina, joera hori sortzen da. Eta hor ez nintzen haserretzen, pixka bat urrunetik begira nago kontuari, zeren, nire buruarekin gehiegi sartu gabe ba pixka bat gainetik ikusten, nola dagoen ingurua eta... zeren, entzuten dizuedanean zuei, ze egoeratan egon zaren tipo bat erdaraz eta bestea euskaraz... ni ja urduri ari naiz jartzen hasten naiz. Ja esaten dut, niretzako maila altuegia da (Asier, 2021-05-24 - 2. saioa).

Beldur da Asier, bere buruari helburu altuegiak jarri eta ondoren helburu horiek beteko ez ote dituen beldur. Horregatik, ez du bere burua taldetik tiraka ikusten; kontenplatzaile dago. Asteburuan, beste lagun batekin ere egon da, eta honako bizipena izan du:

"Eta igandean egon nintzen Eskolapioetako lagun batekin. (...) Iritsi nintzen eta dena euskaraz hasi nintzen ni, eta berak ere euskaraz jarraitu zuen baina, gero ja erdarara jo zuen eta hor ja bai hasten nintzela ni ez nintzela oso eroso sentitzen eta jarraitu nuen egun guztia euskara, erdara... *osea*, denbora guztian bueltatzen. Bueltatzen euskarara. Igual bera erdaraz, ni ere erdarara jotzen nuen eta berriz ai, hurrengo elkarrizketa berriz euskaraz hasten nuen. Eta hori izango da azkenean zailena. (...) Ni oraindik euskara gehiago, gehiago, gehiago... burugogorkeri horretan, hori niri... ni ja hor sartzen naiz pentsamendu horrekin «eta honekin nora hoa» agian bestea ez da jabetu ere egiten eh! Ez du pentsatu ere egingo nahita ari naizela, seguru, badakit; (...) baina barruan badago zerbait... (...) hor... ba sentsazio hori ekartzen didana. (Asier, 2021-05-24 - 2. saioa).

Kasu honetan euskaraz gehiago egin behar horrekin deserosoago sentitu da Asier. Eta Asierrek bere kontu propio bat balitz bezala bizi du. Berea, eta ez beste inorena. Astuna balitz bezala. Hori da menpeko jarrera duten pertsonen

pentsemenduetako bat: pentsatzea berari gertatzen zaionak ez duela garrantzirik, eta besteak ondo sentitzea dela garrantzitsuena. Asierrek, beraz, zapalkuntza bikoitza jasaten du: batetik, gazteleraz hitz egiten baldin badu eta ez baldin badu euskaraz egiten euskaraz ondo dakitenekin, gaizki sentitzen da, ezin du saihestu gaizki sentitzea; bestalde, euskaraz hizketan hasten baldin bada, berak dituen segurtasun ezak irudikatzen ditu besteen pentsemenduetan. Badaki ez dela horrela, badaki besteak ez duela hizkuntza-hautuan pentsatu, atera egiten zaiola. Baina nola Asierrek hizkuntzaren gaia presente daukan, iruditzen zaio besteak ere ohartu egiten direla.

Bi aste beranduagoko testigantza bat jarraian:

"Lau lagun elkartu gara umerik gabe lantxo batzuk egitera. Bi Eskolapioetako eta bi Ikastolako. (...) Eta orduan segun eta zeinek tira gehiago egiten duen hark bereganatuko du. Eta agian ba ni neu ere ez naiz, giro horretan, bordan, eta saiatzen naiz euskaldun giroa egon dadin.

Asteburu honetan beti bezala izan zen batzuk euskaraz eta besteak gazteleraz. Eta nik jotzen nuen euskara aldera. Eta haiek jotzen zuten apur bat euskarara baina, segituan, bigarren edo hirugarren esaldian erdarara berriz. Eta gero Ikastolakoa gaztelerara pasatu agian, eta ni ere erdarara eta hamargarrengo esaldian berriz, euskaraz sartu baina ezin... ezin... ezin... euskarari eutsi bazkari horretan. Errazegi pasatzen garela. Bi gaude euskaraz egiten dugunok gure artean, eta beste biek ni bezala dakite, baina ezinezkoa.

Komodo egon nintzen zeren niretzako naturala da baina, ez nintzen kontziente lehen hizkuntza batetik bestera, eta bestetik batera genbiltzala. Eta orain bai, banaiz kontziente. Lehen ez nintzen, eta erdaraz gehiago egingo nuen orduan, orain berriz ba euskarari gehiago eusten diot, erdarara ez dut hainbeste jotzen eta jotzen badut lehenago jabetzen naiz eta bueltatzen naiz eta komodo nago hauekin. Baina orain kontziente naiz. Eta grazia egiten dit «berriz ere ari gara ba gazteleraz» da nire jarrera. Gaizki sentitu gabe. Eroso. (Asier, 2021-06-07 - 4. saioa).

Egoeraren deskribapena aurrekoaren antzekoa da, baina bizipenak ez dira berdinak. Azken horretan lasai dago; egia da egoera aztertzen jarraitzen duela, baina lasaitasunetik. Bi aste lehenagoko testigantzek urduritasun gehiago transmititzen dute; orain, lasaiago ikusten du egoera. Bere burua erositasunean kokatzen ari da Asier. Azken saioan galdetu zaio, baina justu azken astean ez da egon lagun horiekin:

"Eta Eskolapio eta Ikastola eta hor ba ez dakit. Datorren aste-bukaeran daukat bazkari bat, eta ikusiko dugu hor zer gertatuko den. Batzuekin euskaraz egiteko joera daukat, besteekin gazteleraz egitekoa, eta ea zer gertatzen zen. (...) Zaila zait, haietako batekin kosta egiten zait 3-4 kaña edanda... ba ja kosta egiten zaigu euskarari eustea. Baina hitz eginda daukat, berez, euskaraz gehiago egiteko, (...) eta orduan erdarara jotzen badugu ere, ohartu, pasatu euskarara eta segitzen dugu. Gehiago da txipa joatea, ni deseroso sentitzea baino. Baina beste batzuekin badirudi borrokan nagoela-edo (Asier, 2021-06-21 - 6. saioa).

"Gehiago da txipa joatea, ni deseroso sentitzea baino". Garrantzitsua da hori Asierri entzutea, aurreko saioetan txipa mantentzeko ahalegina jada handi geratzen baitzitaion; orain jende jakin batekin, bereziki landu duenarekin, helburu doitua da.

Jarraian, lkerren testigantza bat txertatu da, helburuak doitzeaz ari delako: norberak zer presio jartzen dio bere buruari:

"Gogoratu naiz astean zehar gorputzaren jarreraz, eta umore apur batekin hartzen saiatu naiz, eta egia esan niri funtzionatu dit. Karga kentzen diodan edo inportantzia kenduz eta egiten dudana hobeto egiten dut. Garbiago hitz egiten saiatzen naiz eta ondo.

Aurreko astean (...) ze jarrera hartu ez niela nengoela ikusten nuen. Gaizki ez nuen geratu nahi eta horrek barruan halako zerbait sortzen zidana nahiz eta euskaraz egin tentazio moduko bat erdaraz egiteko (...).

Eta lehen aipatu dudan umoreaz, agian alderdi bat baino gehiago ditu. Bat da aurreneko jarrera, sinpatikoago azaltzea. Baina horrez gain, konturatzen naiz nire buruari uzten badiot erdaraz gehiago egiten, kasik gero euskaraz gehiago egiten dudala. Hau da, derrigortasuna kentzea bezala nire buruari. Ez da ezer gertatzen erdarara jotzen badut. Mantra hori izan gabe «koherentzia mantendu behar dut egun guztian» eta... eta gero zer da, eta konturatzen naiz ez dudanean koherentzia mantentzeko zera hori, koherenteago naizela.

Umorez ari naiz esaten baina da: umorez, baina serio. Umorez bai, baina ez inportantziarik ez duen gauzetan, nik ere nire zera daukat, eta nik ere nahi dut sentitu ondo nik euskaraz egiten dudanean, eta ez naizela ari zu erasotzen euskaraz egiten dizudalako. Hiltzera baldin bazoaz ulertzeko moduan zer edo zer esango dizut, lagunduko dizut. Ez dela zera... Niri nirea baino interesgarriagoa egiten zait zuek esaten duzuen. (Iker, 2021-05-31 - 3. saioa).

lkerrek gakoan jo du. Estuegi hartzeak jarrera asertiboa izaten gutxi laguntzen du. Asertibitatea baldin bada norbera den bezala agertzea, norbere izaerari izaten uztea; estututa norberak berea eman baino gehiago, hanka sartzeko beldurra izan lezake. Eta horretan, lkerri jolas-modura hartzeak lagundu dio; baita Asierri ere, aurreko testigantzan esan bezala. Hori da asertibitaterako bidea. Noski, egon daitezke tentsiozko momentuak, erantzun txarren bat jasotzea posible da momenturen batean edo bestean, baina egoera gehienetan solaskidea ez da jabetu ere egiten. Asierrek aipatzen du behin eta berriz, uneorokoa dela hizkuntza-aldaketa, beraz, horrek adierazten du parekoa ez duela hizkuntza batek edo besteak deseroso jartzen.

Gauzak lasaiago hartzea garrantzitsua da beraz. Atal honetako gaiarekin jarraituz, eta Asierren testigantzetara itzuliz, bi helburu ditu hizkuntza ohiturak aldatzeko atal honetan; lagunena aurreko lerroetan aztertu da, lankideena, berriz, datozen lerroetan:

"Bi errelebotan egiten dut lana, (...) eta aste batean talde batekin lan egitea tokatzen zait, eta hurrena bestearekin. (...) Bat ezinezkoa da, euskara ulertzen ez dutenak (...), baina bestea... erronka hori jarri diot nire buruari (...). Astean

zehar, buruan argi neukan Aimarrekin³ egin behar nuela. Bera euskalduna, emazteak ez dio euskaraz egiten eta berari kosta egiten zaio baina, dauka jarrera oso ona euskararekiko. Eta ez nion ezer esan, inori ez diot ezer esan, nola bost asteko kontua den, proba egiten ari naiz inori eze esan gabe, eta ea nik ze joera dudan. Eta Aimar honekin eta beste batekin, lantokian, hasiko naiz badakidala hauek euskaraz badakitela. Eta orduan hasi naiz euskaraz, (...) eta bera bat-batean euskaraz hasten da, eta kolpean pasatzen da erdarara; eta nik egiten dut euskaraz, eta bera pasatzen da euskarara, berriz erdarara, eta ni euskaraz... eroso sentitzen naiz aproba bat egiten ari naizelako, eta nago denbora guztian nire burua kontzentratuta, *benga* eutsi honi, ea zer gertatzen den eta berak nola badakidan badakiela euskaraz eta jarrera ona daukala, ba bueno, joan nintzen aste guztian bai Aimar honekin eta bai laneko beste batzuekin, ba dena horrela euskaraz (Asier, 2021-05-24 -2.saioa).

Asierrek, lehen asteetan, lanekoekin errazago daramala ematen du lagunekin baino, behintzat hasieran hori esan du. Bi aste beranduagoko testigantza jarraian:

"Aimarrekin-eta talde txikikoekin erosoago nago. Pixka bat, behin, bi aldiz edo hiru aldiz euskaraz eginez gero ja lortzen dut... ez dudana lortzen da talde handiagoan, hamaiketako egiten hasitakoan... erdaldunak eta daude tartean, eta erdaraz nekez egiten dutenek ere ez dute euskaraz egiten. Horrek ere inpresioa egiten dit ba niri eh! Baina, bakarka nagoenean, elkarrizketa motzetan, orduan erraz eramaten dut. Hasieran gehiago kosta zitzaidan, baina hura erdaraz hasi, gero ni euskaraz, hura euskaraz, euskaraz, hirugarren esaldian erdaraz, nik laugarrenean euskaraz, eta hark berehala zuzentzen zuen, eta hasieran agian pixka bat egoera *fortzätzen* ari naizela, eta orain ja asteak pasatzen ari dira, eta ni ere bai ja jende horrek adierazten didana, beraiek ere... Euskaraldian txapa eraman izanak direla... ba ez didate hainbesteko inpresioa egiten" (Asier, 2021-06-07 - 4. saioa).

Asierrek ezin du elkarrizketa elebiduna luze mantendu, behar du bestea bere hizkuntzara pasatzea; simetriarako joera dauka. Baina apur bat eusten dio, badakienean parekoa euskarara lerratuko dela; besteak ere bi hizkuntzak dakizkienez, besteak ere simetriarako joera izango duela. Hori ulertu du Asierrek eta ahalegin hori egiten du. Egia da, askotan, bere esku ez dagoena aldatzen ahalegintzen dela: besteen hizkuntza. Baina beharrezkoa zaio besteek aldatzea, osterantzean ez da gai euskarari eusteko. Baina lau asteetan urrats handia eman du lantokian. Bi aste beranduagoko testigantza, azken astekoa jarraian:

"Aimarrekin elkartu naiz gaur, eta iruditu zait elkarrizketa finkatu dela. Bera etorri zait euskaraz hitz egiten, biok euskaraz egin dugu, betidanik euskaraz egin izan bagenu bezalaxe. Begira ze kurioa... ni nola joan naizen aldatzen, eta bera ja pixkanaka euskaraz, eta bera euskaraz ari bazait nik ja ez daukat arazorik, berak erdaraz eta nik euskaraz egitea ez zait erraza. Baina, ja aldatzen, aldatzen eta aldatzen, bera etorri zait euskaraz, eta horrela bai! Badirudi bion artean erosotasunera iritsi garela. Eta gero beste *frente* hori daukadana, hor jarraitzen dut euskaraz egiago egiten kontziente nagoelako, baina ez naiz erosotasun horretara iristen. Mantendu nezake nik uste dut

³ Aimar ez da Asierren lankidearen benetako izena.

halere e, zeren nik nahi dut euskaraz egitea, gazteleraz ari banaiz ere ez nago gustura. (Asier, 2021-06-21 - 6. saioa).

Noski, ikerketa hemen amaitu da, baina Asierrek datozen asteetan ere lanera joan beharko du. Aimarrek oraindik, ziurrenik, egun batzuetan gazteleraz egingo dio lehen hitza; Asierrek lasai hartu beharko du, eta irabazi-galdu terminoetan ez du hartu behar kontua. Izan ere, oraindik gorabeherak izango ditu, eta bere lasaitasunean egongo da giltzarria. Berak eusten ote dion, edo ez. Euskaraz hitz egiten jarraitzeko erabakiarekin eta lasaitasunarekin jarraitzen baldin badu, lantokian izango du euskaraz aritzeko gune bat; baina lortuta duela uste badu, eta Aimar gazteleraz hastea porrot bat bezala ulertzen baldin badu, lehengo bizipenak berpiztu daitezke.

Finkatutako ohiturak aldatzeko saiakerekin jarraituz, jarraian Udaneren kasua aztertu da:

"Baina batzuekin, herriko bertako batzuekin, nahiz eta jakin ba euskaraz ulertzen duela, gazteleraz egiten diot. Azkenean pertsona eta hizkuntza jartzen ditugu, eta orduan ba, horregatik ikerketan parte hartzeko erabakia hartu nuen. Eta iruditzen zait, ez dira agian... nire eguneroko bizitzan ez naiz egoten beraiekin, baina egoten naizenetan hitz egiten dut beti erdaraz. Bai... orduan ba gauza txiki horiek aldatzea ba..." (Udane, 2021-05-17 - 1. saioa).

Helburu nagusietako bat jarri du hasieratik, herriko jende jakinarekin hizkuntza aldatzea. Ikerketan parte hartzeko motibazioetako bat ere izan da, beraz.

"Hitz egitea kostatzen zaidan horiekin Euskaraldian saiatu nintzen eta hasi nintzen. 11 egun aguantatu nituen, gero apur bat ere bai. Baina denborarekin... bigarren Euskaraldian Belarriprest txapa hartu nuen, ikusi nuelako horiekin gaztelerara asko pasatzen naizela eta deseroso nengoela.

Nik badakit bera ez dagoela deseroso: «bai bai egin lasai» esaten dit. Baina ni nago deseroso. Eta ez dakit zergatik! Kurioso da zeren lagun baten ama da eta lagun horrek erdaraz nik baino okerrago egiten du. Berak amari ere erdi euskara erdi erdara egiten die, alabak euskaraz egiten dio eta nik ezin dut joder! Ez dakit zergatik den. (Udane, 2021-05-17 - 1. saioa).

Ohiturak bakarrik ote dira? Beste zerbait ere ba ote dago hor atzean? Udaneren izaera ikusita, Madrildarrari euskaraz egiten dio, kuadrillan lehendik kaskagogor fama dauka... ez dirudi zailtasunik izan beharko zukeenik lagunaren amari euskaraz egiteko; are gehiago, jakinda, lagunak ere amari euskaraz egiten diola. Hirugarren saioan azaldu du nola joan zaion aurreko bi asteetakoa:

"Lehengo astean izan zen, ikusi nuenean lagunaren ama, erdaraz hasi nintzaion natural eta jabetu nintzenean aldatu nuen eta euskaraz egin nion. Berari ez zitzaion arraroa egin, eta niri hasiera batean bai, behartua izan zelako, naturalki lehenengo gazteleraz egin niolako. Baina gero ondo, ikusi nuen bere jarrera ere ona zela eta ondo. Ez zen izan elkarrizketa oso luzea eta oso sakona, baina ondo.

Asteburu honetan pasa zait gu terraza batean ginen eta bera balkoian. Inguruko guztiak erdaraz hasi zitzaion eta ni ere bai. Eta orduan, pentsatzen jarri nintzen, eta gero euskaraz egin nion, eta konturatu nintzen kuadrillako denek erdaraz egiten diotela. Eta alaba ere han zen, eta badakigu denok ulertzen duela baina... eta ni bakarrik izan nintzen euskaraz egin ziona, eta egia esan komodo, ez zen izan ezta elkarrizketa sakon eta luzea, balkoitik beherako elkarrizketa, *txorradak* eta abar baina... (Udane, 2021-05-31 - 3. saioa).

Beraz, badirudi arreta jartzea dela Udaneren gakoa; ez du ematen aparteko zailtasunik daukanik:

"Asteburu-pasa joan gara guztiok, eta Madrilekoa ere bai. Asteburu osoa elkarrekin pasatu genuen. Eta abiatu aurretik lagunaren amarekin egon nintzen. Eta karabana barrutik erakutsi zidan amak. Eta alabak aurrez galdetu zidanez, ez zen ustekabekoa izan. Pentsatzeko denbora eman zidan. Joan nintzen, euskaraz egin nion, kuadrillako besteek erdaraz egin zioten, nik euskaraz eta eroso egia esan; eta pentsatu nuen «kuadrillakoek badaukate ba euskaraz egitea eh!» alaba euskaraz ari zitzaion amari, eta lagunak erdaraz" (Udane, 2021-05-14 - 5. saioa).

Badirudi ez dela estres linguistikoaren kontua, gehiago dela hizkuntza-ohiturarena, lagunaren amaren kasuan; Arreta jarri izanak ja ohitura aldaketa badakarrelako. Maiztasunarekin ez elkartzean ohitura finkatzea zailduko dio aurrerantzean ere, baina lortu du helburuetako bat.

Orzurik erronka bat baino gehiago ditu hasieratik atal honetan. Baina batez ere, hasieratik landu nahi duena ikastaroko irakaslearena da:

"Hemendik ateratakoan ikastarora joan behar nuen. Justu klase horretan pertsona berri bat ikusi nuen, eta hark hasierako 10 minutuetan giro erdalduna ikusi zuenez, eta abar zuzenean erdarara pasatu zen. Eta nik berarekin ez nuen hitz egin, irakaslearekin etortzen naiz etxera, eta orduan hitz egin nuen irakaslearekin, galdetzen dit zer moduz astea eta horrela, eta nik neukan ohitura euskaraz hasi, eta erdarara pasatzekoa segituan, kostatzen zaidalako asko elkarrizketa elebidunak mantentzea. Eta sorpresa, berak denborarekin, erdaraz jarraitu zuen, baino euskaraz jarraitzen zidan. Kostatzen zitzaion euskaraz egitea esaldiak ondo osatzea, baina euskaraz egiten zidan. Gero momentu batzuetan erdarara pasatzen zen. Baina ikusten zuenean nik euskaraz jarraitzen nuela, berriro euskarara bueltatzen zen. Eta berriro erdarara, eta berriro euskarara, eta hori lehenago ez zitzaidan pasatzen, beti ni nintzen erdarara jotzen zuena. Eta orduan ba rol aldaketa hori, nik aldatu beharrean berak aldatzea. Eta hor ba hasiera batean ba hori kristoren sorpresa hartu nuen (Orzuri, 2021-05-24 - 2. saioa)

Orzuri lehenagotik ahalegindu izan da bere irakaslearekin euskaraz egiten, baina ez da euskaraz jarraitzeko gai izan. Berriz, bigarren saioan aipatu du, gehiago eutsi diola, eta irakaslea bera izan dela euskararako zantzuak egiten hasi dena. Maiatzeko esperientzia da, irailetik partekatzen dute kotxea, eta lehen aldia da Orzurik aldaketa nabaritu diola. Halere, guztia ez da hain erraza izan:

"Baina gero ikusten nuenean igual ez zela hain ondo moldatzen euskaraz, (...) bai pasatzen nuen gaizki, edo barruko sentsazioa zen «haber esaldia bukatzen duen...» edo, nahi gabe konturatzen nintzen ai hor gaizki esan du aditza, edo... «k» falta zaio edo... eta pixka bat sentimendu hori «sufritzen ari da niregatik» baneukan sentimendu hori. Baina, ni nintzen sentitzen zena, ai ama... ze gaizki ai den pasatzen ze gaizki... eta agian ez zen gaizki pasatzen ari, agian ni nintzen gaizki pasatzen ari zena beragatik; eta kitto! Eta orduan izan zen apur bat sentimendu kontraerriak edo, baina nik nirearekin jarraitu nuen. Eta orduan hori behintzat lortu nuen. (...)

Nik nahiago dut momentuz ez ezer esan zeren, harritu egin ninduen bere erantzunak eta orduan nahiago dut ikusi ea nola jokatzeko duen. (Orzuri, 2021-05-24 - 2. saioa).

Deserosotasunaz hitz egindakoa partaide batek proposatu dio irakaslearekin harreman ona duenez gero, eta pertsona oso ulerkorra denez gero, barne-zalantza horiek galdetzea interesgarria izan daitekeela. Horregatik azken paragrafoko erantzun hori. Orzurik bere burua aproban jarri nahi du. Irakaslearekin izan duen hizkuntza-ohitura aldatu nahi du, baina aldi berean, beste hizkuntza-ohiturak aldatzeko aurrekari ere izatea nahi duenez, ez du biderik errazena hartu nahi.

Eta aurrez esan duena, euskaldunari sarritan gertatzen zaio: bestearen maila txikiarekin sufritzea. Hori lotuta doa estres linguistikoarekin, menpeko izatearekin, jarrera ez asertiboarekin. Pentsatu beharrean "niri esker euskara praktikatzen ari da", euskaldunak "gaizki pasatzen ariko da, gaixoa" pentsatzen du. Hori guztia joan da lantzen Orzuri. Hona hemen hurrengo asteko saioan esandakoa:

"Bestetik, izan zen ikastaro berri bat, kristoren saioa izan zen. Eskerrak joan nintzen. Sentsazio berri bat izan nuen. Ta nengoen super... oso oso pozik. Plazerarekin, Eta nengoen nire munduan. Furgonetan sartu nintzen, eta betikoa "Orzuri, zer moduz...?" eta zen sentsazioa pixka bat nengoela bakean, eta egon nahi nuen nire munduan. Orduan ez nuen asko hitz egiten, baina hitz egin nuena eskaraz. Eta berak niri erdaraz egiten zidan, (...) eta berak niri erdaraz egiteak ez zidan arazorik suposatu. Nik euskaraz jarraitzeko... hain ondo nengoen... igual zidala denak. Hain konektatuta nire buruarekin... ondo nengoela. Ez zidan eragin berak erdaraz egiteak.

Kontatu nion izan nuen sentsazio berria eta pila bat gustatu zitzaion, eta esan nion ba hurrengo klase berrian guztiaren aurrean kontatu nahi nuela nire sentsazioa. Eta hurrengo astea iristeko desiratzen nire sentsazioa kontatzeko. Zeren, egia da ez dudala asko parte hartzen, eta hainbeste denbora eta gero, ba gogoia izaten dut parte hartzeko, eta ea nola erreazionatzen duen nire gorputzak, nire buruak... (Orzuri, 2021-05-31 - 3. saioa).

Nork bere buruarekin konektatzen duenean, nor bere buruarekin bakean dagoenean, astebete lehenago egoera deserosoa dena, eroso bilaka daiteke. Baina norbanakoaren harmoniak ez du luze irauten, eta hurrengo saioan taldekoek berehala galdetu diote ea zer moduz joan zaion esperientzia:

"Egia da lehengo astean komentatu genuen simetriarako joera hori, ikastaroko hasierako 10 minutuak ditugu hitz egiteko. Nik apenas hitz egiten dut, baina lehengo astean hitz egin nuen, eta konturatu nintzen nik hitza hartu eta gero, batzuk izan zutela inizatiba-edo, (...) euskarara pasatzeko eta esaldi batzuk euskaraz egiteko, hau da, iruditzen zitzaidan igual ez dala... simetriarako joera hori agian, baina nik ja dena euskaraz eginda, nahiz eta irakasleak erdaraz egin, eta ba batzuk bai hasi ziren euskaraz egiten eta horrek bai eragin zidan... zeren bestela ja denak zuzenean erdaraz eta... (Orzuri, 2021-06-07 - 4. saioa).

Irakaslearekin bakarkako hizkuntza aldatzea aski ez, eta talde osoaren aurrean hitz egiterakoan euskaraz egitea erabaki du, eta horrek eragina daukala ematen du. Orzurik indar handia dauka, borondatea ere bai, askotan helburu doitua jartzea falta zaio; bere buruari gehiegi eskatzen dio. Baina kasu honetan, apurka joan beharrean, talde handian euskaraz egin izanak lagundu diola ematen du.

"Ikastaroan, egia esan nik 10 minutuko saio horretan euskaraz bota nuen bota beharrekoa, eta ez nintzen egon ea ulertzen zidaten edo ez, hau da ikusten nuen entzuten ongi ari zirela, eta ez zidatela galdetzen ezer, eta gainera irakasleak nik esaten nuenari gehitu egiten zizkion gauzak, eta orduan neukan sentsazioa «ba ba benga, dena ulertzen du beraz...» ez nengoen... eta gero furgonetan oso ondo. Berak ere sekulako *espitxa* sartu zidan gainera, eta ikusi nuen ondo, berak ere euskaraz, aurrekoan bezala, euskarara pasatzen zela tartetxo batzuetan. (Orzuri, 2021-06-07 - 4. saioa)

Beraz, aurreko asteetan ikusten joan den bezala, irakasleak ulertzen du eta gainera, euskararako keinuak egiten ditu. Badirudi irakaslea eroso dagoela, eta Orzuri harro bere urratsarekin. Eta ondoren datorren testigantza, ikerketako azken saioaren hurrengo egunekoa da. Orzurik testigantza hau bidali du:

"Atzo sekulako sorpresa izan nuen. Ikastarora joan nintzen, eta nik nabari nuen giroan euskara gehiago entzuten zela. Denak atzo euskaraz hasi ziren, elkarrekin hitz egiten, 10 minutuko ronda horretan. Irakasleak erdaraz egiten zuen, baina euskaraz jarraitzen zuten eta horrela, haien artean hizketan. Gero zuzenki irakasleari zuzentzeko garaian, adibidez, pertsona bat ari zen euskaraz, baina irakasleari zuzentzeko garaian euskaraz. Irakasleak esan zion: «ez ahal duzu euskaraz egin e, ulertzen dut» eta ni «a bueno...» eta erdaraz jarraitu zuen eta «ez, ez, euskaraz egin» eta gero ja esan zuen «ja eske ohitura daukat» orduan ja pixka bat hasi ziren erdaraz, baina gero berriro euskaraz... pila bat harritu ninduen irakaslearen erantzunak. Hau da, gainera esan zuen «ez, ez, ulertzen dut...» eta gero berriz esan zion «egin euskaraz» ez dakit, harritu egin ninduen eta kristoren poza eman zidan. Eta hori, berez hurrengo astea da ikastaroko azkena, orduan ezingo dut ezta jarraitu aurrerapausoak ikusten, baina tira hurrengo urtean izena emango dut berriz eta aurtengo esperientzia hau izanda, hurrengo urtean ere hala jarraituko dut euskaraz egiten egin beharrekoa, eta ea zer gertatzen den" (Orzuri, 2021-06-22 - 6. saioaren ondoren bidalitako audioa).

Ikerketa honetan aurrerago landu da inguruari eragiteko gaitasunari, baina Orzurik ez zekien irakasleak ulertzen ote zion edo ez; eta, azkenean, irakaslearekin zuen furgonetako hizkuntza bakarrik ez, talde osoaren hizkuntzan ere eragin du.

Orzurirekin jarraituz, Orzurik erronka potolo bati heldu dio: familiakoekin duen hizkuntza-ohiturak aldatzeko asmoa dauka. Ez du lehen egunean esan, lehen egunean, aurkeztean aitarekin zaila izango litzatekeela aipatu du, baina ez asmo hori duenik: "bai baditudala, ba nire aitarekin, edo euskaraz ulertu bai baina hitz egiten ez dutenekin, ba hasten naiz igual euskaraz egiten, baina gero segituan erdarara pasatzen naiz" (Orzuri, 2021-05-17 - 1. saioa). Bigarren saioan ordea, gurasoekiko hizkuntza-ohitura aldatzea planteatu dio bere buruari:

"Nire ama hizkuntzak euskara eta erdara dira, eta ez naiz eurekin bizi, eta ez naiz astean zehar egon baina WhatsAppen hasi nintzen idazten, eta erdaraz idatzi nuen automatikoki eta izan zen ai ene "eliminar para todos" eman nion, eta umorez hartu nuen, eta gero ahizpak erantzun zuen, eta ahizparekin euskaraz egiten dut, beraz..." (Orzuri, 2021-05-24 - 2. saioa).

Lehen saiakera idatziz egin du, eta taldean. Estrategia ona da hori. Talde horretan, euskarazko harremana daukazu batzuekin dagoen talde horretan, euskaraz egitea. Orzuri ez da gurasoekin bizi, eta apenas ikusten ditu. Handik bi astera esandakoa da hurrengoa:

"Eta gurasoekin hitz egiterakoan pasatzen zait, (...) eta hor izaten dut, bufffffa... adibidez automatikoki gazteleraz idazten hasten naiz, eta gero borratu egiten dut guztia, eta idazten dut euskaraz eta bidaltzen dut eta joe... ez dit inongo momentutan galdetzen, ez duela ulertzen ezta horrelako ezer, berak ez du egiten euskaraz bere *inseguridadeengatik* baina... beraz, oraindik badaukat hor... (Orzuri, 2021-05-07 - 4. saioa).

Astebete beranduago bi gurasoekin ez, baina amarekin egon da. Aitak ez bezala, amak euskaraz ulertzean gain, hitz egiteko gaitasuna ere badu:

"Gurasoak % 50ean. Amarekin egon naiz eta lagunekin ere bai, lagunekin nagoenean beti egiten die amak lagunei euskaraz eta ondo, hor. Eta etxean gero % 90a euskaraz egin dugu biok. Amak badaki ze borroka daukadan hizkuntzarekin eta nire senideei baino gehiago egiten dit niri euskaraz. Oso eroso egon naiz, eta harritu egin nau horrek ere. Ez naiz erdarara pasatu, eta aitarekin berriz ba % 50 inguru. Amari ateratzen zaio euskaraz egitea eta harritu egin nau. Txikitan erdararako joera zeukan, orain euskarara pasatzea arraroa egiten zait" (Orzuri, 2021-06-14 - 5. saioa).

Orzuriren amak badaki Orzuriren hizkuntza-gatazkaren berri, eta alaba euskaraz hasi zaionean euskaraz erantzun dio. Ama-alaben arteko hizkuntza-ohiturak hitz egin gabe aldatzea ez da erraza, baina Orzurik egun horretan behintzat lortu du. Aitarekin ere, aitak gazteleraz egin arren, Orzurik lortu du bere jardun erdia euskaraz egitea.

"Nik gurasoekin jarri nuen %50 edo pixka bat gehiago egitea, nire sorpresa aitarekin egon naizela eta %50 baino gehiago egin dudala euskaraz, eta asko pozten naiz. Ia dena euskaraz egin dut, bai agian esaldi batzuk erdaraz baina... harritu nauena da, saiatu izan naiz lehen ere, eta inoiz ez naiz eroso sentitzen, baina orain bai. Orain ondo sentitu naiz, aita ere hala ikusten nuen, eta hala segi nuen. Amarekin ere bai, guztia euskaraz egin dut.

Aita inoiz ez dut ikusi, horrela... gaitasuna badu ulertzeko, gehiago zen gure ohitura, eta horregatik pertzepzioa «agian ez du ulertuko» baina, bai ulertzen du. Lehen ez nuen lortzen, nekatu egiten nintzen eta... baina orain ondo. (Orzuri, 2021-06-21 - 6. saioa).

Orzuri bere beldurrei, banaka-banaka ari da erantzuten eta banaka-banaka atzean uzten ari da. Gurasoekin erronka jarri duen bestea, Eguzki izan da: "izatekotan nire gurasoekin izango da, beste guztian ez daukat..." (Eguzki, 2021-05-17 - 1. saioa) esan du lehen saioan, aurkezpenean eta ondoren:

"Gurasoekin erdaraz egiten diet. Ni ariketa honekin saiatuko naiz gurasoekin egiten. Baina egia da ohitura horri aurre egitea tokatu zaidala lana. Gehien kostatzen zaidana amarekin da" (Eguzki, 2021-05-17 - 1. saioa).

Hirugarren saioan izan da berriz Eguzki, eta honakoa esan du:

"Eta gero ere bai amarekin bai ez dudala lortu hizkuntza aldatzea. Hasieran agian hasiko naiz idatziz, hori izan daiteke hasteko puntu bat. Amarekin hizkuntza aldatu nahiko nuke baina, asko kostatzen zaidan gauza bat da. Igual ezezagun bati ba euskaraz hastea eta horretan jarraitzea burugogor-edo ez dit esfortzua suposatzen" (Eguzki, 2021-05-31 - 3. saioa).

Bigarren saioan Orzurik idatzia aipatu du, eta hirugarrenean ere gaia atera denean Eguzkik ideia hartu du, eta lehen saiakera horretan egitea erabaki du. Halere, ez du helburu garbirik jartzen. Nahi du, baina norberak baliabideak behar ditu ohitura horiek aldatzeko. Aurreko atal batean aipatu da, nola merkataritza-zentro handi batean, besteetan ez bezala egin duela euskaraz; baina amarekin ez da ahalegindu orain arte.

Azken saioan izan da berriz Eguzki. Amaz galdetuta honakoa erantzun du:

"eta bestetik erronka handiena zen, amarekin euskaraz zeozer hitz egitea eta WhatsApp ez izan ditut elkarrizketa batzuk euskaraz egitea. Egia da jabetu naizela zen oso oso zaila dela ohiturak aldatzea..." (Eguzki, 2021-06-21 - 6. saioa).

Ezin izan du Eguzkik amarekiko elkarrizketetan hizkuntza aldatu. Zergatik galdetuta ez da gai erantzuteko. Ez du uste errespetu falta denik. Gainerakoekin bai, baina amarekin ezin duela ikusi da. Norberak egin behar ditu bere hizkuntza-hautuak eta horrekin lasai geratzea da helburua. Eguzkik ez du Orzurik edo beste batzuk bezalako grinarik azaldu etxearekin dituen hizkuntza-ohiturak aldatzeko, eta gustura sumatzen da; horrek balio du.

Asierrek garrantzia txikiagoko beste aldaketaren bat egiteko helburua ere jarri dio bere buruari:

"Eta lehengo astean helbururik gabe atera nintzen eta gero ja beste helburu bat jarri nion nire buruari, txakurraren bueltan, han ikusten dudan batekin egitea, esan didatelako euskaraz badakiela. Orain arte erdaraz egin izan genuen baina... eta tokatu zitzaidan, hasi nintzen euskaraz, eta bera ere euskaraz, baina senarrarekin erdaraz egiten du, eta ni ja hor deseroso, kosta egiten zait". (Asier, 2021-06-21 - 6. saioa)

Asierrek aurrerapauso garrantzitsuak eman ditu, baina oraindik ez da gai elkarrizketa elebidunak mantentzeko. Momentu puntaletan bai, besteak euskararako keinuak egiten dituenen bai, baina bestea gazteleraz ari bada, Asier ez dago eroso euskaraz. Besteak keinurik egin ezean "bere kontutzat" hartzen du hizkuntzaren garaia Asierrek, eta bestea deseroso egon daitekeela pentsatzen du. Bere burua lasaitzeko estrategiak praktikan jartzen ari da, ordea:

"Baina, hor truko bat badaukat, azken aldian proban jartzen ari naiz (...). Umeen aitzakian, umeei euskaraz egiten diedanez uneoro, eta nik erdarara ez jo, umeen aitzakian. Eta estrategia hori amonarekin-eta ere erabili izan dut: nik ez dut hizkuntza aldatuko, nire umeak hemen dauden bitartean. Hori niretzako babesa da, ezkutu bat da. Hor eroso nago. Nire umeekin ez dut gazteleraz egingo. Eta horrek indarra ematen dit beste baten aurrean baldin banago euskaraz egiteko, umeekin nagoelako. Hor errazago mantentzen naiz. Umeak ez baldin badaude, arazo batean ni bakarrik sartzen naizela sentitzen dut eta ez nago eroso. Eta hortik apur bat. (Asier, 2021-06-21 - 6. saioa).

Norberak bere buruari arrazoiak eman behar dizkio euskaraz egiteko. Marko teorikoan ikusi denez, norbanakoak hiru mailatako estrategiak garatu ditzake, eta horietako bat da psikologikoa. Baliabide psikologikoetako bat da norbere buruari arrazoiak ematea euskaraz egiteko. Noski, arrazoi horiek norbera konbentzitu behar dute, sinesgarriak izan behar dute. Ikerketaren bideratzaileak apenas eman dizkie baliabide psikologikoak, interesgarriena, partaideek haien artean laguntzea delako. Asierren kasuan bere ekimen propioz aurkitu du haurren babesa. Haurrek zilegitasuna ematen diote, Asier eroso dago haurren aurrean euskaraz eginda; kontrakoa egiten zaio bortitza. Beraz, bere egunerokoan aldatu nahi dituen hizkuntza-ohitura horietarako haurrekin dagoenean elkarrizketa batzuk sortzea estrategia aproposa da. Eta elkarrizketak sortzea izan daiteke bestela ere haurren aurrean hitz egin ohi duen pertsona batekin, amonarekin edo izebarekin, esaterako; edo izan daiteke, beste testuinguru batean hitz egin izan duen jendearekin haurrak inguruan daudela hizketan hastea. Norberari balio behar diote estrategiek; ez dago denentzako balio duen estrategiarik.

Atalarekin amaitzeko, Dunixeren beste bizipen bat. Atal honetan kokatu da, nahiz eta oso finkatutako harremanak ez izan:

"Eta gero, (...) autobusetik jaitsi lantokirako bidea beste batekin egiten dut egiten dugu, minutu bateko ibilbidea. Erdalduna da. Nik inoiz ez diot euskaraz hitz-erdirik egin, baita ere esaten nuen «zergatik ez diozu esaten?» (...) ni harekin goizean goiz elkartzen naiz eta minutu bateko elkarrizketagatik borrokan hasi behar al dut? Ez daukat indarririk goizean goiz. Minutu bat eta esaten dut «Dunixe, orain, utzi». Baina noizbait suertatzen bazait beste egoeraren bat, langileekin hitz egitea tokatzen zait eta horrelako zerbait suertatzen bazait, ados. Baina minutu baterako? Ez naiz erotzen. Ez dut uste gaizki hartuko lidakeenik, (...). Eta... ostia... nire buruari barkatzen diot hori, momentuz. Hasieran ez nintzen kontziente baina, gero «ostras, honi beti gazteleraz egiten diot». Egia esan ni goizean ordu horretan ez naiz hitz askokoa izaten. «Si, guay, buen tiempo...». Minutu bat da eta ez zait ateratzen. Agian beste egoera bat balitz, agian bai." (Dunixe, 2021-06-21 - 6. saioa).

Dunixek argi dauka ez duela merezi goizean goiz minutu bat irauten duen elkarrizketa bategatik gaizki sentitzeak. Eta hori da bidea, norberak jakitea zein elkarrizketa aldatu nahi dituen, bestela gaizki sentitzen delako; eta zein diren lehentasunetan azkenekoak, edo aldatzea ere merezi ez dutenak.

Ezarrita dauden ohiturak aldatzeko ahaleginean Dunixek ezusteko pare bat elkartzeko izan ditu, eta beregan ohikoa den moduan, ezustean ez du erreakzionatzen jakin izan. Aldiz, txakur-hezitzailearekin, pentsatzeko eta prestatzeko aukera izan duenean, aldaketa nabarmenak izan ditu eta urratsak eman ditu. Halere, lantokira bideko hizkuntza-ohitura ez aldatzeko erabakiarekin garbi ikusten da bere indarrak eta, aldi berean, lehentasunak markatzen badakiela; eta hori oso garrantzitsua da. Asierrek bi gunetan aldatu nahi ditu finkatutako ohiturak: lagunartean eta lanean. Lagunartean bere jarrera lasaitzea lortu du prozesu guztian zehar, halere, Asierrek elkarrizketa elebidunak mantentzeko duen zailtasuna kontuan hartuta, zaila izango da erosotasun horri eustea. Oraindik kanpoko motibazioa behar du, gainerakoan, orain badago eroso, baina arreta galtzen duen momentuan lagunetikiko simetriara jotzeko arriskua dago. Bestalde, lantokian bai, errelebo batean, eta batez ere Aimarrekin, gaztelerazkoa zen harremana euskarara ekartzea lortu du, eta finkatu dela ematen du. Horrez gain, Asierrek haurren babesean hizkuntza-ohitura batzuk aldatu ditzakeela ematen du; ezkutu ona aurkitu duela, babesa ematen diote bere seme-alabek eta seguru sentitzen da. Udanek ere lagunaren amarekin zeukan ezina, eta ohitura guztiz finkatzeko denbora gehiago behar bada ere, lehen ezinezko zitzaiona lortu du ikerketan zehar. Orzuriri dagokionez, irakaslearekin elkarrizketa elebiduna deserosoa zitzaion hasieran, eta amaieran, elkarrizketa elebiduna eroso izateaz gain, taldearen hizkuntza-ohituretan ere eragin du. Horrez gain, Orzuri amarekin ere ari da hizkuntza-ohitura aldatzen, nahiz eta oraindik finkatzeko denbora gehiago beharko duten. Orzurik amarekin aldatu baldin badu ere, Eguzkik ez du lortu; ez daki zerk oztopatzen dion,

baina ezin du eta saiakerak ere gutxi egin ditu. Amaitzeko, Ikerrek ez dauka gaztelerazko harreman finkorik, eta beraz, ez da hemen azaldu.

BOTERE POSIZIOA DAGOEN, EDO EZ

Pertsonen artean botere-harremanak daude. Esaterako, denda batera sartzean, bezeroak boterea dauka, berak aukeratu dezakeelako; eta dendaria da eroslea ahalik eta erosoan egon dadin ahalegintzen dena. Modu berean, langilearen eta nagusiaren arteko harremanean nagusia dago botere-posizioan.

Gisa berean, beste hainbat harremanetan norbanakoak bere burua botere-posizioan kokatzen du, edo ez. Ikerrek adibidez, anaiari lantokian laguntzen dio batzuetan eta Iker bera da eremu horretan berria, kanpotik doana. Horrez gain, bere anaiak enpresan duen postuak, eta beste batzuk dutenak ere eragina dauka. Hor egokitu beharra sentitzen du:

"Anaiarekin joan nintzen (...) eta joera dago euskaraz jakinagatik erdaraz aritzekoa. Anaia da eusten dion bakarrenetakoa. Baina, nik beti esaten nion hain zaila ez balitz bezala. Baina konturatu nintzen batzuk daukaten estatusagatik sekulako indarra hartzen dutela. Enpresan daukaten karguagatik edo, eta ni nola kanpotik hurbiltzen naizen horra, eta nola ni ez naizen inor, ba, ezin banu bezala gatazka horretan sartu-edo sentitzen dut (Iker, 2021-05-24 - 2. saioa).

Ikerrek ikusi du euskarari eustea ez dela hain erraza, nahiz eta berak aurrez hala uste izan. Botere-posizioak, Ikerrek hartutako jarrerak bere anaiaren lan-harremanetan izan dezakeen eragina... egia da Ikerren barruan gatazka dagoela, baina gatazka hori modu asertiboan plazaratzeak, barne-gatazka arindu dezake eta kanpoan ezer ez gertatu; edo barne-gatazka azaleratzeak kanpoan ere gatazka sortu dezake. Ez du zertan, baina barne-gatazka bizi duenak beldur hori izan ohi du:

"Gero ez dakidana da gatazka bezala biziko ote luketen, ez dakit zergatik bizi beharko luketen hala, baina... konturatu nintzen ez banuen apur bat gogor egingo nire baitan, sartuko nintzatekeela ni ere hor erraz erdaraz egiten. Eta atzo momentuan, konturatu nintzen ia ia erdaraz hasi nintzela, ez nuen egin, baina egin izan banu bezala; niretzako izan zen euskaraz egin diot baina, ai ene... larri-larri. Momentuan konturatu nintzen joera daukadala, eta da uste dut lotuta dagoela daukadan konplexu horrekin (Iker, 2021-05-24 - 2. saioa).

Bera ere kontziente da bere barruko beldurrak izan daitezkeela, eta euskaraz egin du. Barne-gatazka ez du esplizitatu, baina euskaraz hitz egin du, eta Ikerrek ez du ikusi inor mindu denik, ez inork gaizki hartu duenik. Guztiek ulertzen dute euskara, baina Ikerrek ez du bere burua nor sentitzen, taldeko hizkuntza aldatzeko; egin du ordea, eta ez du gatazkarik sortu.

Ikerrek kasu horietan, eta beste askotan ere bai, zigor bikoitza pairatzen du. Hau da, hautatzen duen bidea hautatzen duela, gaizki sentitzen da:

"Gero ez da hori bakarrik, zeren baita ere da, ni euskaraz hobeto adierazten naiz, niretzako naturalena hala egitea da *joder*, erdaraz ere konplexuarekin. Euskaraz egiten badut eta erdaraz egiten badut, dena konplexuarekin" (Iker, 2021-05-27 - 2. saioa).

Bigarren saioa egin den astean, berriz tokatu zaio anaiari lanean lagundu beharra, eta astebete beranduago honako esperientzia kontatu du:

"Oraingoan tokatu zait errioxar bat, ez du ulertzen, *xerbait* agian baina, oso gutxi; eta beste guztiak euskaldunak. Sei lagun. Eta alderantziz, euskaldunek euskaraz egiten zuten errioxar bat han egon arren. Kurioso da ni nengoela deseroso, hura eroso sentituko ote zen edo... zeren gainera bere mugikorrean ari ginen Giroa ikusten, egoera hartan, pixka bat horrela egon zen, uste dut batek galdetu zion ea ezer ulertzen al zion, eta besteak erantzun zion «asmatzen dituzun hitzak ez baina beste guztia bai» txistea egin zion eta han ja lasaitu nintzen, Eta berriz gakoa izan zen bat esplizitatzea, eta bestea grabetik ez hartzea." (Iker, 2021-05-31 - 3. saioa).

Lantoki berean, lankideak aldatu ohi dira, eta bi egoera bizi izan ditu bi astetan Ikerrek. Bietan sentitu du hizkuntza-gatazka: lehenengoan, euskaldunak haien artean gazteleraz ari direlako eta ez dakielako euskaraz hitz egin edo ez; bigarrean, berriz, euskaraz ari dira, baina taldean badago euskara ulertzen ez duen bat, eta haren mugikorraren bueltan dabilta, eta horrek Iker deseroso jarri du. Bietan, gehiago kezkatu da besteek zer esango ote duten eta nola sentituko ote diren, bere egoera pertsonalaz baino. Ikerrek dio, ordea, gaia esplizitatzeari lasaitu egin dela.

Ikerrek jarraitu du, hirugarren saio honetan ere bere estres linguistikoa azaltzen:

"Beraz, taldean euskaraz egiten genuen, eta hari zerbait esan behar bagenion erdaraz. baina ni ohartzen nintzen ez nintzela eroso sentitzen. Daukadala zerbait egin beharra... ni banintz bezala bestea deseroso sentiarazten duzuna. Sentsazio hori. Eta batetik, agian ez da horrela; eta bestetik, ari naiz pentsatzen zein dago hemen pentsatzen ni eroso ote nagoen erdaraz ari naizenean? Horrek asko eragiten dit, nik erdaraz ez dudalako euskaraz bezalako erraztasunik ezta gutxiago ere. Eta zein dago pentsatzen ni eroso ote nagoen edo ez? Eta ematen da jakintzat nik normal egin behar dudala eta eroso; eta ez da horrela. Eta daukat horrekin, ba aurrekoan aipatu genuen zera jarrerak, ideiak eta hori dena... eta ohartzen naiz ez daukadala «eta ni eroso nagoela zein jabetzen da?» ideia hori ez dudala oso indartua. Kontua da etortzen zaidanean lasaitu egiten naizela, baina ez dudala beti sinesten. (Iker, 2021-05-31 - 3. saioa).

Beraz, momentuak dauzka Ikerrek. Momentu batzuetan indartsu sentitzen da, bere burua jartzen du erdigunean, eta hori egiten duenean, ondo sentitzen da, barrua lasaitzen zaio; baina, gutxitan lortzen du bere burua erdigunean jartzea. Ariketa

maizago egingo balu, ohitzen joango litzateke ziurrenik, baina oraindik ezin du bere burua engainatu, esanaz, bere burua erdigunean jartzen duela:

Sinetsita dauzkat gauza batzuk, esaterako: esan niezazuke nik «ez dut horrela pentsatzen» baina gero pentsatzen jartzen naiz, eta badira momentuak nik horrela pentsatzen dudanak. Barruan daukadala sinetsita gauza bat, edo gorputzak esaten dit, ni naizela jendea deseroso sentiarazten duena, eta nik ez daukadala eskubiderik nahi dudana egiteko. Eta hor ba besteak ez badu ulertzen ba bistan dago ezin dudala euskaraz egin baina... (Iker, 2021-05-31 - 3. saioa).

Ikerren kasuan oraindik ahalduntzean urratsak daude emateke. Halere, badaki zer gertatzen zaion, analisi zehatza egiten du, eta baliabideak falta zaizkio. Taldean ez du parte hartze handia izan, eta baliteke, dioena kontuan izanda, taldean bi bider baino gehiagotan etorri izan balitz, urrats gehiago ematea:

"Oso gustura egoten naiz zuei entzuten, zeren zuek harreman estuagoak badituzue erdaldunekin, zeren, nik ez daukat hain harreman esturik eta zuei entzunez asko ari naiz ikasten" (Iker, 2021-05-31 - 3. saioa).

Ikerrek ezin izan du hurrengo hiru saioetara azaldu, eta beraz, bere urrats gehiagoren berri ez da jaso; soilik azken egunerako bere balorazio bat eskatu zaio, gainerakoei bezala. Halere, hirugarren saio horretan, botere posizioarena aipatu du:

Mendian pasa zait, mendira joan eta batek galdetu zidan nondik joaten zen, eta nik euskaraz erantzun nion nahiz eta berak gazteleraz galdetu, eta berak gazteleraz, eta nik euskaraz, eta berak gazteleraz, eta horrelaxe... nola ez zidan esaten ez zuela ulertzen ba... (...) Bestea zure eske baldin badator, besteak moldatu behar du zure egoerara. Alderantziz berriz, gehiago kostatzen zait. Nik eskoletan lan egiten dut eta ume askok egiten didate gazteleraz, eta ni beti euskaraz aritzen naiz eta pazientzia hartzen dut esplikatu eta... (Iker, 2021-05-31 - 3. saioa).

Ikerrek oso ondo azaldu du botere-posizioarena. Berak horrela bizi du bere azalean. Anaiaren enpresan ezdeus sentitzen da, eta botere-posizioan ez du bere burua sentitzen; aldiz, mendian eta bestea galdezka datorkionez, edo ikasleekin eskoletan, eroso sentitzen da elkarrizketa elebidunetan.

Orzuri ere txikiago sentitzen da medikuarenean:

"Duela bi edo hiru hilabete positibo eman nuen, orduan deitu egiten dizu medikuak, eta justu, nik neukan mediku euskaldun bat eta aldatu egin digute. Eta lehen momentutik nabaritu nion ez zela euskalduna, eta ni telefonotik eta erdaraz oso oso deseroso sentitzen naiz, eta garai hartan erdaraz egin nion. Eta aste honetan medikuarekin hitz egitea tokatzen zitzaidan, (...) eta medikua zela ikusi nuenean ni ja kardiaka, eta medikua gazteleraz hasi zenez, ni ere bai gazteleraz. Neukan gazteleraz egin nionaren oroitzapena, eta zuzenean gazteleraz egin nion, eta ez nion ezta galdetu ea ulertzen ote zuen edo... eta gero sekulako buru-jatea neukanez, analisiak egitera joandakoan harrerakoari galdetu nion: ea mediku honekin jarraitu behar dudana, eta ea euskaraz

badakien. Eta baietz, mediku horrekin jarraituko dudala, eta ezetz, ez dakiela euskaraz. (Orzuri, 2021-06-14 - 5. saioa).

Orzuriri ere medikuaren aurrean botere-posizioan medikua dagoela iruditu zaio, eta ez da ausartu euskaraz egitera; baina, ondoren, erreflexua izan du eta harrerakoari galdetu dio.

Dunixek azokan gertatua ere kokatu daiteke hemen. Bizipena gogoratzeko: "eta ikusi nuen eroarena egin eta hasi zela nire atzekoarekin hizketan "que si Messi, que si Bcelona..." eta ni nire artean ez nintzen sartu, eta etxeko andrea libratu zen eta hasi zitzaidan ni atenditzen eta entzuten diot orduan tipoa esaten besteari "esque esta siempre que viene me habla en vasco y yo no le entiendo nada..." (Dunixe, 2021-06-14 - 5. saioa).

Botere-harreman horretan aipatu beharrekoa da, bezero-erosle bitasun horretan bai, eroslea dela botere posizioan dagoena, baina bestalde, dendariak darabilen hizkuntza nagusiagoa da:

"Zerbitzariaren posizioa ez dela indartsuena eman dezake, baina benetan, bada. Langile gisa bezero baten aurrean dago, eta horrek, teorikoki, mendekotasuna ematen dio. Dena den, hizkuntza nagusiaren hiztuna den aldetik, egoera indartsuagoa dauka. Azken finean, legeek ere arrazoia emango liokete. Izan ere, katalanez hitz egiteko eskubidea legez onartuta dago, baina legeek ez dute jasotzen katalanez egiten duenari ulertzeko betebeharra eta, horrenbestez, hizkuntz eskubide hori nominala da, ez baita iristen efektiboa izatera" (Suya & Sanginés, 2010: 99).

Beraz, euskalduna gutxitan dago botere posizioan. Azken batean, sarreran aipatu den bezala, botere-harremanak txirikordatu egiten dira haien artean. Norbanakoa botere-harreman horretan non kokatzen den, horren araberrako emozioak pizten dira. Hizkuntza normalizatu bateko herritarrarentzat normala da bere herriko establezimenduetan bere hizkuntzan artatua izatea; hizkuntza ez-normalizatu batean hitz egiten duenak ez dauka hori bermatua. Arrazoia izan dezake hizkuntza gutxituko herritarrak, baina arrazoia izateak, askotan ez du norbanakoa lasaitzen; eta ikerketa honetan norbanakoaren bizi-kalitatea hobetzen ote den edo ez aztertu da. Suayk eta Sanginésék ere antzeko adibidea daukate haien liburuan:

"Xabierren arazoa ez da borrokalaria izatea. Xabierren arazoa da bere erantzunetan nagusi diren emozioak batez ere negatiboak direla (haserrea, tristura, gorrotoa, etsipena...), eta horrek kalterik handiena berari egiten dio. Kalterik handiena berari egiten dionez, agian pentsatu egin beharko luke portaeraz aldatzea komeni zaion" (Suay & Sangunés, 2010: 62).

Ikusten da, Dunixek askotan menpeko jarrera izan arren, beste batzuetan erasokorra ateratzen dela barru-barrutik; gero beste kontu bat da, hori azaleratzen den, edo ez, baina sentitu egin du.

Atal honetan urrats gutxi ikusi dira, egoerak botere-harremanetakoak direlako, eta hizkuntza-aldaketan urratsak ematea oso zaila delako. Egoera hauetan urratsak, ematekotan, norbere bizi-kalitatearen hobekuntzan eman daitezke, egoera horiek nola kudeatu asmatzean eta norberak jartzen dituen helburuen doikuntzan. Baina hor taldean lan gutxi egin da.

LEHEN EGUNEKO ASMOEKIKO ALDERAKETA

Jarraian, *Abiapuntuko* testigantzak eta azken egunekoak alderatu dira, aldaketarik egon ote den edo ez ikusteko:

DUNIXE: bai edo bai, parekoa edozein delarik ere euskaraz aritzea zen bere helburua. Ezustekoetan ez du lortu, bai ordea bere burua prestatzeko aukera izan duenetan. Horrez gain, hizkuntza-ohitura batzuk aldatzea zaila zitzaion orain arte. Hernaniko lagunekin ezin izan du, pandemiak ez diolako utzi hara joaten, eta beraz, Tolosako kide batzuekin saiatu da eta lortu du.

ORZURI: aurreiritzi asko zituela jabetu zen, eta horregatik egiten du lehen hitza semaforoa berde dagoenean, baina ez dago lasai. Ariketaren amaieran lasaitasun handiagoa dauka: gurasoekin, ikastaroan, ulermen-maila txikia duen lagunarekin... Horrez gain, ez ulertzeko seinalea egiten dutenekin oso urduri jartzen zen, eta guztiz lasaitu ez bada ere, izan ditu sari momentu batzuk. Ezinezkoa zitzaion elkarrizketa elebidunak luze mantentzea eta lortu egin du.

ASIER: aurreiritziekin ja erabakitzen zuen zein hizkuntzatan hasi, orain bere itxura erabiltzen du ezkutu modura: berari ere nola erdaraz egiten dioten lehen hitza, "erdaldun itxura hartuko zidan" pentsatzen du eta balio dio. Horrez gain, haurrak ere ezkutu modura darabiltza eta horrela lasai mantendu dezake elkarrizketa elebiduna haurren aurrean dagoenean. Horrez gain, lantokian hizkuntza aldatzea lortu du Aimarrekin. Berriz, txikitako lagunekin oraindik ez du errealitatea onartu.

EGUZKI: lehen egunean aipatu zuen oso giro euskaldunean bizi dela eta gutxi duela aldatzeko. Ezezagunekin elkarrizketa elebidunak mantentzea arreta gehiago jarriko zuela esan zuen, eta gauzatu du; baina gurasoekin jarritako erronka ez du lortu.

UDANE: bi helburu jarri zituen hasieran, mantendu egin ditu eta helburuak lortu ditu: lagunaren ama eta Madrildarra.

IKER: bi saiotan bakarrik hartu du parte eta ezin da balorazio sakonik egin.

PARTAIDEEN BALORAZIOAK ETA AURRERA BEGIRAKO ASMOAK

Partaideek behin baino gehiagotan aipatu izan dute elkarri entzuteak lagundu diela, eta elkarri erantzunez ibili izan dira batzuetan. Hona hemen adibide bat:

"Niri nirea baino interesgarriagoa egiten zait zuek esaten duzuen" (Iker, 2021-05-31 - 3. saioa).

"Niri, berriz, zurea ezta? Azkenean zuri gertatzen zaizkizunat gehiago niri... bakoitzak dauzka... identifikatuago sentitzen naiz emozio guzti horiekin" (Asier, 2021-05-31 - 3. saioa).

"Zuk diozuna, niri zaila egiten zait pertsona batekin baldin bazaude ohituta modu batera egiten gero hori aldatzeko, edo esplizitatzen duzue edo... eta gero harrigarria egiten zait esaten duzuenean ze ahalmena duen pertsona batek bestearen hizkuntza aldatzeko. Zuk esan duzu, adibidez, zu pasatzen zinela gaztelerara eta gero konturatzen zarela zuk ere euskaraz egin diozunean eta eutsi diozunean bera ere nola pasatzen zen. Joder, begira nola egiten dugun..." (Iker, 2021-05-31 - 3. saioa).

Ikerren azkeneko hori bezalako ekarpenak egin izan dituzte, elkarri animoak ematea eta elkarren urratsak azpimarratzea. Hirugarren saioan Ikerrek berak hauspotu zuen jokaera hori, eta ondoren bera gehiago azaldu ez arren, besteek jarraitu dute dinamika horrekin.

Taldean elkartzea baliabari izan ote zaien galdetuta, lagundu diela esan dute batzuk:

"Taldean elkartzea eta ikustea besteak ere hemen daudela, besteak ere helburu batzuk jarri dituztela, erronkak hartzen ari direla, esfortzuak egiten eta abar, horrek ere bai niri eragin didala, nik helburuak markatzen eta lortzen. Bakarrik nagoela ez da erraza, ez nukeen planteatuko eta ez nukeen hain erraz lortuko" (Eguzki, 2021-06-21 - 6. saioa).

"Niri asko lagundu dit hona etorri aurretik astearen erreposoa egiteak, baita edozer gauza pasatakoan zuri audioa bidaltzeak ere. Eta gero hemen ez dut *aportazio* asko egin, baina lagundu didazue" (Orzuri, 2021-06-21 - 6. saioa).

"Niri asko laguntzen dit zuek entzuteak. Zuek beste maila batean zaudete, eta zuek ere zailtasunak dituzuela ikusteak, ba lasaitu egiten nau eta animatu egin naiz erronka gehiago hartzera" (Asier, 2021-06-07 - 4. saioa).

"Oso beharrezkoak dira horrelako taldeak. Lehen ere saiatu nintzen ni horrelako talde bat sortzen, eta ez nuen lortu, eta orain ba hemen elkartu eta elkarri gauzak kontatzeak bakarrik, zure burua ordenatzea bakarrik, eta hori astero egitea... pasada bat da. Askok eskertzen da" (Dunixe, 2021-06-14 - 5. saioa).

Aurrera begira dituzten asmoez galdetuta, berriz, honakoa erantzun dute:

"Lehen hitza euskaraz egitearena egin dut, eta eroso sentitzen naiz. Handik aurrera oraindik ez naiz urratsak ematen hasi, baina horri eusten diot zeren, konturatu naiz kristoren sorpresak hartzen direla, eta hori bera da indarra ematen didana jarraitzeko. (...) Ulertu bai, eta hitz egiteko gaitasuna dutenekin ezinezkoa da. Jai emango diegu horiei" (Asier, 2021-06-21 - 6. saioa).

"Ba emandako urratsetan atzera ez egitea. Ikastaroa bukatu egingo zait, pena da, zeren taldea oraintxe hasia zen euskalduntzen. Irailean izena emango dut berriz, eta ja badakit irakasleak ulertzen duela beraz, berriz hasteko gogoz" (Orzuri, 2021-06-21 - 6. saioa).

"Hemen lanak asko aurreratu ditut, nire erronka izango da, ea Hernanira joaten naizenean... pena izan da talde hau zegoen bitartean ez suertatu izana hara joatea. Uste dut asko lagunduko zenidatela han urratsak ematen. Beste batean beharko du" (Dunixe, 2021-06-21 - 6. saioa).

Ikerri azken balorazio bat eskatu zaio, nahiz eta azken hiruetara ezin joan izan. Honakoa esan du:

"Azken asteetan tokatu zait jende ezezagunarekin egotea, jakin gabe euskaldunak edo erdaldunak diren eta lehen hitza euskaraz denei iritsi naiz egitera. Lehen hitz abiano gehiago ere bai, ez duela uleertzen esan arte jarraitu dut, eta gainera sentitzen dut aste hauetan denetan buruan izateak lagundu didala. Ariketa hau egin izanak horra bultzatu nauela (...). Gero lehengoan tokatu zitzaidan medikuarekin errebisioa pasatzera joanda berak erdaraz egitea niri eta nik euskaraz... eta halako batean ez nintzen hain eroso sentitzen eta egin nion galdetu ea ulertzen zidan eta baietz esanz iakean eta handik aurrera ere euskaraz jarraitu nuen, nahiz eta egia den kosta egiten zitzaidala. Eta aurrerantzean ere uste dut hor badudala zer egina. Elkarrizketa elebidunak mantentzeko halako deserosotasun bat edo sentitzen dudala" (Iker, 2021-06-21 - 6. saiorako bidalitako audioa).

Udane ere ezin izan zen azaldu azken saiora, eta aurrera begirako erronkez honakoa esan du:

"Lagunaren amarekin ikusten dut oraindik ez dudala guztiz kontrolatuta. Erronka hori izango dut aurrerantzean ere" (Udane, 2021-06-21 - 6. saiorako bidalitako testua).

ONDORIOAK

Sei kidek hartu dute parte ikerketa honetan, hasieran nahi baino gutxiagok; eta, horrez gain, zortzi asteko ikerketa egin nahi bazen ere, bost astekoa soilik egin ahal izan da. COVID-19aren ondorioz, bi oztopo izan baitira: batetik, jendea ez dago proiektuetan parte hartzeko, nahikoa neke badauka egunerokoarekin, beste ahalegin bat bere buruari eskatzen hasteko; eta bestetik, berriz, interesa azaldu duten batzuk, mugikortasun murriztuarekin, urte normal batean izango lituzketen arren, orain herritik apenas mugitzen dira. Tolosaldea zonalde oso euskalduna dela kontuan izanda, horrek eragin handia izan du.

Halere, ikerketa gauzatu da eta ondorio batzuk utzi ditu. Jarraian zerrendatu dira:

- Hasieran baino nabarmen estres linguistiko txikiagoa daukate kasu konkretu batzuetan, sei kideetatik lauk: Dunixek, Orzurik, Udane eta Asierrek. Berriz, Ikerrek eta Eguzkik ez dute urrats nabarmenik eman. Justu aurrerapen txikiena izan dutenak dira partaidetza txikiena izan dutenak: Iker sei saiotatik bitara azaldu da, eta Eguzki hirutara. Horrek berak adierazten du parte hartzearen eta emandako urratsen artean badagoela korrelazio bat.

- Astez aste epe laburreko helburuak zehaztu dituzte partaideek, eta hasierako helburuak aldatu dituzte Dunixek, Orzurik eta Asierrek; eta helburuak doitzen joan ahala hobeto sentitzen joan dira. Berriz ere, helburuak doitu dituztenak parte-hartze handiena izan duten lau kideetatik hiru dira.

- Urratsak ematen ari direla ikusi dutenek haien buruei helburu gehiago ezarri dizkiete; kontrara, urratsak apenas eman dituztenek ez dute helbururik aldatu⁴.

- Egunak aurrera joan ahala partaideen artean interakzio gehiago egon da, eta harremana estutzen joan da. Urratsak ere, haien artean harreman handiagoa sortu ahala joan dira handitzen: hirugarren saioan hasi dira antzematen, eta batez ere laugarrenetik aurrera eman dira. Egunak aurrera joan ahala urratsak handitzen joan dira, beraz.

- Partaideek adierazi dute emankorragoa zaiela besteak entzutea, norberak bere esperientzia kontatzea baino; besteak entzunez askoz gehiago ikasten delako. Horrek berresten du taldeak eragina daukala norbanakoan.

⁴ Dunixe da salbuespena, baina helburua eskuragarria ez zelako aldatu du, eta aldatu orduko hasi da urratsak ematen.

- Saria jaso dutenek urrats gehiago eman dituzte saria jaso duten alor horretan: Udanek Madrileko lagunarekin; Orzurik ikastaroko irakaslearekin eta taldean; eta Asierrek Aimar lehen momentutik euskaraz zuzentzen entzutean.

- Bost asteko esperientzia laburregia da ohiturak aldatzeko eta aldaketa horiek finkatzeko. Aldaketak hirugarren astetik aurrera hasi dira ematen, eta ohiturei ez zaie finkatzeko denborarik eman. Euskara elkarre batek norbanakoak ahaldundu nahi baditu denbora gehiagoko ariketa proposatu behar du.

Aurretik aipatutako puntu horiek guztiak aintzat hartuta, esperientzia arrakastatsua izan da. Esperotako helburuak bete dira neurri handi batean, eta beraz, honakoa ondorioztatu da: **euskaldunen bizi-kalitatea hobetu egiten da, haien estres linguistikoa txikitu egiten da, eta euskaldun ahaldunduago sentitzen dira**, baldin eta euskaltzale talde bat maiztasun jakin batekin eta denbora batean biltzen baldin bada, aditurik gabe baina dinamika aurrera eramango duen gidari batekin.

AURRERA BEGIRAKOAK

Ikerketa hau abiapuntu bat baino ez da. Frogatu da taldean biltzeak badaukala eragina taldekideen artean, eta beraz, tokian tokiko euskara elkarteei antzeko taldeak osatzen hasteko erronka luzatzen zaie. Neurri txikian, tokian tokiko euskaltzaleak ahalduntzeko taldeak sortzea.

Euskaraldiak erronka ezartzen die euskaltzaleei, eta modu masibo batean, bi astez, euskaltzaleek ariketa egiten dute. Aurreko bi edizioetan bezala, ezinak asko izango dira datozen edizioetan ere, eta ariketa ondo egingo duten erreferenteen beharra dute Ahobiziek eta Belarriprestek. Bada, euskahalduntze taldeetako kideak izango dira erreferenteak, euskaraz eroso bizitzea badagoela erakutsiko dutenak. Haien bideari jarraituz, nahi duenak taldeetan parte hartu dezake, edo inguruko euskaltzaleekin talde berri bat sortu.

Datozen hilabeteetan deialdi zabal bat egin, eta ikerketan frogatu dena herritarrekin martxan jarri nahi da. Beraz, ikerketak Galtzaundi Euskara Taldearentzat datozen hilabeteetako eta urteetako bide-lerro berri bat ireki du; eta horrez gain, behin Tolosaldean talderen bat edo beste sortzean, Euskaltzaleen Topaguneari azalduko zaio.

Ikerketa izatetik euskara elkarte baten ohiko jardun izatera igarotzeko garaian zenbait puntu zehaztu behar dira, eta ikerketak ez du horretarako gakorik eman. Zalantzak honakoak dira:

- Garbi geratu da bost asteko esperientzia labur geratu dela eta hori horrela izanik esperientziak luzeagoa izan behar duela. Baina, zenbateko iraupena izan behar du? Hiruhilekoa? Ikasturte osokoa?
- Bost edo zortzi asteko ikerketan taldea astero bildu bada ere, norbere burua ahaldundu nahi duen norbanakoen multzoa zenbatez behin biltzea komeni da? Asterokoa errealia al da? Bi astez behin? Hilabete tarte handiegia ote da?
- Taldeak itxia izan behar du, edo irekia? Hau da, aste jakinetako ariketa proposatu behar du euskara elkarteak, eta aurrez izen-ematea jarrita, talde itxia proposatu; edo maiztasun jakin batekin biltzen den talde horretara nahi duenean azaldu daiteke kide berri bat?

Galdera horiek guztiak erantzun gabe daude, eta ikerketa hau oinarri hartuta euskara elkarte batek Euskahalduntze talde bat martxan jartzeko asmorik balu, aztertu egin beharko lituzke aurrez aipatutako puntu horiek guztiak. Malgutasunak kide gehiagoren parte hartzea ahalbideratuko du, baina talde egonkorrik osatu ezean serio

hartu gabeko taldea izateko arriskua dago; izen-ematearekin, berriz, taldearen seriotasuna eta konpromiso maila ziurtatu daitezke, baina jende gutxi izena emateko arriskua legoke.

Euskara elkarteen errealitatea ezagututa, hiruhileko bakoitzean eta bi astez behin bilduko den taldea osatzea izan daiteke egokiena; hiruhilekoaren erdian bertan ere Euskalhduntze taldean parte hartu nahi duen kide berriak uneoro ateak irekita izanik. Horrez ez du esan nahi behin hiruhileko bat egiten duten kideek ezin dutenik hurrengoan parte hartu, baina kideei eskatzen zaien konpromisoa hiruhilekoa izatea izan daiteke egokiena.

Hori ikerketak euskara elkarteen jardunaz egiten duen ekarpena eta datozen hilabeteetan ikerketaren egilea buru-belarri ahaleginduko dena; bide praktikoa, alegia. Bestalde, bide akademikoa dago. Tokian tokiko euskara elkarteen beharrei erreparatuz, interesgarria da norbaitek ikertzea, ea ahalduntzen ari diren horiek ze jarrera hartzen duten aktibazioari dagokionez. Hau da, horrelako talde batean ahalduntzen hasten den pertsona aktiboagoa al da, eta beraz, euskara elkarteetatik gertuago ibiltzen al da? Gizartean eragiteko nahitaezkoak dira bide-urratzaileak. Bada, ahalduntzen diren horiek bide urratzailearen rola hartzen al dute?

Ikerketa honen mugak direla-eta, ahalduntze-prozesua bakarrik gauzatu da, baina interesgarria da aurreko paragrafoko ideia ere. Horren euskara elkarteei hurrenkera bat proposatzen dielako: lehenik norbanakoak ahaldundu, ondoren aktibista bilakatzeko.

Nahi duenarentzat hortxe geratu bedi proposamena. Eta esan gabe doa, ikerketa hori egin nahi duen edonork, edo ikerketa hau abiapuntu hartuta beste edozein ikerketa egin nahi duenak, laguntza beharko balu, bi aldiz pentsatu gabe jo dezakeela lasai egilearengana.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, Lorea (2015): Berria "19. Korrikako mezua"
[<https://www.berria.eus/albisteak/109510/19-korrikako-mezua.htm>]
- AGIRRE, et. al. (2017): *Hizkuntza, generoa, klasea eta jatorria elkargunean*, Jakin 221-222, Andoain: JAKIN.
- AGIRRE, Lorea & ESKISABEL, Idurre (2019): *Trikua esnatu da. Euskaratik feminismora eta feminismitik euskarara*, Zarautz: Susa.
- ALBERDI, Uxue (2019): *Kontrako eztaritik, emakume bertsolarien testigantzak*, Zarautz: Susa.
- ALDAHITZ IKERKETA (2011): *Aldahitz Ikerketa. Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketak lan munduan. Ondorioen sintesia*. Andoain: SLK.
[http://www.soziolinguistika.eus/files/Aldahitz_2011-Ondorioen_sintesia.pdf]
- AMONARROZ, Kike (2019): *Euskararen bidegurutzetik*, Donostia: Elkar.
- BACH, Eva & FORÉS, Eva (2008): *La asertividad: para gente extraordinaria*, Bartzelona: Plataforma Editorial.
- BADUBADA (2012): "Estres linguistikoa"
[<https://www.youtube.com/watch?v=IGfydvpa3Vk>]
- BLANCHARD, Ken; CARLOS, John P. & RANDOLPH, Alan (1997): *Empowerment. Requiere más de un minuto*, Bilbo: Ediciones Deusto S. A.
- DAVIS; Angela (1989): *Emakumeak, arraza eta klasea*, Donostia: Elkar (2016).
- DE MADARIAGA, Ainize (2019): "Komunitatea hats bahiturik. Hiztunaren taruma: diagnosa eta palatiiboak" BAT Soziolinguistika Aldizkaria 111, Andoain: SLK, 99-123 or.
- GOIKOETXEA, Garikoitz (2020): "Euskara Tolosaldean: kartografia bat", BAT Soziolinguistika aldizkaria 117, 53-106 or.
- HITZETIK HORTZERA (2020): "Ahalduntze Bertso Eskola"
[<https://www.eitb.tv/eu/bideoa/hiztetik-hortzera--2019-2020/6573/165128/ahalduntze-bertso-eskola/>]
- JAUREGI, Pello & SUBERBIOLA, Pablo (2009): "Hizkuntza aldaketa bikoteen harremanean: ikuspegi teorikoa eta ikerketaren ondorioak", BAT Soziolinguistika Aldizkaria 71, 177-191 or. [<http://www.soziolinguistika.eus/files/13%20P%20Jauregi%20et%20al.pdf>]
- JAUREGI, Pello & SUBERBIOLA, Pablo (2015): *Aldahitz ikerketa 2014. eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan*, Andoain: SLK
[<https://soziolinguistika.eus/files/ALDAHITZ%20ikerketa%202014.pdf>]
- JAUREGI, Pello (2017): *Irtten armairutik! Baietz 40 egun euskaraz, herri erronka. Ikerketaren emaitzak*, Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala.
- JAUREGI, Pello & SUBERBIOLA, Pablo (2018): "Eusle metodologia: gaztelanian finkatutako hizkuntza-ohituretatik euskarazkoetara lan-munduan", BAT Soziolinguistika Aldizkaria 107, Andoain: SLK, 97-131 or.
- JAUREGI, Pello & ANDUAGA, Uxoa (2019): *EUSKARALDIA I. Emaitzen azterketa*, Gasteiz: EJ
- IZAGIRRE, Koldo (2010): *Autopsiarako frogak*, Zarautz: Susa.
- LASA, Ainhoa (2017): *unibertsitatea.net "Ainhoa Lasa: `Euskaraz noiznahi eta nonbait eroso aritzea desiragarria ezik, lorgarria ere bada`"*

[<https://www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365/2017/03/02/ainhoa-lasa-euskaraz-noiznahi-eta-nonahi-eroso-aritzea-desiragarria-ezik-lorgarria-ere-bada/>]

ODRIOZOLA, Joxe Manuel (2011): *Estatu etnozidaren kontra*, Donostia: Elkar.

RUIZ, Juanjo (2009): *Akuilu taldeak: Euskararen aldeko eragiletza hizkuntza asertibitatearen bidetik*, HIZNET 2009: [https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/juanjo_ruiz.pdf]

SUAY, Ferran & SANGINÉS, Gemma (2010): *Irten hizkuntzaren armairutik*, Andoain: EMUN (2015).

THEUWISSEN, Katelijne & LAMARCHE, Michel (2011): *Afirmarse de un modo auténtico y respetuoso*. Poitiers: PRH-International (2014).

TORREALDAI, Joan Mari (1998): *El libro negro del euskera*, Donostia: Elkar.

TORREALDAI, Joan Mari (2018): *Asedio al euskera. Más allá del libro negro*, Donostia: Txertoa.

TRENOR, Idoia (2017): *Nola egin dute? Hizkuntza ohituretan eragiteko esperientzien bilduma*, Donostia: GFA

TXOPERENA, Maddi Ane (2020): Berria "Jokaera bat aldatzea ez da hain zaila, irautea da zailagoa" [<https://www.berria.eus/paperekoa/2355/020/001/2020-04-22/jokaera-bat-aldatzea-ez-da-hain-zaila-irautea-da-zailagoa.htm>]

ZALBIDE, Mikel (2016). "Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak", BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 100:10-192.